

Euskal formen aurkezpena Larramendiren hiztegian

Blanca Urgell
(EHU-Gasteiz)

Abstract¹

In this paper, we extend our previous lexicographic and philological description of Larramendi's Diccionario Trilingüe (1745) (Urgell 1998a, 1998b and 1999), this time focusing on the target language, Basque, its most novel side.

First, lexicographic standard aspects are described: the canonical form of Basque equivalents (§ 1), their average (§ 2) and types (§ 3). The research shows that we are dealing with a very rich dictionary, full of Basque synonyms and dialectal variants; at the same time, there is nearly always a derivational pattern all along the word family entries. It follows that the lexicographer undoubtedly employed all the written and oral sources and all the language resources he knew in order to cover the large Spanish nomenclature with as many Basque equivalents as possible.

Second, we deal with some basic philological topics: spelling (§ 4), and determiner and word final hiatus (§ 5). Spelling is partly surprising, because often it does not fit in the system normally employed by Larramendi. We conclude that from time to time he accepted spellings of his sources, mainly those of the northern dialects. On the other hand, it is not an easy task to decide what the indefinite form of the attested nouns is, not only because the canonical form, usually the determinate one, does not always help, but also because combinations that should give us the indeterminate form do not either. It seems there not to be a single system at all, again because of the great variety of sources, as well as of the lexicographer's choice itself. In fact, he accepted some of the different solutions provided by his sources just as they were —e.g. -a + -a > -a, -ea or even -ia— although seemingly he sometimes tried to offer a more general form. In any event, he had to interpret nearly all the ambiguous determinate forms in order to offer their compounds, derivatives, collocations, and so on, and evidently he was not able to do so without occasionally falling into error, as we will argue.

¹ Lan hau 1/UPV/EHU 00106.130-HA-8117/2000 ikerketa proiektuaren barruan kokatzen da. Funtsen ene tesiaren ataletako bat da (Urgell 2000), zertxobait egokitua. Gehien bat oinarritzkoa den arren —eta, beraz, beregaina—, galdera batzuk HH-ko iturri eta sorbideen azterketak sortuak dira, eta erantzunaren zati handi bat ere bederen berak emana. Irakurleak barkatuko ahal dizkit argitaragabe horretarako erreferentzia ugariak, aurki kaleratu ahalko delako esperoan.

Aurreneko hiru lanetan (Urgell 1998a, 1998b eta 1999) Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* (*HH* hemendik aurrera) formazko alderdi zenbaitetatik aztertu genuen, haren eredu lexikografiko eta hiru hizkuntzetako biren —gaztelania eta latinaren— iturri nagusi izan zen Espainiako Akademiaren *Diccionario de Autoridades*-ekiko (*DAur*) erkaketaren laguntzaz. Lan haietan berariaz euskara gehien bat alde batera geratu zen —baita latina ere, bide batez—, edozein hiztegiaren azterketan eta ulkeran ereduaren edo ereduaren garrantzia frogatu nahiz, baita hizkuntza bat baino gehiagoko hiztegiaren norberarena bakarrik aintzat hartuaz eta, beraz, beste hizkuntzekin zuzenean eta estuki lotuta dagoen testuingurutik kanpora jarriaz ikertzaileak izan ditzakeen arriskuak —gal dezakeen informazio aberatsa, besteak beste— azpimarratu nahiz.

Ereduarekiko erkaketa honek bermatu egin du Larramendiren egitasmoari buruz azken urteotan landutako ikuspegi berria, haren zutabeetako bat den *HH*-aren izaeraz den bezainbatean: alegia, Ibarrez (1935) gero hedatu zen ustearen arabera, euskararen itxurazko aberastasunekin txundituaz erdaldunak atzipetzeko jostailu izan beharrean, *HH* erraldoia erabiltzeko pentsatutako hiztegia dela; zehazkiago, hiztegi-gileak berak (1745: xliii) azaldu bezala, kultura —gehienetan gaztelaniaren bitartez iristen duten euskaldunentzat— euskarara itzuli ahal izateko tresna (Mitxelena 1983a eta 1983b, Lakarra 1985a, etab.). Asmo honetara datoz hala ereduaren hautapena —gaztelaniatzeko hiztegiarik hoberena—, nola handik aldeniuz hiztegi-gile maila guztietan egin zituen eransketak, kenketak zein aldaketak. Azpimarra dezadan gramatikazko informazio ugaria, *Imposible Vencido*-koaren osagarri.

Berme honek *HH*-ak gerora izan zuen eraginaz beste arrazoi bat, are indartsuagoa, ematen digu bertako euskarari ekiteko, orain arteko atzerapeña —Mitxelenaren hitzetan (1961: 364): «...ezta erraz jakiten euskal-itx direlako orietan zer den entzuna edo irakurria eta zer den aldatua edo burutik burura asmatua»— gairaditzeko ahalegina eginez. Izan ere, hiztegiaren makro eta mikroegituraren azterketaren bitartez erdie-tsi dugun mapa —gauzak non dauden, nola eta zeren arabera antolatu diren— osatu beharra dago oraindik, euskal informazioa zein itxuratan eman den zehaztuaz. Hauxe da gure oraingo xedea, *HH*-ko hitzen etorkia argitzea baino distira gutxiagoko zeregina, dudarik gabe, baina ziurrenik hartarako ezinbestekoa eta hura bezain interesgarria zenbait aldetatik.

Lanak bi atal argi ditu eta, gaingiroki hitz eginez, esan daiteke bata lexikografikoa eta bestea filologikoa direla. Lehenik, *HH*-aren ezaugarritzatze lexikografikoan aurrera joko dugu, hitzen forma kanonikoa (§ 1), ordainen batz besteko kopurua (§ 2) eta ordain motak (§ 3) aztertuz. Kontuan har bedi hizkuntza baten hiztegi-etako aurkezpena ez dela berezkoa, senari zor zaiona, hein aldakor batean bakarrik baizik: gainerantzean, hiztegi-gilearen edo hiztegi-gile tradizioaren hautapen kulturalak erabakitzen dute hizkuntz formak nola aurkeztuko diren, eta hiztegiaren izaerak eta xedeak ordainak nolakoak eta zenbat izango diren, beste zenbait hautapenen artean.

Larramendiren kasuan, uste dut euskal eredu lexikografiko finkorik gabe lan egin zuela, behar ahala bere kasa erabakiak hartuaz, berea baino nahikoa bakunagoak diren hiru euskal hiztegi baino ez baitzitu en ezagutu —Landucci, Etxeberri Sarakoa eta Harriet—. Haatik, gerora ez da hiztegi-gile ia, *HH* kontuan hartuta egin ez zenik XX.

mendera arte: Hegoaldeko hiztegi tradizioaren abiada honetan ezarri ziren konbentzioak ezagutzeko bidea emango digu azterkeretak.

Bigarrenik, *HH*-ko euskal hitzak behar bezala ulertzea zeinek bere neurrian oztopatzen duten bi gai orokorrez arituko gara: grafiaz (§ 4) eta mugatzaileaz eta hitz bukaerako hiatoez (§ 5). Dagoeneko mintzatu gara grafiazko arazo zenbaitez, hala nola <ch>aren balio bikoitzak sortutakoak (Urgell 1998b: § 4.10): alde honetatik dena ez dela gardena iradokitzen digute, eta honegatik *HH*-ko grafi sistema osoa deskribatu behar dela, bide batez euskal grafiaren historiari ekarpenen bat egiteko moduan.

Antzerakoa da bigarren gaia ere, ez baita erraz jakiten hiztegiko hitzen forma mugagabea zein den, bai hitzak mugaturik emateko ohituragatik, baita honekin lotuta dagoen hitz bukaerako hiatoen bilakaera ezberdinengatik. Esan gabe doa etorkiaren bila hasi aurretik Larramendik jasotakoa ziurtasunez interpretatzea lortu behar dugula.

1. Forma kanonikoa

Edozein hizkuntzaz dela, hiztegieta agertzen den hitzaren itxura ez da nahitaez naturala (hots, “Nola esaten da...?” galderari hitzunak emango liokeen erantzunaren arabera) eta bakarra, hitzarmen baten ondorioa baizik: hori da “forma kanonikoa” deritzana. Forma kanonikoa, aldaera fonetikoaren artean estandarra eta itxura morfologiko ezberdinen artean hitzunek —edo, hobeki esanda, hiztegi erabiltzaileek— konbentzioz paradigma osoaren ordezkariak ezagutzen dutena izaten da (Landau 1989: 76-77).

Euskal hiztegi modernoak, aldaera fonetikoaren artean hautatzeko oraindik daudekeen zalantzak gorabehera, ados daude izenketan mugagabea eta aditzetan partizipioa forma kanonikotzat ematen, baina egoera hau duela oso gutxi lortu da. Hiztegi zaharrek, XIX. mendearen bigarren zatira arte bederen, bestela jokatzeko zuten, oro har hitzunaren erantzun naturala errespetatuz: van Salaberriren hiztegiara arte (1856) ez dago, dakidalarik, izenkiak mugatuta ematen ez dituen euskal hiztegiarik (Urgell 2002a). Aditzean bi tradizio zeuden: Hegoaldeko hiztegi zaharretan, aditzak partizipioaz irudikatuta daude, eta Iparraldekoetan, berriz, aditzizenaz eskuarki. Alabaina, Erronkarin eta Zuberoan bakarrik jasotzen da (zen, tamalez, lehenaren kasuan) aditzizena infinitibo erromantzearen itzulpenaz galdetuta (Mitxelena 1977b: 317).

Tradizio luze eta aberatsagoko hizkuntzak ere ez dira egungo konbentziora gorabeherarik gabe iritsi. Ingeleseko hiztegi zahar zenbaitetan, adibidez, aditza *to-z* eta izena *a* artikulua lagunduta agertzen dira sarrera-buru direnean (Osselton 1989: 169). Osseltonek adierazten duen bezala, gramatika informazio premia-koena kodeatzeko bide ona da (oraingo laburpenen parekoa), nahiz eta alfabetozko ordena zertxobait desitxuratu. Oraindik ere, hiztegi elebidunetan, ingelesa xede-hizkuntza denean, aditzak *to-z* markatuta daude, izen homonimoetatik bereizteko.² Gaztelania-

² Ik. oro har Martin 1975: 157. Ohitura jadanik hiztegi elebidun zaharretan aurki daiteke (Percyvall 1591, ap. Steiner 1970: 31, adibidez).

ri dagokionez, ez dugu oso urruti joan behar: Ibargiñen-Cachopinen kronikaren bukareran agertzen den hiztegitxoan (Sarasola 1983: 161-171) —baina gaztelania-euskara zatian bakarrik, eta honetan ere lehenengo folioan baino ez— erdal sarrerak artikulaz agertzen dira: “la caueça”, “el cabello”, “la frente”, “los ojos”, etab.

Larramendiren hiztegia, esan gabe doa tradizio zaharrean murgilduta dagoela eta are, geroko hainbat hiztegiaren eredu izan zen neurrian, haren iraupenean zerikusia izan zuela. Haatik, *HH*-ko sarreraren edukia formaren aldetik uste baino ñabarragoa da: honetan ere normalizazio faltak baduke bere pisua, baina badira hobeto ikertu beharko diren ustekabe batzuk, dela iturrirei, dela orain arte deskribatu ez diren gramatikari buruzko pertzeptzio ezberdinei zor dakizkiekeenak.

1.1. Izenkiak

HH-an, izen, izenondo (eta partizipio), izenlagun eta izen sintagmak oro har mugaturik azaltzen dira:

Alforja, *zacutoa*, *alporcha*, *maletá*.
 Cabezudo, terco, porfiado, *hisitia*, *burutia*, *burugorra*, *burcoia*.
 Cobijado, *estalia*.
 Ocasional, *mugaldicoa*, *goaitaldicoa*.
 Alfana, caballo fuerte, *zaldi indartsua*.

Salbuespenak pentsa litekeen baino gehiago dira, nahiz eta hiztegiaren osotasunean ezer gutxi izan (ohiko corpusean, sarreraren %1,1 baino ez du eragiten):³

Cabito, cabillo, *condo chiquia*, *condocho*, *puisca*.
 (Cosa de) cobre, *cobrezco*, *urraidazcoa*.
 Intestado, *azquenaibague*.
 Mañero, el que tiene maña, *mañeru*, *mañaria*.
 Maravedí, *citá*, *cipá*, *marai*, *marabedia*.
 Raro, ralo, *arroa*, *üanditua*, *meatsa*, *bacan*.
 Raro, extraordinario y tal qual, *bacan*.
 Vespertino, *arratsaldeco*, *arrasteguicoa*.

Bistan da forma mugatuak edozein irakurleri —ordukoari zein gaurkoari— oztopoak ezartzen dizkiola, larriak batzuetan, hitzaren era mugagabea zein den jakiteko, jadanik Arakistainek sumatu bezala (nahiz luzaroan beste inor ez ohartu, antza denez), hiztegiaren berrargitalpenerako maisuari aipatu zizkion zuzenkizunen artean:

...si fuera remediable, juntando a la voz algún numeral o adjetivo, el conocer si la *a* final es artículo o parte de la voz, sería mucha ventaja para el debido uso, porque no se puede conocer ni saber esto por solo el Diccionario; verbigracia, no se puede saber si la voz es *gauza*, *eleiza* o *gauz*, *eleiz*. De hecho, de este segundo modo se ponen alguna vez (si no es yerro de impresión) la voz *eleiz* en el arte, y *gauz* en el Diccionario (Arakistain 1746, ap. Fita 1880-81: 65).

³ Aurreko emanaldietako corpus berbera erabiliko dut: A (I, 6, 56 eta 106), C (I, 156 eta 206), D (I, 256), E (I, 306 eta 356), G (I, 406), I (II, 21), M (II, 71), O (II, 121), P (II, 171), R (II, 221), S (II, 271), T (II, 321) eta V (II, 371); orotara *DAur*-eko 857 makrosarrera eta *HH*-ko 891 mikrosarrera.

Honezaz gainera, tradizioz “eufonia” deitu izan diren gertakari morfofonetiko zenbaiti leku egiten die Larramendik inoiz: *-ea* bukaerak (< *-a* + *a*) bereziki maiz aurkitzen ditugu (cf. *buruisquea* “cabezuela”, *arrasca*, *arrasquea* “canalón”, *capa*, *capea* “capa”, *derechea* “ocasión”, *bernea* “pierna”), baita, hein txikiagoan, *-aa* (*atea*, *ataa* «pato»), *-iya* (*ansiya* “pena”) eta *-a* / *-ya* dobleteak (cf. *etoa*, *etoya* “aleve”), eta are ekialdeko *-uia* ere (*burua*, *buruia* “cabeza”); areago, ikusiak ikusirik, aztertzekoa da *-ia* guztiek *-i* eta *-ua* guztiek *-u* bukaera daukatenentz. Baina honelakoez beranduxeko (§ 5) jardungo dugu.

1.2. Adizkiak

Gaztelaniazko infinitiboaren ordaina *HH*-an euskal partizipioa izan ohi da, Hegoaldean ohitura izan den bezala:⁴

Abominar (...), *nazcatu*, *nagatu*.
Alesnar, *leundu*.

Batzuetan, ordea, aditzizena dugu, Iparraldeko hiztegien modura; corpusean adibide bi baino ez ditut idoro:

Abordar (...), *ontzi bat besteari alderatzea*, *alboratzea*, *ta ertzaz ertzari dichecala jartea*, *ertzatu*.
(Tañer de) *occisa* (...), *aberea il dalaco adiera jotzea*.

baina hauek iradokitzen duten baino askozaz agerraldi gehiago dago, batez ere A letran, honetan erraz eta bestetan nekez aurkitu ditudan adibideok lekuko:

Abahar, *asnasé ematea*, *hatseman*, *atsedatu*.
Abarcar, *abarcatu*, *gauz ascó eguitea*, *artzea*.
Abarrancarse el ganado, (...) *abérec lur epaqui zulodúmetan sártzea*, *epaizulotú*, *centernatú*.
Abatir a uno, *norbait azpirátzea*, *lurrerátzea*, *beeratzea*.
Abribonarse, (...) *alperquerian sartzea*, *alper eguitea*, *alperquerian vicitzea*.
Abrigarse (...), *nozquetu*, *abrigatu*, *arropaz edo bestela berotu naiz, cera, da; otzetic gordetzea*, *otza eragozte*, *quentzea*.
Abultar, (...) *parecer de bulto u volumen alguna cosa*, *aundia*, *andia*, *lodia izatea*, *iduritzea*.
Acabarse, *bucatztea*, *acabatzea*, *aitutzea*.
Acaudalar (...), *ondasunac biltzea*, *biribillatzea*, *diru-gordairua eguitea*, *ondasunen gordairua ta pilla anditzea*, *gueyagotzea*, *guitzea*.
Acometer, *eraso*, *eraunsi*; *acopilatzea*.
Acomodar, poner a uno a su gusto (...), *acomodatu*, *eraratu*, *norbaiti bere zucenbidea ematea*; *bere erara ifintea*, *paratzea*, *norbait zucenbidetzea*.
Acopiar (...), *taldea cembatean larrera sartuco dan comundatzea*, *ajustatzea*.

⁴ Larramendik baino lehenago, Landuccik (*abatidu* «abatirse», *veratu* «abaxar»..) lekukotua. Ibargüen-Cachopinen hiztegitxoan izenkiak bakarrik jasotzen dira. Marineo Siculoren hitz zerrendatxoan, berriz, *onerextea* «amar» baina *ian* «comer» daukagu (Lakarra 1993: 9), gauzak bestela ere izan zitezkeela iradokiaz.

Acostarse, *etzin, echun, oeratzeta*.
 Acostarse, hazerse de el lado de otro, *bestereguna alderatzeta, besteren aldera jarteta*.
 Adelantarse, *aurreratzeta, aurratzeta, aitzinatza*.
 Aderezar la comida (...), *barazcaria, afaria, gosaria maneatu, prestatu, conpondu, mainatza*.
 Adulterar (...), *iñoren emaztearequin araguizco becatua eguiteta, iauquiteta, besterenganatza*.
 Afeitarse, poner afeites, *arpeguia colozetatzeta, apaintzeta, afaintzeta, edertzeta*.
 Afistolarse, *zauri zornajariora utsunez betetzeta; zauri zornatu, zoldituan barren zuloac eguiteta, aguertzeta*.
 Agasajar, *norbait ondo artzeta, gozoró tratatzeta, agasajatzeta*.
 Agobiarse, *macurtzeta, gubiatzeta, erorcatzeta [sic]*.⁵
 Agostarse los campos, *sozoac (...) igartzeta, eyartzeta, agortzeta, idortzeta, leortzeta*.
 Ajustarse, *compontzeta, comundatzeta, ongundetu, eguiunetu, ajustatu*.
 Alabear, *labeatzeta, uztaitzeta, macurtzeta*⁶ *aldeetatit*.
 Almonedear, *almonedan saltzeta*.
 Amusgar (...). *Abereac musucatzeta*.
 Animar, esforzar, *animatu, alaitu, indartu, quemendu, curayatzeta, bandatzeta*.
 Apoltronarse, *alpertzeta, naguitzeta, zanartzeta*.
 Bohordar, *ezpatiyaz jokatza, ezpatiyac elcarri tiratzeta*.
 Crecer a palmos, *árraca azitzeta, anditzeta*.
 Dársele o no dársele nada a uno, *antsiaric artzeta, edo ez artzeta*.
 Descerrumarse, (...) *abere bat tiroquertzeta*.
 Hermanear, *norbaiti anai deitzeta*.
 Lunas, tener lunas, *aldia izatea, euquitza*.
 (Cogerle de) nuevo, *lenengoan gauzaren bat aditzeta*.
 Recalar el viento, (...) *aicea jaiquitza*.
 Tascar la yerba, *abereac ortzaquin belarra ebaquitza*.
 Traspintarse, (...) *alderanciz guertatzeta*.

Han-hemen jasotako adibide hauen aurrean, badirudi gutxienez baieztatu daitezkeela ezen:

1) Adituzena batez ere ordain perifrastikoetan (ik. § 3.1) agertzen dela, sarrera beraren barruan (cf. *ababar, abarcar, abarrancarse, abrigarse, acomodarse*) ordain bakunak partizipioaz eman zituen bitartean. Elkarren ondoan agertzen diren bi sarreraren eraketa ere oso adierazgarria izan daitezke alde honetatik:

Confessar, *confesatu, aitortu, autortu, aboatu*.

Confessar sus pecados, *bere pecatuac esatea, salatza, aitortza, aboatza*.

Esango nuke honelakoetan konbentzioa gorde beharrak baino senak aginte gehiago izan zuela, alegia, hiztunaren erantzun naturalari atxiki zitzaioala, ez baita kasu bie-

⁵ *erorcatza* xelebre hori *crocatza*-ren ordezkotako hutsa da, partizipioan *crocatua* baitago haren lekuan; cf. *crocatua* «corcobado», «gibado».

⁶ Jat. *macartzeta*, egileak zuzendua.

tan bera. Dena dela, honek ez du esan nahi ordain perifrastikoak derrigor adituzenaz ematen dituenik; cf., adibidez:

Aballar, (...) *artaldeá larrerá, bazcátzera, játera eráman, eróan*.

Abaratar, *merquetú, merqué ifini*.

Abarracarse, (...) *echoletan, chaoletan sartu*.

Abastar, (...) *ornitu, bear dan guciáz zuzquitu, beté*.

2) Sistematikoki erabiltzen duenean, ordain bakunek *-se* aditzetan bakarrik hartzen dutela adituzena (cf. *acabarse, adelantarse, agobiarse, apoltronarse*).

3) Sarri xamar, ordain batzuk batera eta besteak bestera agertzen direla; adituzenaz, normalean lehenak edo azkenak (cf. *acometer, acostarse, aderezar, ajustarse, animar*). Honek zerikusiren bat izan lezake iturrien arazoarekin, *HH*-aren azken iturri ezagunetik —Harrieten hiztegitik— hartutako adibide argi batek erakusten digun legez:

Doblar, hazer otro tanto, *bambestetu, biderbitu, horratzea* < Ht FE 350 *horratzea* “doubler”.

4) *-se* aditz mordoxka batean, aditz beraren partizipioa eta izena, biak agertzen direla; batu ditudan adibide guztiak lehenengo orrialdetakoak direnez gero, pentsa daiteke hasiera batean bi formak eskaintzeko asmoa zuela edo, bestela esanda, aurreko tradizio biei amore eman nahi izan ziela:

Abanicarse, *aizatu, aizatzea*.

Aburriarse, *gogaitu, gogaitzea*.

Adamarse, *damatu, damatzea, andere, anyeretzea, edertzea, chucuntzea, politatzea*.

Adargarse, (...) *adargaztatzea, adargaz estali, estaltzea, ezcutatzea*.

Adozenarse, *hamabicatzea, balsatu, balsatzea, char ascorequin sartzea, deungueacaz nastea, anitz beeragoacquin nahassitza*.

Euskal aditzaren hirugarren forma jokatu gabeak —aditzoinak— ere badu lekua *HH*-an, partizipioak eta adituzenak adinakoa izan ez arren. Eskuarki, etimologietan agertzen da, partizipioarekin batera, agian gaztelaniazko aditzarekiko lotura argiagotzearren:

Abiar (...). Viene de el Bascuence *abia, abiatu...*

Baldar, viene de el Bascuence (...) *alda, aldatu...*

Caber, viene de el Bascuence *cabi, cabitu...*

Deparar, puede venir de el Bascuence *para, paratu...*

Ensartar, viene de el Bascuence *sar, sartu...*

Behin bederen, sarrera normal batean ere ikus daiteke, partizipioaren aurrean; formak zuzenak dira beti (cf. *lot*), gaia menperatzen zuelako seinale:

Agarrar, *arrapa, arrapatu, itsatsi, ichequi, el, eldu, atzeman, atzaman, lot, lotu*.

2. Ordain kopuruak

Corpusean diren 750 sarrera ordaindunetan⁷ —eta oraingoz ordainen izaera konruan hartu gabe— honako hauek dira (a) sarrerako ordainen kopurua, (b) delako kopurua daukaten sarrerak orotara eta (c) ehunekoak:

a	b	c
1	369	%49,1
2	233	%31,2
3	98	%13,2
4	32	%3,9
5	12	%1,7
6	2	%0,3
7	1	%0,1
8	1	%0,1
9	1	%0,1
10	1	%0,1

Hiztegiaren ñabartasunak beharbada bestelako ustea izatera eraman balezake ere, zerbakiok ikusita argi dago *HH*-ko sarreren erdiak euskal ordain bakar batez osatuta daudela.⁸ Bateko eta bikoien artean, berriz, hiztegiko sarreren %80 igiten dute.

Orrialdeko banaketa, bestalde, honako hau da, hurrenez hurren orrialdeko sarre-
ra kopuru orokorra eta 1etik 10rako ordaindun sarreren kopurua emanez:

	k.o.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
<I, 6>	22	3	6	9	2	1	0	0	0	1	0
<56>	37	18	9	7	2	0	1	0	0	0	0
<106>	45	13	16	7	5	4	0	0	0	0	0
<156>	39	23	10	4	2	0	0	0	0	0	0
<206>	54	29	20	3	2	0	0	0	0	0	0
<256>	49	15	18	9	4	2	0	0	1	0	0
<306>	46	23	8	11	1	1	0	1	0	0	1
<356>	52	32	15	2	2	1	0	0	0	0	0
<406>	34	20	6	7	1	0	0	0	0	0	0
<II, 21>	56	26	24	5	1	0	0	0	0	0	0
<71>	37	16	13	7	1	0	0	0	0	0	0
<121>	47	31	8	5	1	2	0	0	0	0	0
<171>	52	33	14	2	2	1	0	0	0	0	0
<221>	39	15	18	4	2	0	0	0	0	0	0
<271>	47	22	18	4	3	0	0	0	0	0	0
<321>	47	25	15	6	1	0	0	0	0	0	0
<371>	47	25	15	6	0	0	1	0	0	0	0
orot.	750	369	233	98	32	12	2	1	1	1	1

⁷ Bidalketa-dei hutsak (133), ordainik gabeko etimologiak (4), oharrak (2) eta adibideak (2) kendura.

⁸ Ehunekoa zertxobait jaitsi behar da (%46,8ra), bertan sartu baititut «eta abar» adierazten duen zeinuaz eraturako sarrerak; dena dela, sarrera hauek oro har interesik gabekoak izan ohi dira, erdarazko infinitiboan emandako ordain berberen errepikapena izaki (ik. § 3.3).

Bigarren taula honek erakusten digu 1-4 bitarteko ordain kopurua hiztegiko edozein orrialdetan ager daitekeela. Gainera, hiru orrialdetan (106, 256 eta 221) biko sarrerak batekoei nagusitzen zaizkie, eta beste bitan (21 eta 71) ia parean daude biak.

Setik gorako ordaindun sarrerei buruz, zenbakiak baino interesgarriago, haien edukia nolakoa den ikustea izango da. Zeren eta ordain guztiak, edo gehienak bederen, benetan berezi —eta apika etorki ezberdinekoak— dituztenak gutxienak baitira; hona hemen gure adibide bakarrak:

Assentaderas, *epurmamiac, epurdia, eperdia, atzecoaldea, esergarria*.
 Assessar, *senondú, zurtu, zuburtu, zentzatu, zoritu*.
 Embarazar, *eragotzi, catibatu, empachatu, debecatu, ecairatu, trabatu, fachelatu*.
 Ocasión, *mugua, derechea, parada, mugaldia, goaitaldia*.
 En pié, de piés, *zutic, zutinic, chutic, chut, zur*.
 Vestido, *soñecoa, jazcaya, jaunzcaya, aldagarria, filda, abillamendua*.

Gainerakoetan, irakurlerik inpartzialenak ere ikusiko luke aniztasuna hizkuntza-ren baliabide ezberdinak erabiliaz erdietsi dela. Konpara ditzagun goragoko *embarazar* sarrera eta ondoko hau, zalantzarik gabe bata bestearen zordun:

Embarazo (...). *Arazoa, eragozqueta, echiquidura, catibuera, debecandea, debecua, ecaira, ecaya, empachua, fachelua*.

Ikusi, halaber, familia honen bilakaera:

Alfombra, *alhombra, oñazpicoa, oyalpecoa, cerría*.
 Alfombrar, *oñazpicotu, oyalpetu*.
 Alfombrado, *oñazpicotua, oyalpetua, oñazpicoz, oyalpez estalia, janciá*.

Gertakari hauen deskribapena geroko utziaz (§ 3.2), hemen azpimarratu nahi nuke ordain bakunen kopuruari dagokionez, *HH*-aren muga 5-6tan egon ohi dela, corpusean kopuru txikiak (12 eta 2, hurrenez hurren) baina ez adibide bakarra (handik goitikoak bezala) erdietsi dituztenetan, hain zuzen. Sei ordainetaraino iristen diren sarrerak, gutxitxo izan arren, ez dira erabat aurkigaitzak, eta egindako bilketan handiaren berri demaigute:

Baba, *erdea, linguerda, adurra, elderra, guirlia, lerdea*.
 Cansar, *cansatu, necatu, aricatu, unatu, laatu, enoyatu*.
 Comedor, *jalea, mandica, nayoa, triponcia, sayea, cintzurcويا*.
 Corcoba, *curcua, corcويا, crocá, chungurra, cuncurrá, burcolla*.
 Resbalar, *limburtu, limuritu, limurtu, labaindu, lerratu*. (...) Item *irristatu*.

Jakina, tartean luzeagoak ere badira; hona hemen hiztegian zehar eriden ahal izan ditudan aberatsenak:

Bofetada, bofetón, viene de el Bascuence Labortano *bufetá*, que significa lo mismo, *masalleco, matralleco, matalecoa, autzecoa, belarrondocoa, zaplada, cinqueia, ucaldia*.
 Flaco, *flacoa, flacua, argala, erbala, masquela, mascarra, santarra, erquitua, abula, hebaina*.

Adibide klasiko batekin buka dezakegu: *mariposa* sarrerepean, Larramendik bost ordain aski ezberdin eskaintzen ditu, eta haietako bat behinik behin bere hizkeratik aski urrutikoa (*ulifarfalla*), beharbada Axularrengandik hartua:

Mariposa, *inguma, chiquetá, chirita, micheletea, ulifarfalla*.

3. Ordain motak

3.1. Ordain bakun eta perifrastikoak

HH-ko ordain gehienak bakunak edo “itzultzaile” (fr. “traductifs”) deritzenak dira: iturri-hizkuntzaren hitzak edo esapideak xede-hizkuntzan adiera ahalik eta hurbileneko hitzek edo esapideek ordezkatzen dituzte, definizio lexikografikoaren lege nagusienetatik baten ariaz: ordezkgarritasunaz (ing. “substitutability”), hots, bata bestearen lekuan jarri ahal izateaz;⁹ adib.:

Sangre, *odola*.

(A) sangre fría, *odol otzean, odol gueldian*.

(Sin piés, ni) cabeza, *ez buru, ta ez oiñ*.

Honelakoak, aztertzen ari garen 750 sarreretatik 566 (%75,5) dira. Gaineraketan, gaztelaniazko hitz baten ordainez, euskarazko hitz bat baino gehiago agertzen da.¹⁰ Batzuetan, ez dago zalantzarik perifrasiak ordain ona dela, aldamenean inoiz doan hitz trinkoa baino hobea maiz, batez ere aditzetan:¹¹

Alfombrado, *oñazpicotua, oyalpetua, oñazpicoz, oyalpez estalia, janciá*.

Assegurar, dezir algo con asseveración, *segurutzat esan*.

Assemejar, *irudierazo, cerbaiten irudira, anzoza eguin*.

Assemejarse, *irudin, irudia, anza, anzoza izan*.

Assenderear, *bidescatu, bidesquetatic ibillaraci*.

Asserrar con sierra (...) corva, *codeñatu, codeñeaz epaqui*.

Embalijar, *bidezorroan sartu*.

Embarrilar, *barrilatu, barrilean sartu*.

Evangelizar, *evangelioa adierazo, enzunerazo*.

Sangrar, abrir la vena, *sangratu, zancitu, odola atera*.

Sangrar, arrojar sangre, *odola jario*, con los irregulares...

Versificar, *biursac, lototsac, versoac eguin*.¹²

Vetado, *betaz betea*.

Bestetan, ordea, ordain perifrastikoak nekez betetzen du ordezkgarritasunaren legea, eta sarritan hurbilago dugu definiziotik, ordaina izatetik baino. Hau ez da

⁹ Lege honen erabilgarritasunaz eta mugez, ik. Seco (1987: 19-23) eta Landau (1989: 132-4), nahiz biok hiztegi elebakarrez diharduten.

¹⁰ Euskaraz hain arruntak diren aditz esapideak (*bitz egin, hitz eman* edo *bitz hartu* erakoak) alde batera utzita. Cf. Quemada 1967: 43, 1539-1863 arteko frantsesezko hiztegi eleanitzez ari dela: «Si aucun mot traducteur n'existe dans la langue de sortie, une périphrase peut en tenir lieu dans des conditions identiques [hots, biak baliokidetzat emanez]».

¹¹ Euskal lexikoan, dakigunez, aditz perifrasiak oro har oso usukoak dira (Mitxelena 1977b: 315).

¹² Cf. HH: “Verso, *biursa, lototsa, versoa*”.

Larramendik isilean egin zuen zerbait, latina sartzeko izan zituen arrazoiak azaltzeko idatzi zuen pasartean lehiatuki aldeztua baizik:

[He añadido el Latín] para desengañar a aquellos mal instruídos Bascongados, que con errada aprehensión piensan que a toda voz Castellana ha de corresponder otra voz simple Bascongada. Qué presto y fácilmente depondrían este error, si al contrario quisiera buscar en Castellano voces correspondientes a otras muchas del Bascuence: pues, luego por experiencia encontrarían muchísimas voces sin correspondientes simples en Castellano. Pongo pues el Latín, para que vean que aun en esta Lengua muchas veces no puede explicarse una voz Castellana, sino por perifrasi o por dos o más voces, y que no deben extrañar esto en el Bascuence (1745: xliv).

Akademiak latinezko ordainetan hartu zuen erabakia gidari izan bide zuen:

En la versión Latina de las voces ha procurado poner la Academia la mayor conformidad; aunque muchas veces es casi imposible convertir igualmente la voz Castellana en otra Latina, por cuya razón para inteligencia de los extrangeros se ha usado de algunas phrases en los casos que ha sido preciso, con el deseo de la mayor claridad y conocimiento de los Lectores: y también por evitar no volver la voz Española en otra Latina menos expressiva, y no tan correspondiente (*DAut* 1726: vii).

Maiz gaztelaniazko azalpenaren itzulpen hutsa da euskarazko ordaina, inoiz oso luzea, *abordar* eta *occisa*-n ikus daitekeen bezala:

Abordar una nave a otra, u con otra cosa, acercarse, pegarse borde con borde, *ontzi bat besteari alderatzea, alboratzea, ta ertzaz ertzari dichecala jartea, ertzatu.*

Alfana, caballo fuerte, *zaldi indartsua.*

Alfaqueque, redemptor de cautivos, *catibu diranen eroslea, ateratzallea.*

Alfaraces, caballos ligeros de los moros, *Mairuen zaldi ariñac.*

Alfareme, toca o velo de la cabeza, *ibiquia, buruco estalquia.*

Alfargía, madero para fundar puertas y ventanas, *ate leyoac ifinteco zur bat.*

Assentar, presuponer, *aurrena, lenena ezarri, ifiñi.*

Deicida, el que a Christo quita la vida, *Jaincoaren <Joi->, Christoren erallea.*

Eucharistía, acción de gracias, *esquerguita, esquerrac, esquerr-emaitea, esquerrac emotea.*

Ochava, la octava parte, *zortzigarren partea, ochava.*

Salvar, passar por encima sin tocarlo, *eraguin, uquitubague irago.*

(Tañer de) occisa, en la Montería es avisar con la bocina estar muerta la res, *aberea il dalaco adiera jorzea.*

Edo bestela latinezkoaren itzulpena, hizkuntza honek ere euskal ordainetan eragina izan zuela aditzera emanez:

Assentista, *erreguearen ondacartzallea, ondacarrac bere contura artzen dituena.*

Lat. Vectigalium regiorum ex pacto administrator.

Definitorio, *arpeztarien bilguma.* Lat. Diffinitorum consessus.

Guijarro, (...) *arri leuna, arri boilla.* Lat. Lapis laevis & rotundus.

Guincho, ave marítima, *cayo morea*. Lat. *Gavia cinerea*.

Témpano, medio tocino, *cherriquiaren alderdia*. Lat. *Suini corporis dimidium*.

Versícula, *coruco librutoquia*. Lat. *Locus, in quo libri cantus collocantur*.

Bestetan, gatzelaniazko zehaztapena barneratzen du:

Abonanzar el tiempo, *eguraldia ondu, ondotu, ongitu, malsotu*.

Assentar piedras preciosas los plateros, *artisteac zulcatu, sildatu*.

Assestar artillería, &c. *sutumpa aurquetu, zucendu, destatu*.

Cabra, cabrilla en las piernas, *aztaleco anchumea*.

Deferir al juicio o dictamen de otro, *eraquidatu, besteren usterari jarrai*.

Embalar, hazer fardos, *lopillatu, bilgotu, lopillac, loturac, bilgoac eguin*.

Eucharistía, Sacramento, *Esquerremateco ezcutapea, Sacramentua*.¹³

Pieza de oro, &c. alaja, *urrezco garautá*. Lat. *Vas aureum, &c*.

Rapto a la cabeza, *burura igotzea*.

Sangrar algún río, &c. *ibayari ugoaira eman, eguin*.

Témpano, en el pandero, *zaldabayaren larrua*.

Beste anitzetan azalpena euskaraz bakarrik topatzen da; erkaketa eginez gero, ordea, *DAut*-eko azalpenen eragina nabarmena da, bai edukian, baita forman bertan ere. Adjektiboak (eta pareko beste zenbait egitura), adibidez, erlatibozko esaldi batez itzul (edota azal) ditzake Larramendik, gehienetan ereduari jarraiki:

Abonado en hacienda, *aberatsá, dirutia, onic asco duena* < “El que tiene crédito y caudal bastante...”.

Asemejado, *dirudiena, irudia, irudina, anza duená*.

Deífero, *Jainco-eramallea, Jainco-eroallea, Jaincoa berequin daramana, beregaz daroana* < “La persona que lleva consigo a Dios...”.

Eterno, *betirauna, beticoa, beti dirauena* < “Lo que (...) ha de durar siempre y por siempre”.

Etymológico, *hitz jayotzari dagocana* < “Cosa tocante a etymología”.

Evangélico, *evangelioari dagocana* < “Lo perteneciente al Evangelio”.

Mar en leche, *ichaso eznetan, gueldi, malso dagoena* < “El que está sossegado y benigno, sereno y sin alteración”.

Veterano, *zarrá, zardana*.

Izen asko, berriz, ‘izena + izenondoa’ egituraz ordezkutzen dira, arrazoi ezberdengatik, baina sarritan *DAut*-eko azalpenen eraginez, eta inoiz gatzelaniazko hitzaren berarenez (cf. *obtusángulo*):

Cochinilla, *cherricho emea* < “Cochina pequeña”.

Defensorio, *eranzuqui escudataria* < “Manifiesto, escrito apologético en defensa o satisfacción de alguna persona, u de otra cosa”.¹⁴

Guija, *arricho leuna* (eta “Guijarreño, *arri leunezcoa*”).

Internuncio, *mandatari bitartecoa*.

¹³ Cf. HH: “Sacramento, *sacramentua, ezcutapea*”.

¹⁴ Cf. HH: “Apología, *eranzuquia*” eta “Defensor, *escudataria*”.

Obtusángulo, *choquezqui ciaguea*.¹⁵

Piélago, alta mar, *ichaso betea, ichaso zabala*.

Sándalo, yerba, especie de yerba buena, *menda samurra* < “Hierba enteramente parecida a la hierbabuena (...). Tiene las hojas más tiernas...”.

Vestuario, vestidos, *jancialdia, jazcai osoa* < “El conjunto de las cosas necesarias para el vestido”.

Berbera gertatzen da bestelako egituretan ere:

Assentador de cantería, *arlanden zucentaria* < “El oficial que assienta las piedras de sillería...”.

Assentar en la Cantería, *arlandac zucendu* < “...se dice (...) quando se assientan una sobre otra las piedras de sillería...”.

Assessor de juez lego, *letradun laguna* (eta “Assessoría, *letradun lagunaren egoquia, equinza*”) < “...el Letrado que se da al Juez lego por acompañado...”.

Asseverar, *osoró esan, erran* (eta “Asseveración, *osoró esatea, oso ta oro erratea*”) < “Decir con firmeza alguna cosa...”.

Deicidio, *Christo gure jauna eralletzea, hiltzea* < “El homicidio de Christo nuestro Bien...”.

Eternizar, *betiraundu, beticoeratu, beti iraunerazo* < “Perpetuar para siempre”.

Etimología, *hitzen jayotza, sortzea* < “Origen, raíz y principio de las palabras...”.

Obsesión, *gaizquiñez ingurutua egotea* < “Asistencia de los Espíritus malignos al rededor de alguna persona...”.

Obsesso, *gaizquiñez ingurutua* < “adj. que se aplica a los que tienen arrimados a los Espíritus malignos, que los cercan y rodean...”.

Versiculario, *Coruco libruzaya* < “El que cuida de los libros de Choro...”.

Vespero, *illunabarreco izarra* < “El Lucero de la tarde”.

Gure corpuseko hitz batean, Larramendiren ordain perifrastikoa erdal hitzak iradoki duela dirudi:

Picotero, hablador, *bizjarioa, moco utsa*.

Ordain perifrastikoen artean badira aipamen berezia merezi duten bi talde: definizioak eta ordain zehazgabeak. Baina lehenago, hiztegi ospetsuago bateko halako ordainez ikertzaileak zer dioen aipatuko dut, Larramendirenak beren testuinguru historikoan eta esanahi sakonean ulertzen lagunduko digulakoan:

...Nebrixa en su deseo de exhaustividad ha de dar entrada en el *Lexicón* [hau da, latina-gaztelania hiztegian] a voces latinas cuyo significado le resulta oscuro en castellano y así, por ejemplo, de *Alcedo* dirá “cierta ave marina”, o en otros casos tendrá que dar la equivalencia a la voz latina correspondiente mediante una forma analítica por no conocer la sintética correspondiente (...) como en *Carnifica* “el lugar donde atormentar” (Acero 1985: 19).¹⁶

¹⁵ Cf. HH: “Angulo, *choquezquia*” eta “Obruso, *ciaguea*”.

¹⁶ Berbera gertatzen da, ezinbestean, beste hizkuntzako hitzak nolabait ordezkatu behar dituzten hizkuntza modernoko hiztegi elebidunetan. Cf. Steiner (1970: 27) Percyvall-en gaztelania-ingelesa hiz-

3.1.1. Definizioak

Inoiz, ordainik gabe (gutxiagotan ordainen baten aldamenean), erdal hitzaren definizioa da *HH*-ak euskaraz eskaintzen duena; honelakoak, gorago aipatu hainbat ordain perifrastiko bezalaxe, Nebrixaren *Carnifica*-ren kideak dira. Esan gabe doa Larramendiren definizioa *DAut*-ekoaren zordun izan ohi dela:

Algalia, el sudor de el gato de algalia, *cataurrinaren icerdia, ta andic eguiten dan autsá*. Lat. *Felis odoratae pulvis*.¹⁷

Emballenar, *balea-bizarrez soñecoac eguin* < “Afianzar y guarnecer con pedazos de barbas de ballena los jubones y otros vestidos...”.

Interregno, *erregueric eztaneco erartea* < “El tiempo que un Reino está sin Rey...”.¹⁸

Ocasión próxima, *mugaldi urcoa, mugaldi gaitzá, berequin pecatua urrean daccarrrena* < “...aquella en que puesto alguno voluntariamente, siempre o casi siempre cae en la culpa...”.

Badago definizio mota konplexuago bat, *iritzi* edo, gutxiagotan, *deitu* aditzaz osatutako adierazpenaz hasten dena eta, inoiz, euskaraz —eta hau oso garrantzitsua da— hitzari buruzko informazio lexikografiko berezia ematen duena, *DAut*-ekoa Larramendiren erara laburtuaz. Bildu ditudan adibide guztiak corpusetik kanpokoak dira, eta haien artean *adverbio* hitzaren definizioa —gramatika kategoria bat euskaraz definitzeko bigarren saioa, Etxeberrirenen ondoren— azpimarratuko nuke:

Adverbio, *ala deitzen diogu verboari da*][*rraicán eraiscun bati, eta aren adieracia nolatzen duenari*: *eguin, orra verboa*; *gaizqui, ondó, ederqui, itsusqui, orra adverbioac, verboaren adieracia nolatzen dutenac*.¹⁹

Agnus, los Agnus que vienen de Roma, *ala derizte arguizqui meecho biribil batzuez eguinicaco bildochai, aita Santuac bere eguin berrian bedeicatuac; agnusa, arguizaguizco bildoch bedeicatuac*.²⁰

Alelukas, los papelillos que se arrojan el Sábado Santo, *alá deriste Larumbat Santuan botatzen diraden paperezco bicheletac* [sic, *-ai*-ren orde], *lendabicico aleluya esatean*.²¹

regiaz (1591): «Percyvall sometimes uses definitions as makeshift substitutes for an equivalent he does not know».

¹⁷ Definizio hau bereziki azpimarragarria da, *autsa* latinetik bakarrik har baitzezakeen: *DAut*-ek gaztelaniaz *sudor* eta *manteca* baino ez ditu aipatzen.

¹⁸ Cf. *HH*, orrialde berean: “Intervalo, *uisartea, erartea*”.

¹⁹ Cf. *DAut*: «Es aquella voz que modifica la significación del verbo [= *aren adieracia nolatzen duena*], y da a entender el modo o la calidad con que se hace, se dice o se piensa: como velozmente, respecto de correr; elegantemente, respecto de hablar, y ingeniosamente, respecto de discurrir. Y éstos se llaman propiamente adverbios de modo. Otros hai de lugar...».

²⁰ Cf. *DAut*, s.v. *agnusdei*: «Unos pedazos de cera blanca, amasados por el Papa, con polvos de reliquias de Santos, a quien sirven y asisten para esto algunos Cardenales y Prelados; métese esta cera entre dos formas, que la una tiene abierta a cincel la forma de un Cordero con la inscripción *Agnusdei*, y la otra la Imagen de Christo, de nuestra Señora, u de algún Santo, con su inscripción y el nombre del Pontífice que los hace y bendice; y así salen estas formas en la cera de medio relieve, y regularmente de hechura circular o elyptica».

²¹ Cf. *DAut*: «Se llaman por analogía las estampas de papel o vitela que se arrojan en demostración de júbilo y alegría el Sábado Santo, al tiempo de cantarse la primera vez solemnemente por el Celebrante la Aleluya...».

Attrición, *iztamua, icidamua, izudamua*. Lat. *Attritio*. *Ala deritza, izuác edo icarác diacargun damuari, noiz eta ifernua gogoratu ta, aren bildurraz damu artzen degun Jaincoa ofendituaz*.²²

Babieca, *ala ceritzan Ciden zaldiari; baña diogunean es un babieca, esan nai degu, guelbera, illaun, motel, gueisancha bat dala*.²³

Corniculario, *ala ceritzan Erromatarren goyende bati, eta esan nai du adarza-ya*.²⁴

Pentecostés, *berroguetamar ondoreco jaya*. Lat. (...). *Ala deritza Pazcoa Mayatzeco egunari*.²⁵

Hona hemen beste era bat:

Serafín, Angel de el primero y supremo Choro, *bitz onec esan nai du, iracequia, Jaincoaren amodioz sutua, amorezco suac eta garrac dariozcana. Serafiña*.²⁶

Euskaraz bakarrik egiten dituen zehaztapenen adibide eder pare bat aurkitu dut corpusetik kanpo:

Alamar, alamares, son presillas, ojales postizos en los capotes y otros vestidos, *alamarac, aribeguiac, ariz eguinicaco beguiac, ta ari hori da edo sedaz, edo cillarrez, edo urrezcoa*.²⁷

Beatificar, *doatsuguin, santuren bat ceruan dagoala esan, erabaqui, ceña dan Aita Santuaren equintza*.²⁸

Ohar bedi, bide batez, *HH*-ko euskal metahizkuntza Larramendiren euskalkia dela, bere ohiko idazkera, zehazkiago.²⁹

3.1.2. Ordain zehazgabeak

Nebrixaren *Alcedo*-ren parean, Larramendik batzuetan ez dauka euskal ordain egokirik, eta orduan zehaztapen batez (eskuarki erdaraz eman beraz) konpontzen du auzia, gehienetan *bat*-ez (erd. *un(a)*-tik), ez gutxitan halakoak *mota* edo *mota bat*-ez

²² Cf. *DAut*: «Dolor, detestación y arrepentimiento de los pecados cometidos, que nace del temor del eterno castigo de Dios, y de las penas que por ellos se merece, así de daño, como de sentido, u de otros motivos honestos y sobrenaturales regulados y manifestados por la Fé Divina».

²³ Cf. *DAut*: «En lo literal es el nombre que pusieron al caballo del Cid; pero se usa de esta voz por translación mui freqüentemente por lo mismo que bobo».

²⁴ Cf. *DAut*: «Cierta Oficio u Dignidad [= *goyende*] entre los Romanos, que según dice Calepino era el que mandaba el cuerno o a la derecha, o izquierda del ejército».

²⁵ Cf. *DAut*: «Era una fiesta de los Judíos (...) y se celebraba cincuenta días después de la Pascua del Cordero; y por esto se llamó Pentecostés, que significa día quinquagésimo. Por la misma razón se da este propio nombre a la festividad de la venida del Espíritu Santo...».

²⁶ Cf. *DAut*: «Es voz Hebrea, que vale encendido o inflamado, por ser estos Espíritus los más abrasados en el amor de Dios».

²⁷ Cf. *DAut*: «Hácense de varias maneras, y de diferentes materias: como de estambre, seda, hilo, plata, oro, u otro metal».

²⁸ Cf. *DAut*: «Declarar el Sumo Pontífice que algún siervo de Dios está en su presencia, y goza de la bienaventuranza».

²⁹ Aztertzeko dugun alderdia da, dena den; baieztapena nire inpresioan oinarritzen da, eta ez zait irudititu oro har ustekabekorik dagoenik.

(erd. *especie* edo *cierto/a-tik*) markatuaz, Percyvall-ek (1591), esate baterako, gaztelania-ingelesa hiztegian *a kind of* darabilen bezalaxe (Steiner 1970: 27):

Alfaneque, ave de rapaña, *egazti arrapari bat*.
 Obsidiana, se llamaba una piedra negra (...), *arri beltz bat*.
 Oca, una raíz dulce de el Perú, *Indietaco sustrai gozo bat*.
 Ocal, pera, manzana ocal, *udare gozó bat*.
 Sandaraca, especie de rejalgat, *arbotzoi mota bat*. (Cf. *arbotzoya* «rejalgat»).

Cf. corpusean behin baino azaldu ez zaigun *mota*-ren beste adibide hauek:

Fildenotor, cierta tela de lana o lanilla, *oyile mota bat*.
 Fixa, especie de gozne, *elgontza mota*.
 Eta ordain zehazgabe mota berri zenbait:
 Bigardo, *fraideai deitzen zayen irainá*.³⁰
 Orión, constelación, *orión deritzan izarquide bat, izarpilla bat*.
 Pernigón, *Genovatic datorren aran gordacaitu bat*.³¹

3.2. Ordain errekurtsiboak

Honela deituko diegu, lehenik, eratorpen atzizki beraz edo berez eratutako sarretan agertzen direnei. Honelako ordainek, agerian dago, *HH*-aren sorbideetara daraman ate baten giltza jartzen digute eskuetan. Oso maiz, familia buru den hitzari egokitutako ordainak hartu, eta atzizki bat beraren ezarketaz osatu dira haren eratorrien sarrerak. Adibideak askotxo diren arren, denak ematea merezi du, nik uste, honen benetako eraginaz jabe gaitezen (taket artean ematen ditut oinarritzko sarrerak, nabarmenak direnean):

Alfaharero, *loiguillea, buztinguillea, eltzeguillea, topinaguillea*.
 Aleta, [a]lla pequeña, *egaachoa, egoachoa, egalchoa*.
 Cabezalejo, *burucochoa, aurdicochoa*.
 [Cobardía, *anué, bildurra*].
 Cobarde, *anutia, bildurtia*.
 Cobardear, *anutu, beldurtu*.
 Cobardemente, *anutiró, beldurtiró*.
 Cobranza, *cobranza, coberanza, escaterá*.
 Cobrar, *cobratu, coberatu, escateratu*.
 [Cobre, *cobrea, urraidá*].
 (Cosa de) cobre, *cobrezco, urraidazcoa*.
 Cochinilla, para teñir, *garausticaya, suteocaya*.

³⁰ Cf. *DAut*: "Nombre injurioso con que el vulgo malamente se burla y denuesta a los Religiosos, (...) equivocándolos con el de Begardos hereges antiguos, escandalosos y obscenos, que desmandados de su regla de terceros, obligaron al Papa Juan XXII a perseguirlos y extirparlos".

³¹ Cf. *DAut*: «Especie de ciruela redonda y tierna, que viene de Génova en dulce», eta *HH*: «(Hazer) conserva, conservar, *gordacaitu, gordacaya eguin*. Lat. Saccharo, aut melle condire».

- Cochura, *egosaldia*, *errealdia*.
 {Defender, *escudatu*, *gordoztzi*}.
 Defendederu, defendible, *escudagarria*, *escudaquizuna*, *gordozgarria*.
 Defendimiento, defensión, *escudatzea*, *gordoztea*.
 Defensivo, va, adjetiv. *escudagaia*, *gordozcaya*.
 Defensor, *escudataria*, *escudatzallea*, *gordoztaria*, *gordoztallea*.
 Definitivo, va, *arpeztuna*, *erabacduna*.
 Definitivamente, *arpezquiro*, *erabaquiro*.
 {Degenerar, *etautsi*, *asturritu*, *asturrundu*}.
 Degeneración, *etaustea*, *asturrundea*, *asturritzea*}.
 Degolladero, parte de el cuello, *eztarrondo*, *samondo*.
 Deidad, *Jaincodea*, *Jaincotasuna*, *Jencodea*, *Jencotasuna*.
 {Embarcar, *embarcatu*, *itsasgoitu*, *onciratu*}.
 Embarcación, acto de embarcarse, *embarcatzea*, *itsasgoitea*, *onciratzea*.
 Estupendo, *arrigarria*, *miragarria*.
 Evacuar, *ustu*, *utsitu*.
 Evacuación, *ustutzea*, *utsitutzea*.
 Evaporar, *celaustu*, *quemearitu*.
 Evaporación, *celaustea*, *quemearitzea*.
 Interposición, *parartea*, *ibinartea*.
 Interponer, *parartetu*, *ibinartetu*.
 Interpresa, *arrapartea*, *atzitartea*.
 Interpretar, *arrapartetu*, *atzitartetu*.
 Interpretar, *azaldu*, *arpeztu*.
 Interpretativo, *azaldagarria*, *arpeztagarria*.
 Intérprete, *azaldaria*, *arpeztaria*.
 Interrogatorio, subst. *galdetaldia*, *itanaldia*.
 Interrogatorio, adjet. *galdetaldicoa*, *itanaldicoa*.
 Intervalo, *utsartea*, *erartea*.
 Intimar, *besartu*, *sarpetu*.
 Intimación, *besartea*, *sarpetea*.
 Intolerable, *eramezgarria*, *eramezquizuna*, *erampezgarria*, *erampezquizuna*.
 Intonso, *motzeza*, *moztueza*.
 Intratable, *uquitezgarria*, *escutezgarria*.
 (De) mar a mar, *oparo*, *naroro*.
 {Maravillarse, *miretsi*, *marabillatu*, *mirabillatu*}.
 Maravillosamente, *miresquiro*, *marabillasquiro*, *mirabillasquiro*.
 Maravilloso, *miragarria*, *miresgarria*, *marabillagarria*.
 Observatorio, *oartegua*, *celatategua*.
 {Obstinación, *setá*, *burcoidea*, *hisia*}.

Obstinadamente, *setaquiuro, burcoiro, hisitiro*.
 Obstinar, *setartu, burcoitu, hisitu*.
 Obstinado, *setartua, burcoya, burcoitua, hisitia, hisitua*.
 [Pico de ave, *mocoo, aotzia*].
 Picudo, *mocoduna, aotziduna, mocotia, aotzitia*.
 [Rarefacerse, *arrotu, üanditu*].
 Rarefacción, *arrotzea, üanditza*.
 Raridad, *rareza, arrogoa, üandigoa*.
 [Sanar, *sendatu, osatu, gueritu, erutsitu*].
 Sanable, *sendagarria, osagarria, guerigarria, eruscarria*.
 [Sanear, *sendaraci, caltaguetu*].
 Saneamiento, *sendarazta, caltagueta*.
 [Temblor, *lardazquia, icara*].
 Temblar, *lardazquitu, icaratu*.
 Temblón, *icaratia, bildurtia*.
 Temeroso, que causa miedo, *bildurgarria, icaragarria*.
 Templadura, *gogurritzea, goguirotzea, adintzea, nasarotzea*.
 [Verruga, *carecha, enora*].
 Verrugiento, verrugoso, *careisduna, enorduna*.
 Versátil, *giracorra, aldacorra*.
 Vertibilidad, *aldacoidea, giracoidea*.
 Vertible, *aldacoya, giracoya*.
 Vespertino, *arratsaldeco, arrasteguicoa*.
 [Vexiga, *mascuria, bisiga*].
 Vexigazo, *mascuricada, bisigada*.

Eta, bigarrenik, halaxe deituko diegu oinarri berari balio bereko edo beretsuko atzizkiak ezarriz lortutakoei:

Abordo, *ertzatzea, ertzaera*.
 Assegurador, *segurutzallea, seguruguillea*.
 Cocimiento, *egosgoa, egosaldia*.
 Deformidad, *eracaizdea, eracaiztasuna*.
 Embaramiento, *latuera, latugoa*.
 Estufa, *berocaya, berogueta*.
 Europeo, *Europarra, Europacoo*.
 Guerrero, *guerratia, guerranaya, guerrazalea*.
 Interposita persona, *hitzarteduna, hitzartecoo*.
 Intransitable, *iragoeciña, iragoezgarria*.
 Mañoso, *mañatsua, mañaduna, mañatia*.
 Mañero, el que tiene maña, *mañeru, mañaria*.
 Maraña, abundancia de maleza, *sasitea, sasidia*.
 Vestuario, donde se viste, *janciechea, jancilecua, jazteguia*.

Badirudi lehenengo orrialdeetan atzizkiak automatiko eta sistematikoki ezartzeari garrantzi gehiago eman ziola geroago baino, hizkuntzaren baliabide ezberdinak erabiliz zerrenda benetan luzeak eratuaz:

Abundantemente, *ioriró, ugariró, naroró; ioriqui, ugariqui, naroqui*; Item *iori, ugari, naró*.

Acumular, (...) *pilatzea, pillacatzea, montoitzea, montoicatzea, pillaca, montoi-ca, molsoca biltzea, batzea*.

Administrador, *administratzallea, ecartaria, erabiltaria, ecartzallea, erabiltzallea, beguiralea, beguiratzalea*.

Anticipación, *aurreera, aurreratzea, aitzinera, aitzinatzea, aitzindera, aitzindatzea, aitzindea, lenagoera, lenagotzea*.

Geroago ere antzekoren bat ikusten da, halere:

Revolcarse <Reval->, *irabiatu, pulumpatu, aztarriatu, iñalduritu, ichauscatu, buerdatu*. Item *irabiaca, iñaldurizca, aztarriaca, ichausca, buerdaca, iraulca, igorca egon, ibilli*.

Baina gainerakoetan, ordain posibleak gutxi ez izatera (baina batzuetan baita gutxi direnean ere), usuenik atzizki bakar bat hautatzen du, goian ikusi dugunez, edo atzizkiak eta oinarriak aldizkatzen, ondoko adibideotan bezala:

Alfahar (...), *loyola, buztinola, loiquintegua*.

[Defender, *escudatu, gordoztzi*].

Defensa, *escudagoa, gordozquera*.

[Definir, *arpeztu, arguipetu*].

Definición, *arpetza, arguipetzea*.

Definidor, *arpeztaria, arguipetzallea*.

[Degradar, *elderperatu, oborejautsi, maillezpetu*].

Degradación, *elderperanza, oborejaustea, maillezpea*.

[Embarcar, *embarcatu, itsasgoitu, onciratu*].

Embarcador, *embarcalaria, ontziratzallea, itsasgoitaria*.

Eternidad, *betiraundea, beticoera*.

[Interpretar, *azaldu, arpeztu*].

Interpretación, *azaldea, arpetza, arpetzea*.

[Intrépido, *bildurbaguea, egotzia*].

Intrépidamente, *bildurbaguero, egotziqiro*.

Intrepidez, *bildurbaguea, egotziera*.

[Mañoso, el que tiene maña (...), *trebea, cintzoá*].

Mañosamente, *cintzoró, trebaqiro*.

Moderadamente, *moderaro, moderaqiro, gogurririo*.

[Obstinación, *setá, burcoidea, hisia*].

Obstinadamente, *setaqiro, burcoiro, hisitiro*.

[Sangrar, abrir la vena, *sangratu, zancitu, odola atera*].

Sangrador, *odolzalea, zancitaria, sangratzallea*.

Edota, bestela, oinarri guztietatik batzuk bakarrik hautatzen:

[Abominable (...), *nagatsa, nabatsa, nazcagarria, nagagarria*].

Abominablemente, *nazcagarriri, nagagarriri, nagatsuró*.

[Aborrecer, *gorrotatu, gaitzetsi, biguindu, gorrotoa, gaitzerizcoa, gaitziriztea izan, iduqui*].

Aborrecible, *gorrotagarria, gaitzetsigarria*.

[Aleve (...), *aribea, bearia, etoa, etoya*].

(Hazerse) *aleve, aribeatu, bearitu, etoitu*.

Alevosamente, (...) *etoiquiró, beariró*.

Alevosía, *etoerá, beariqueta, aribeaqueta*.

[Cobrar, *cobratu, coberatu, escateratu*].

Cobrador, *cobratzallea, escateratzallea*.

[Defecto, *gabendá, utsaldia, itena, baia, faltá, escasá*].

Defectuoso, *faltiarra, gabentsua, gabenduna, utsalditsua, itentia*.

Defectuosamente, *faltiarquiro, escas, escasqui, gabentsuro, utsaldiri*.

[Degollar, *lepoá, iduná epaqui, ebaqui, quendu, lepobaguetu, idumbagatu*].

Degollación, *lepoepaitza, idunepaitza, ebaitea*.

Degollador, *lepo, idun epaillea, ebaillea*.

[Embarazo (...). *Arazoa, eragozqueta, echiqidura, catibuera, debecandea, debecua, ecaira, ecaya, empachua, fachelua*].

Embarazosamente, (...) *eragozquiro, arazoro, catiburo, trabaquiro*.

Embarazoso, *arazogarria, catibugarria, ecaitsua*.

[Embarcar, *embarcatu, itsasgoitu, onciratu*].

Embarcadero, *embarcateguia, itsasgoiteguia*.

Embarco, *itsasgoitea, onciratzea*.

[Guia[r], *guidatu, quidatu, irioitu*].

Guiador, *guidatzallea, quidatzallea, quidaria*.

[Guijarro (...), *arri leuna, arri boilla*].

Guijarreño, *guijeño, arri leunezcoa*.

[Intrincar, *naspildu, catrambildu, catrambillatu*].

Intrincable, *naspilgarria, catrambillagarria*.

Intrincadamente, *naspilduro, catrambilquiro*.

[Maquila (...). *Lacá, moturca, mendea*].

Maquilandero, *laconcia*.

Maquilar, *lcatu, laca artu*.

Maquilero, *maquilón, lacazaya*.

[Ocasión, *mugua, derechea, parada, mugaldia, goaitaldia*].

Ocasional, *mugaldicoa, goaitaldicoa*.

Ocasionalmente, *mugaldiri, goaitaldiri*.

[Rasar las medidas, (...) *arrasatu, arrasquindu, mucuroztatu*].

Rasadura de medidas, *arrasquindea, mucurozta*.

Rasero, palo rollizo para igualar las medidas, *arrasquiña, mucurozquiña*.

[Templar apetitos, &c. *gogurritu, goguirotu, templatu*].
 Templador de afectos, apetito, &c. *gogurritzallea, goguirotzallea*.
 [Vexiga, (...) *masculloa* <-uolloa>, *ugulloa*. (...). Item *bisiga* <-ija>].
 Vexigatorio <Vexij->, *bisigaguillea, masculloguillea*.

Inoiz, litezkeen ordainen laburketaz batera berriren bat ager daiteke, automatismoak beti jokatu ez duela erakutsiaz:

[Verso, *biursa, lototsa, versoa*].
 Versista, *biursaguillea, coplaguillea*.

3.3. Ordain errekurtsibo laburtuak

Egitan, oso ordain mota garrantzitsua da: Larramendik, euskal morfologiaren zenbait lege buruan izanik, errepikapenak batzuetan alferrikakotzat jotzen ditu, irakurlea legeak bere kabuz ezartzera gonbidatuaz. Gonbidapen hau, “eta abar” adierazten duen *Ec*. markaz egiten du beti. A letraren hasieran —beti berezi— ausartago ageri da hiztegi gilea alde honetatik, marka eratorpenean erabiliz, eta lot bitez hemengo adibideak gorago aipatu ditudan azkeneraino eramandako eratorpeneko adibideekin:

Abatido, *azpiratua, lurreratua, beeratua*. (...) Demasiadamente, *azpiratueguia, Ec*.
 Abaxar, *beeratu, beetitu, jachi, erachi*. (...) Item *erautsi, jachierazo, Ec*.
 Abollador, *abollatzallea, zacontzallea, zocontzallea, coscatzallea, maliatzallea*.
 Item *abollaria, zaconaria, Ec*.
 Abonado assí, *cimaurtua, gorozatua, iñaurquindua, basaratua, Ec*.
 Abonador assí, *cimaurlea, cimaurtzallea, Ec*.
 Acaecimiento, *suertaera, guertaera, jasó, jazoera, acertaera; suertapena, guertapena, &c*.
 Aceña, (...) *errota, igara, bolua*.
 Aceñero, *errotaria, errotazaya, Ec*.

Honelakoren bat berriz aurki daiteke corpusetik kanpo:

Purificador, *chautaria, icuztaria, garbitaria, chautzallea, &c*.

Baina ziurrenik ez maiztasun beraz. Gainerakoan, kasu bitan bakarrik kausitzen dugu nolabaiteko maiztasunaz: Lehenik, infinitiboaren ondo-ondoan doazen partizipioen itzulpenetan;³² corpusean honelako 14 sarrera ditugu;³³ adib.:

Assessar, *senondú, zurtu, zurburtu, zentzatu, zoritu*.
 Assesado, *senondua, zurtua, Ec*.
 Degollar, *lepoá, iduná epaqui, ebaqui, quendu, lepobaguetu, idumbagatu*.

³² Gogoratu partizipioak, *DAut*-en eraginez, eskuarki infinitiboaren azpian agertzen direla (Urgell 1998a: §§ 5.1.1 eta 5.4.7.2).

³³ Ik. *abonado, embarazado, embadurnado, evacuado, guiado, internado, interpuesto, interpretado, intimado eta maravillado* ere.

Degollado, *lepobaguetua*, *lepo*, *idun epaquia*, &c.³⁴

Rarefaceise, *arroitu*, *uanditu*.

Rarefacto, *arrotua*, &c.

Templar apetitos, &c. *gogurritu*, *goguirotu*, *templatu*.

Templado assí, *gogurritua*, &c.

Bigarrenik, aditz jokoak beste aldaketarik ez duten *-se* aditzetan edo haien balioki-deetan; honelako bi sarrera daude:

Embarcar, *embarcatu*, *itsasgoitu*, *onciratu*.

Embarcarse, *embarcatu*, *itsasgoitu*, &c. con las terminaciones de el neutro.

Sanar, *sendatu*, *osatu*, *gueritu*, *erutsitu*.

Sanar, cobrar la salud, *sendatu*, &c. con las terminaciones de el neutro.

Salbuespen bakarra bidalketa dei baten orde zagoela dirudi, hots, lekuri natu-ralena ez denez gero, Larramendik ordain bakar bat ezarri duela gidari gisa:

Piedra, granizo, *chingorra*, &c.

Rotara, beraz, honela laburtutako 17 (%2,3) sarrera ditugu. Corpusean azaldu ez zaigun beste mota bat, ezaguna den morfologi sorta oso baten (gutziz izenordainen) eman beharra saihestu nahi duena da:

Adherido a él, a mí, a tí, &c. *arganatua*, *niganatua*, *zuanatua*, &c.

(De proprio) puño, *bere escuz*, *nere escuz*, &c.

3.4. Partizipio bakanduak

Dena dela, batzuetan infinitibopean eman aukerak bakandu egiten ditu partizipioan, besterik gabe; ohartu ordain perifrastikoak egotekotan, berak izan ohi direla kanpo geratuak:

Aborrecer, *gorrotatu*, *gaitzetsi*, *higuindu*, *gorrotoa*, *gaitzerizcoa*, *gaitziriztea izan*, *iduqui*.

Aborrecido, *gorrotatua*, *gaitzesia*, *gaitzesitua*.

Assenderear, *bidescatu*, *bidesquetatic ibillaraci*.

Assendereado, *bidescatua*.

Rasar las medidas, (...) *arrasatu*, *arrasquindu*, *mucuroztatu*.

Rasado, *arrasatua*, *mucuroztatua*.

Sangrar, abrir la vena, *sangratu*, *zancitu*, *odola atera*.

Sangrado assí, *sangratua*, *zancitua*.

³⁴ Adibide hau oso berezia da: gainerakoetan, infinitiboan eman lehen ordainaz, eta hartaz bakarrik (edo gehienera jota lehen biaz: cf. *assessado*), baliatzen da sarrera laburtua osatzeko: ohartu, dena dela, partizipioan ordain perifrastikoak ere eman nahi izan dituela, bestetan ez bezala. Bigarren adibide berezi bat dugu: *abonado* (gorago aipatua), aditzean eman baino oraindik ordain gehiago eskaintzen baitu. A letraren hasierakoa izaki, ordea, honek ez gaitu harritu behar.

3.5. Ordain laburtuak

Informazioa errepikatu behar litzatekeenean, Larramendik badaki beharrezkoa baino ez ematen:

Assegurar (...), *segurutu, sendotu, seguru, sendo ifiñi*.
 Degollador, *lepo, idun epaillea, ebaillea*.
 Evadir, evadirse, *iesi, iguesi joan, eguin, itzuri*.
 (Dar o tomar) ocasión para algo, *bide eman edo artu*.
 (Tienes gana de) rasco, *jostallua, jardunaya zaude*.
 (Ponerse en) salvo, *izuquean, seguruan jarri, ifiñi*.
 (A su) salvo, *bere erara, izuquera*.

Dakusgunez, esapideetan batez ere ditugu adibideak; alabaina, ordain perifrastikoen artean ere oso maiz gertatzen da; ekar ditzadan adibide zenbait:

Abonanzar el tiempo, *eguraldia ondu, ondotu, ongitu, malsotu*.
 Alfaqueque, redemptor de cautivos, *catibu diranen eroslea, ateratzallea*.
 Assentar, presuponer, *aurrena, lenena ezarri, ifiñi*.
 Embalar, hazer fardos, *lopillatu, bilgotu, lopillac, loturac, bilgoac eguin*.

Honelakoen aldamenean, badira corpusean azaldu ez zaigun beste mota bateko laburpenak: oinarriak aldaera direnean, atzizkia bigarrenari bakarrik ezarriaz eginda-koak, alegia:

Acrecentar más, *andi, aundiagotu, gueiagotu*; demasiado, *andi, aundieguitu, gueieguitu* [+ *andiagotu, andieguitu, beraz*].
 Acriminator, *oben, hogueundatzalea, gaizquitzallea, deungarotzallea* [+ *obendatzalea*].
 Adquisición, *ira, erabazte...* [+ *irabazte*].

Inoiz edo behin alderantzizkoa ere dakusgu, hots, oinarri berari atzizki forma ezberdinak ezartzea:

Pillage, *pilla, pillaera, lapurreta, lapurreria, queria...* [+ *lapurqueria*].

3.6. Item-ak

Tartean behin, sarreran *item* agertzen da, balio ezberdinekin. Hauxe da erabilera arrunta:

Acombadura, *zacóná, zoconá, macurrá*; item *zacónera, zocónera, macúrrera*.

Adibide gehiago aipatu ditut goian: *abundantemente, revolcarse* (§ 3.2) eta *abaxar, abollador* (§ 3.3). *Item* hauen zeregina, nabari denez, bi eratako ordainak bereiztea da. Adibiderik landuena honako hau da:

Acidia, vicio capital, pereza en el bien espiritual, *naguitasuna, alpertasuna, naguiqueria, alperqueria*. Item *naguia, alperra, alferra*, que son también sustantivos. Item mejor *ajolacabea, arduracabea, ajolacabetasuna, arduracabetasuna*; y lo mismo es *ajolabaguea, ardurabaguea animari dagozcan gauzetan*.

Antzeko betebeharra dute adibide sail ezberdinak bereizten dituzten *item*-ek:

Abominación, *nazca, naga*. Lat. abominatio (...). Es una grande abominación, *nazca aundi bat da, naga andi bat da* <dat>. Item *nazca aundi batecoa da, naga aundi batecoa da*.

Aborrecer (...). Me aborreces, te aborrezco, *gorrotatzen nazu, gorrotatzen zaitut; gaitzesten nazu, gaitzesten zaitut*. Item *górrotoa, gaitzerizcoa, gaitziriztea didazu, gorrotoa, gaitzerizcoa, gaitziriztea dizut*.

Bestetan, gramatikazko hitzen ordain ezberdinak bereizteko erabili dira:

Al cabo, al cabo de, lo mismo que después de, *buruan, ondoan*, pospuesto al genitivo precedente: al cabo de dos días, *egun biren buruan*. Item *ezquero*, con nominativo precedente: *egun bi ezquero*. Lat. Post.

Alabaina, beste *item* batzuen xedea, kokapenak eta edukiak erakusten diguten bezala, sarrera osatu ondoko eranskinei bide ematea da:

Pié, tronco u árbol, *zutondoa, zucoitza*. Lat. Truncus, arbor. Item *ondoa*, pospuesto al nombre de el árbol, como *sagarrondoa*.

Piedra pómez (...), *arrocarria*. Lat. Pumex, cis. Item *arbela*.

Vexiga, (...) *masculloa, ugulloa*. Lat. Vesicula. Item *bisiga*.

Honelakoak, inoiz, are bidalketa deiaren ostean ere ager daitezke; corpusetik kanpoko adibide hau dugu:

Puntas, encaxes, véase. Item *citarizca*.

Iturriei buruz gehixeago jakiteko bide bat izan baliteke ere, oraingoz ez dago zehazterik eransketok noiz egin ziren, nahiz agian argialetxean baino, eskuizkribuan bertan eginak izatea egiantzekoagoa izan. Atzen adibidekoa, esate baterako, ez bide da —dirudien bezala— azken orduan ezagutu eta nolana ere erantsitakoa: cf. “Encaxe, encaxes, puntas de randas, *citarizcá, saramea, encaxea, dantelá*”. Bestalde, adibide guztiak 2. liburukikoak izatea kasualitate hutsa da; cf., adib.:

Embozarse, *igoza estali*. Lat. Faciem usque ad oculos tegere. Item *bicerna estali*.

Gallear, querer sobresalir, viene de el Bascuence *gallen, gallendu*, vencer, sobresalir, sobrepujar. Lat. Se efferre. Item *ollartu*.

3.7. Aldaerak

Larramendiren asmoa zein-nahi euskalkitako hitzak batzea izaki, euskaldunek zeinek berea edota —behar edo nahi izatekotan— auzokoarena erabil zezaaten,³⁵ sarrera beraren azpian aldaerak bat egitea espero izatekoa zen. Hitz beraren aldaera fonetikoak (inoiz grafikoak huts-hutsean) batzen dituzten sarrerak 36 dira gure corpusean; ikus dituzgun adibide batzuk:³⁶

³⁵ Hitzei dialekto marka ez ezartzeko zituen zioez mintzatzerakoan (Urgell 1998b: § 4.3) aipatu ditut xehetasunik jakingarrienak.

³⁶ Ik. *assentaderas, cabo de vela, cobranza, degollar, degollación, guía, ras, tempestuoso* eta *vestido* ere.

Aleve, (...) *aribea, bearia, etoa, etoya*.
 Assesar, *senondú, zurtu, zuhurtu, zentzatu, zoritu*.
 Asseverar, *osoró esan, erran*.
 Cobrar, *cobratu, coberatu, escateratu*.
 Cochino, cerdo, *cherria, cerra, urdea, charria*.
 Deidad, *Jaincodea, Jaincotasuna, Jencodea, Jencotasuna*.
 Esturar, *quiscaldu, chiscaldu*.
 Guia[r], *guidatu, quidatu, irioitu*.
 Internodio, *corapillartea, orapillartea*.
 Intestino, tripas, *morá, esteá, ertzea*.
 Mañana, el día siguiente, *biar, bigar*.
 Mar, *itsasoa, ichasoa*.
 Maravedí, *citá, cipá, marai, marabedia*.
 Pié, *oña, oiña*.
 (En) pié, de piés, *zutic, zutinic, chutic, chut, zut*.
 Piel, *larrua, narrua*.
 Temer, *bildur, beldur naiz, cera, da*.
 Tempestad, tormenta, *ecaitza, ecacha*.
 Vestir, *janci, jaunci, beztitu*.

Haien artean aldaera fonetiko baino gehiexego diren batzuk ere baditugu:³⁷

(No) obstante, (...) *ala ere, alambere*.
 Assí, *alá, alán, alatán*.
 Assí, de esta suerte, *alá, onelá, alan, onlá, onlatan*.

Eta bai erator oinarri ezberdinez eratutakoak ere:

Evacuar, *ustu, utsitu*.
 Intrincar, *naspildu, catrambildu, catrambillatu*.
 Guerrear, *guerratu, guerreatu*.

Sarrera batzuetan oso nabarmena da hiru euskalkietako —gipuzkera, bizkaiera eta lapurterazko— formak eskaini nahi izan zituela, baita hurrenkera horrextan eskaini ere:^{37bis}

Clavo, *iltzea, ultzea, itzea*.
 (En ningún) lugar, *iñon ere, iñon bere, nibon ere*.
 (Es a) saber, conviene a saber, *esan nai det, gura dot, erran nai du*.

Hitzaurrean aipatu zuen adibidean ere hurrenkera gordetzen da («...en la voz *cansar* [pongo] *cansatu, necatu, aricatu, unatu*, &c. sin decir que *aricatu* se usa en Bizcaya, *unatu* en Labort, *necatu* en Guipuzcoa, *cansatu* en todas partes», 1745: xlvi; ik. Urgell 1998b: § 4.3), bai halaber dagokion sarreran, eta bietan lehen lekua orokortzat jotzen duen formari uzten dio; sarreran, bestalde, hitzaurrean aipatu ez dituen beste bi forma dakartzatza, iturri ezberdin eta berankorragoak direlako susmoa eragiteko moduan:

³⁷ Ik. *assí assí, (aun) assí*, etab. eta (*sin embargo* ere).

^{37 bis} Badirudi sarrera konplexuagoetan ere hurrenkera berari atxiki zitzaioa; cf. Urgell 2002b: 647.

Cansar, *cansatu, necatu, aricatu, unatu, laatu, enoyatu*.

Beste batzuetan, bizkaiera bakarrik dago ordezkatuta gipuzkeraren aldean, eta badirudi euskalki honen xehetasunak ezagutzeko izan bide zuen aukera handiagoarekin lot daitekeela:

Por lo mal que lo hazes, *cerren gaizqui eguiten dezun, cerren deungaró eguiten dozun; eguiten dezun gaizquiagatic, &c.*

Querer, *nai, gura, det, dot, &c.*

Querer, *amar, nai, gura*, con los transitivos *diot, deusats, &c.*

3.8. Maileguak

Euskal ordainen banaketari berari bakarrik begiratuta oso nabarmena da mailegu zaharrak jasotzeaz gainera, mailegatze lana ere badagoela Larramendiren hiztegian. Nabarmenena, 'mailegua + euskal hitza' (edo alderantziz) bikoteen proportzio handia dugu, nahiz batzuetan mailegua, Larramendiren ustetan, alderantzizkoa izan, hots, euskal etimologiaduna (azkenok, izarrak markatu ditut):

*Alfárez (...), *alfereza, bander-eramallea*.

Cobre, *cobrea, urraida*.

Coche, *manurga, cochea*.

Embarcación, navío, *embarcacioa, oncia*.

Embate, de mar, *embatea, bajodea*.

Estudio, *articasdea, estudioa*.

*Guaya (...), *guaya, negarra*.

Ochava, la octava parte, *zortzigarren partea, ochava*.

*Rascadura, *arrascadura, atzaqueria*.

*Rasgo de letra (...), *arrasgoa, izquirillea*.

*Rasguear, forma: rasgos, *arrasgueatu, izquiailetu*.

Salvarse, al Cielo, *salvatu, gozabetatu*.

Sandalia, calzado, *batzola, sandalia*.

Sangría, incisión en la vena, *sangria, zancia*.

Templar instrumentos, *adindu, templatatu*.

Templo, *Temploa, Eleizá*.

Hiru ordaindunetan ere inoiz antzerako adibideak aurkitzen dira, eta mailegua beti lehena edo azkena dugu:

*Cabida (...), *sárrera, adisquiura, cabida*.

Cobrar, *cobratu, coberatu, escateratu*.

Embarcar, *embarcatu, itsasgoitu, onciratu*.

Guayar, llorar (...), *guayatu, guay eguin, negar eguin*.

*Rasgón, *arrasgoya, etendura, urratura*.

Sangrar, abrir la vena, *sangratu, zancitu, odola atera*.

Templanza (...), *gogurria, goguiroa, templanzá*.

Templar apetitos, &c. *gogurritu, goguirotu, templatatu*.

Verso, *biursa, lototsa, versoa*.

3.9. Etimologietako ordainak

Etimologia azaltzen duten sarrerak oso bereziak dira eta, honegatik baino ez balitz, ataltxo bat merezi dute *HH*-aren antolakuntzari buruzko saio honetan; alabaina, bada arrazoi sendoagorik: beren interpretazioak sortzen dituen arazoak aipatu behar ditut, etimologia batzuen ondorenak zein diren ulertzeko ezinbestekoak dira eta. Lehenik eta behin, komeni da jakitea gaingiroki hiru erako etimologiadun sarre-
rak daudela Larramendiren hiztegian:

1) Etimologiadun hutsa: hitzaren etimologia bakarrik eskaintzen du, agirian euskal ordainik eman gabe, baita batzuetan latinezkorik ere gabe:

Gura, voz de la Germanía, Justicia, *gurapas*, galeras. Gura es voz Bascongada, y significa el querer, la voluntad. *Gurapea*, baxo de el querer, de la voluntad.

Pulla, viene de el Bascuence *pulla*, que significa coz de borrico y otras bestias, y de aquí, por lo que se ofenden, se tomó la analogía a los dichos. L[at]. Convitium obscaenum.³⁸

2) Etimologiadun-ordainduna: etimologiarekin batera euskal ordainak ematen ditu edo, bestela esanda, etimologi azalpena sarrera arruntean barneratuta ageri da, eskuarki sarrera-buruaren ondoren, oro har azalpenak txertatu ohi diren lekuan eta euskarazko eta latinezko ordainak baino lehenago:

Guacharo, el enfermizo, viene de el Bascuence *gacharó*, adverbio que significa enfermamente (y passe este adverbio), de *gacha*, que en otro dialecto es *gaitza*. *Erbala*, *gaisoa*, *eria*. Lat...

Guardia, el cuerpo de Soldados, es voz Bascongada, síncope de *guarda dia*, multitud de los que guardan, *goardia*, *zaidia*, *zaindia*. Lat...

Quedar, viene de el Bascuence *gueratu*, que significa lo mismo, de *gue*, *que*, posposición negativa, y *era*, modo, acción; *gueratu*, *guelditu*, *baratu*. Lat...

3) Etimologiadun osagarria: aurrean edo sarrienik atzean beste lerrokada bat dago, eta bigarren honetan agertzen dira euskal ordainak, hots, sarrera arrunta eta etimologia lerrokada ezberdinetan banatu dira:

Alegrar, viene del Bascuence *alegueratu*, que significa lo mismo; y éste vino de *alaiguera*, estamos u somos alentados o despejados; y es lo que causa alegría.

Alegrar, *alegueratu*, *poztú*, *boztú*, *bozcarriotú*, *atseguñ eman*, *atseguñez*, *pozéz beté*. Lat...

Almendra, es Bascuence, *almendra*, *almendrea*. Lat...

Almendra se dixo de *alic mendrea*, lo más delicado, y tiene mucho de esto el almendro.

Héroe, hombre famoso, de immortal fama, *humanta*. Lat...

Esta voz, que la usan Griegos y Latinos, viene de el Bascuence *eroa*, loco de atrevido, y en las hazañas de los héroes hubo mucho de esso.

³⁸ Jat. *obscaentum*, egileak zuzendua.

Etimoa eta ordainak ongi bereizita daude 3. tankerako etimologietan, baina beste bietan irakurlearengan zalantza sor daiteke, irakurle gisa nire lekukotasunak balio baldin badu, etimoa ere ordaintzat hartu behar denentz. Dena dela, hainbat sarreratan ez legoke arazorik zertan izan; halaxe gertatzen da sarreraren ohiko ordena errespetatu eta etimoa berariaz ordainen artean errepikatuta agertzen denean:

Aderezar, viene del Bascuence *adreztu*, que significa lo mismo: véase *aderezo*. *Adreztú, zucendú, onguítú, compondú, prestatú, maneatú*. Lat...

Alzar, viene de el Bascuence *altza, alchatu*, levantar, *altzatú, alchatú*. Lat...

Honelako berrespenik ez dagoenean, ezezkotzat hartzeko tendaldia izan dezakegu; baina ez da beti hala, egiatan. Aitzitik, badirudi etimoa oro har ordain argitzat har daitekeela —gainerako ordainen artean berragertu zein ez— berari buruz «que significa lo mismo» iruzkina egiten duenean, *DAut*-ek latinarekin egiten zuen modu berberean:³⁹

Alholba, (...) puede venir del Bascuence *allorbea*, que significa lo mismo. Lat...

Ancora, pudo tomarse de el Bascuence *aingura, angura*, que significa lo mismo. Lat...

Andamio, viene de el Bascuence *aldamioa*, que significa lo mismo, y *aldamioa* en un dialecto significa también añadidura, y el andamio es el que se pone para ir añadiendo y aumentando la obra. Lat...

Arroz, viene de el Bascuence *arroza*, que significa lo mismo, y se compone [de] *arro otza*, hinchado y frío, y el arroz hincha, y por frío se digiere difícilmente. Lat...

Axedrea, yerba, viene de el Bascuence *acitraya*, que significa lo mismo. Lat...

Azaya, (...) es voz Bascongada, *azaya*, con la misma significación, y viene de *atza*, dedo, y *gaya*, oportuno; y la azaya sule oportunamente el trabajo que avían de tener los dedos en el devanar. Lat...

eta beste horrenbeste esango nuke «es voz bascongada» edo «viene del bascuence» esateaz gainera, euskal hitz delako hori ematen duenean:

Adala, en el navío, por donde sale el agua, que saca la bomba. Es voz Bascongada *adalá*, y se dixo de *adiala, andidiala*, que salga o sale por allí; o de *odiola, odiala*, que significa lo mismo, y quiere dezir conducto, canal de madera, qual es la adala. Lat...

Aribar, aspar la lana en el aribo, viene de el Bascuence *aribatu, ari*, hilo, *batu*, recoger. Lat...

Arrecife, calzada empedrada, viene de el Bascuence *arriphea*, suelo de piedras, como lo es la calzada. Lat...

Arrope, es voz de el Bascuence, *arropea*, y viene de *ardoepa, ardope*, que significa cimient o fundamento de el vino. Lat...

³⁹ *DAut*-ek ere era ezberdinetara antolatzen du informazio etimologikoa; cf., adibidez, «OBSERVAR. (...) Viene del Latino *Observare*, que significa esto mismo» eta ik. Urgell 2000: I, § 7.1.1.

Baita, azkenik, halaxe dela dakigunean:

Arienzo, carnero pequeño, viene de el Bascuence *aricho*. Lat...

Haba, viene de el Bascuence *babá*. Lat...

Uste hauek egiaztatzeko, batzuetan familiako hitzen laguntza dugu:

Ancorage, *aingura saria*.

Ancorar, *ainguratu, anguratu, aingurac bota, egotzi*.

Aribo, tornillo para hazer madexas, *aribatlea*.

Arrecife, suelo peñososo de la costa de mar, *ondarrizpea...*

Alderantziz, badirudi ordaingabeko sarreratzat har daitezkeela etimoak edozein aldetatik begiratuta esanahi ezberdina duenean (cf. halaber *gura* gorago):

Ajolio, voz usada en Aragón, viene de el Bascuence *azolío*, que significa las verzas cocidas con azeite.⁴⁰

Zalantzakoak dirudite, berriz, etimoaren esanahia aldez bakarrik ezberdina (adibidez, zehatzagoa) denean:

Alboroque, dádiva, agasajo u regalo por modo de gratitud, puede venir de el Bascuence *alboraquia*, el agasajo que se da a los que dan la *alborada*. Lat...

nahiz inoiz familiak zalantza erabat uxatzen duen:

Arrasar, viene de el Bascuence *arrasá, arrasatu*, que significa destruir. Lat...
Arrasado, *arrasatua*.

Zalantzazkoenak, inondik ere, etimoa huts-hutsean agertzen dutenak dira, zeren eta irakurlea, nik uste, maileguaren eta etimoaren artean zein hartu beharko lukeen jakin gabeen uzten baitute:

Alicates, viene del Bascuence *aricatea*, que significa cadena de hilo, de *aria*, hilo y *catea*, cadena; y comúnmente sirven los alicates para encadenar alambre, y otras cosas delgadas. Lat...

Aresta, una tercera suerte que se saca de el lino después de la estopa, viene de el Bascuence, como si dixéramos *ariesta*, de *arí ezta*, no para hilo ni para hilado. Lat...

Armiño, puede venir de el Bascuence *armiña, armiñoa*, de *ar, artu*, tomar, coger, y *miñá*, amargo; y aunque le es amargo, se dexa coger aquel animalito, por no ensuciarse. Lat...

Ataurique, voz antiquada, adorno de albañilería que se usaba por la parte exterior de las puertas. Es palabra Bascongada, como si dixera *ataurrequia*, de *aurrequia*, lo que está delante, y *ata, atea*, puerta. Lat...

Hala eta guztiz ere, bestelako gertakari zenbaitek erakusten digute Larramendiren jokabidea zein izango zen jakitea oso zaila dela; adibidez, *almario*-ren etimologia

⁴⁰ Cf. *DAur*: «Salsa compuesta de ajos y azeite...».

irakurrita, balirudike etimoa (*ormarioa*) eta ordaina (*armarioa*) aski ongi bereizita agertzen direla, eta *guilla*-rean *uztailla* etimotzat bakarrik eskaintzen dela:

Almario, armario, viene de el Bascuence *armarioa*, y se dixo de *ormarioa*, porque este modo de alhacenas se hacía en la pared, y dezimos *ormá* a la pared. Lat...

Guilla, cosecha abundante, es contracción de el Bascuence *uztailla*, que llamamos a Julio, y quiere dezir Mes de cosecha, de *uzta*, cosecha, y de *illa*, *ila*, mes. Lat...

Haatik, *HH*-ak berak gezurtatzen du, etimoak ere ordaingai direla argi eta garbi erakutsiaz:

Alacena, *ormarioa*, *armarioa*.

Guillote, cosechero, *uztaillaria*.

Halaber, *hacienda*-ren etimologia eusk. *azienda* zuritzeko egina dela, eta gainerakoak bitarteko urratsak baino ez direla pentsa genezakeen arren, gero *hacendar*-en *aciendoa* etimoarekin lotuta dagoen ordaina ere ematen du:

Hacendar, viene de el Bascuence, *acendatu*, *acenduat*. Lat...

Hacienda, es de el Bascuence *acienda*, *aciendea*, *aciendoa*, y se dixo de *acien* *doa*, *doaya*, dote, prenda, regalo de semillas, y son las que fructificando hazen la hacienda. Lat...

Gure zalantza hauen erantzuna *EGH*-an (Altuna 1967) aurkitzen dela uste badugu, jai dugu, orain artean ezarrita utzi uste ditudan ziurtasunak ere dardarazteko moduko datuak eskaintzen baititu batzuetan; esate baterako, honek badakar *atisbeatu* «atisbar» hitza, *HH*-ko sarrera ustez argiaren arabera ordain ez den arren:

Atisbar, viene de el Bascuence *atisbeatu*, de *beatu*...

Atisbar, *beguietsi*, *celatatu*.

Badirudi, beraz, ordain zer den eta zer ez den erabakitzeke egun izan ditzakegun zalantzak alferrikakoak direla, eta Larramendik etimologian eskaintzen duena, etimoa eta abarrak, dena erabilgarri izan zitekeela. Halaxe ulertu bide zuen Lardizabalek ere, etimoa (*borda-urde*) erabili baitzuen (Urgell 1995: xlvi), Larramendik proposatutako *burdela* maileguaren ordez, adierazgarriago iritziaz nonbait:

Burdel, es voz Bascongada, síncope de *borda urde*, *bordurde*, que significa casa sucia, puerca. *Burdela*. Lat...

4. Grafia

Euskara, Larramendiren aburuz, ortografi arazo berezirik gabeko hizkuntza da: «Escríbese como se habla, y quanto se habla puede escribirse con facilidad» (1728: 88). Lehenengo lanaz geroztik errepikatu zuen ideia hau (cf. 1729: 337) ziurrenik hizkuntzaren perfektotasuna aldeztu behararekin lotuago dago, euskal grafiaren egoeraren azterketa zehatzarekin baino; nolana ere, badirudi gai honi buruz nola-baiteko ardurakabetasunaz mintzo zaigula. Izan ere, praktikan ortografi tradizio

ezberdinak eta, areago, puntuzko zenbait arazotan bateragabetasun nabarmena zegoen, eta bera ere —geroko urteetan euskaraz idatziko zuten hainbat bezalaxe— honetaz jakitun zegoen.⁴¹ Euskara noranahiko bihurtzeko saioaren oinarrietatik bat grafia egokitu eta arautzea izan zitekeen: alde honetatik *DAut*-en eredura joka zezakeen, hiztegian sistema trinko bat proposatu eta erabiliaz. Haatik, Larramendik iragaitzaz baino ez du ortografia aipatu ohi, eta badirudi, beraz, ez ziola akademikoek —eta guk— beste garrantzirik aitortzen, erdal grafian bezalaxe (Urgell 2000: I, § 6.3) euskal grafian ere hein bateko araugabekotasuna —anarkia piska bat ere agian— egoteari ez zeritzala gaizki. «En esto cada Provincia guarde su estilo, como en el tonillo particular de la voz» (Larramendi 1729: 338) esaldiaren garrantzia dagoeneko azpimarratu dut (Urgell 1998b: §§ 4.9 eta 7).

Hiztegiari begiratzen baldin badiogu, bertan agertzen diren grafi sistemak bat baino gehiago direla egiaztatu ahal dezakegu. Aldaerak —batez ere hiztegiaren hasieran, beharbada— elkarrekin agertzen dira ez gutxitan:⁴² *jayera* eta *jaiera* «aficionarse», *ibes* eta *ies* «afufar», *ariña* eta *arina* «ágil», *zainac* eta *zaiñac* «agitides», *or* eta *bor* «ahí», *cilleguitu* eta *cileguitu* «ahorrar», *illarra* eta *ilarra* «alverja», etab. etab., oro har hitzen aldaerekin hartu zuen bidea gogoraziaz (ik. *supra* § 3.7). Aztertu den neurrian, bestalde, Larramendi ez zen bereziki eraberritzailea grafiari dagokionez, eta ez zuen erabateko iraultzarik eragin geroko idazleengan. Hegoaldeko grafi sistema zaharraren barnean kokatu behar dugu, gaztelaniatik mailegatutako ohiturak (zein ere ziren desegokiak) ia-ia akritikoki onartu eta gaztelaniaren sistemak ongi ezin adieraz zitzakeen hots zenbaitetarako behin betiko ordain egokirik aurkitzen saiatu ez zirenen artean (Urgell 1987: 357-359). Bere sistemaren beste ezaugarri nagusi bat, nolabaiteko trinkotasun falta izan liteke: arauetz baino, askotan joerez gehiago mintza daiteke aztertuko ditugun hots askotxoren irudikapenean.

Arduragabetasun hau ez da erabatekoa, ostera. Zenbait gai zalantzazko direla eta, bide egokia (baita besteren usadio zenbait) eztabaidatu egin zuen, eta aipatu tradizio ezberdinez —eta guztiz indartsuena zen idazle lapurtarrenaz— oso iritzi zehatzak zituen, «usan sin necesidad» bezalako epaiak emanek. Lan teorikoaz gainera (ik. 1729: 337-340, 1745: xxvii-xxx eta *Corografía* 296-298), grafi sistema aski bateratu eta neurri batean berritzaile bat garatu zuen, Lakarrak (1985b) erakutsi bezala, bere idatziak inorenetik bereizteko adinakoa. Esan gabe doa, erabilera horrek eragin handia —nahiz oraino xeheki ikertu gabea—⁴³ izan zuela geroko literaturan.

Bistan da sistema horren orain artekoa baino azterketa xeheago baten beharra: Lakarrak, aipatu lanean, XVIII. mende hasierako izenik gabeko idatzi baten egiletasuna frogatzeko modukoak zirenak bakarrik miatu zituen. Badituzke, ordea, bestelako

⁴¹ Hemen esaten denaz gainera, kontuan har bitez Urgell 1998b: §§ 4.9 eta 4.10, grafiaz eta ahoskeraz Larramendik egin zituen adierazpenei buruz, eta Urgell 2000: I, § 6 hiztegioko gaztelaniatzeko grafiari buruz.

⁴² Atal guztian, adibideak agertzen diren sarrera-burua kaxotx artean aipatuko dut, erreferentzia gisa, ez baliokide gisa.

⁴³ Ustekabeak agertzeko moduan dago oraindik: adibidez, duela oso gutxi arte Lardizabalen ezaugarri edo bitxikeriatzat jo izan den *-quin* soziatibo pluralaren idazkera Larramendiri zor diola egiaztatua ahal izan da (Urgell 1995: xlvi).

betebeharrak Larramendiren grafiaren azterketa honek, eta hauetarako badirudi hain nabariak ez diren beste zenbait ezaugarri ere kontuan hartu beharko liratekeela. Hitzak non eta zeren arabera kokatuta dauden jakin eta gero, nondik hartu edo nola eratu diren jakiteko ez eze, hitzak eurak ongi ulertzeko eta interpretazio zalantzak uxatzeko, *HH*-an dauden grafi konbentzioak xeheki eta zehazki menperatzea ezinbesteko urratsa dugu.

Jadanik iradoki dut gertakari batzuk Iparraldeko grafiarekin lotuta egon daitezkeela, edo Larramendirena ez denen batekin behinik behin; beste batzuk gaztelaniazko grafiarekin, eta bestetzuk oraindik hiztegitigileak *buntaz eta bartaz* zituen iritziakin. Alde batetik, beraz, iturri bilaketan oro har grafiak daukan frogagarritasuna eztabaidatzeko aukera eman diezaguke azterketa honek, gordetako grafia «arroztzak» edota gaizki ulertutakoak iturria identifikatzeko baliabiderik ziurrenetakoak baitira, izan ere (cf. Urgell 2003). Bestetik, Larramendik neologismoetan —mailegu zein hitz berrietan— hartu zituen erabaki batzuk ulertzen lagun diezaguke, baita hitz herrikoiak izatera, *HH*-ak zein forma zehatzetan jaso zituen erabakitzen; hots, oro har, hitzak nola irakurri behar diren bederen jakin ahalko dugu, askoren gainean honegatik jausi diren erabateko zalantza zein badaezpadako ezaxola uxatuaz. Nahitaez, beharrezkoa izango dugu *HH*-ko hitz zenbaiten inperpretazio lanean hastea, orain artean ikasitakoa —*DAut*-en azalpenek laguntza eskain dezaketela, adibidez— baliaraziaz.

Orain arteko interpretatzaileen aurka hiru aurreiritzik jokatu dute: *HH*-ko grafi sistema bat bakarra delako ustea, Hegoaldeko euskara —areago gipuzkera— bakarrik islatzen duelakoa eta, are ezinbarkatuzkoagoa, letrek egun eta orduan balio berbera dutelakoa. Jadanik aipatu ditut <ch>k *OEH* zein *EH*-an sortu dituen iratxoetatik batzuk (Urgell 1998b: § 4.10), eta berehala ikusiko dugu grafema hau ez dela halako eragin txarra izan duen bakarra.

Hauen guztiengatik, badirudi bere adierazpenen eta euskal idatzien bitartez Larramendiren ohiko sistema mugatu beharko genukeela lehenik, eta gero sistema horren barruan ez dauden gertakariak bakartu eta azaldu. Asmo honekin, ezer baino lehenago Larramendiren idazlanak aztertu ditut, berriki argitaratutako bilduma (Altuna & Lakarra 1990) baliatuaz,⁴⁴ Lakarrak (1985b) dagoeneko miatutako alderdiak bermatu eta osatzeko; eta, bigarren, *HH*-ko gertakariekin erkatu ditut idatzien azterketan erdietsitako ondorioak. Ez bedi azterketa bukatutzat eman; gure zereginerako aski izan daitekeen arren, testuak ez daude beti era fidagarrian argitaratuak⁴⁵ eta, beraz, noizbait norbaitek argitalpen fidagarri bat, berriro jatorrizko testuetara joaz, egin dezanean, xehekiago ikertu ahalko da alderdi hau. Nago, ordea, erdietsi datuak oro har fidagarriak direla, *HH*-ko datuekin erkatuaz ikusiko dugun bezala.

⁴⁴ Adibide guztiak *LET* laburdura eta bertako orrialde zenbakiaz lagunduta azalduko dira.

⁴⁵ «San Agustinen Doanditza»-k J.I. Arana lehenengo argitaratzailearen esku luzea pairatu du (Altuna & Lakarra 1990: 58); jakina, azterketa honetatik kanpo utzi dut. Erabiltzen ari naizen argitalpenean ere, ez dira falta —bildumaren asmoari begira txikikeriak izan arren— ikertzailearentzat estropozu diren oharkabeko aldaketak, zorionez gaurkotzeak (han-hemen <k>ren bat, <ge, gi> <gue, gui>ren ordez, etab.) gehien bat.

4.1. Bokal bikoitzak

Ezaguna denez, dela morfemen baregiteaz, dela tarteko kontsonante baten galez, dela ondo ezagutzen ez diren bestelako arrazoiez elkarrekin agertzen diren tinbre bereko bokalek bilakaera ezberdina izan dute hizkeren arabera (Mitxelena 1977a: 109-115). Larramendiren sisteman, nahiz batzuetan bilakaera ezberdin horien islapenak agertu, bokal bikoitzak oso usu agertzen dira:

1) Deklinabidean, *-e-z* hasten diren atzizkietan (leku kasuen eta genitiboaren pluralak), hala nola pareka daitezkeenetan (superlatiboa eta *-egi* atzizkia):

LET: *hizcundeen* (22), *hitzcundeetatic* (36), *echeetan* (37), *urteetan* (39), *atseca-beetan* (41), *doloreen* (47), *orreec* (47, 50), *nobleena* (36), *gaitzbagueena* (48), *tristeena* (52).

HH: *ateetan* «a», *luceegui* «agigantado», *aldeetaco* «aladares», *euleen* «alcalde alamin», *erregueena* «alcázar», *aldeetan* «alderredor», *deungueena* «(el mejor o peor que sea) possible», *maiteena* «telesgeto».

2) Kontsonante galeraren ondorioz:

LET: *beeratuco* (22), *aalic* (31), *mee* (34), *naasi* (35), *naasiaz* (37), *beeregui* (41), *miia* (48).

HH: *beeragoacquin* «adozenarse», *beeratzea* «abatir». *meea* «agudo», *meedunac* «albillas», *meetu* «adelgazar», *meecho* «agnus». *naasi* «añascar» (baina *nastu*), *naasiro* «alborotadamente».

3) Hitz barruko bokal bikoitzak:⁴⁶

LET: *beraatia* (42), *beraa* (43, 50), *minberaatu* (52).

HH: *agaaca* «a», *agaaria* «apaleador». *beraa* «abalado», *beraatu* «ablandar», *aoberaatia* «blando de boca». *egaa* «abutarda», *egaada* «alazo», *egaatu* «alear», *egaaldatu* «alear», *egaatsua* «aluda». *queetea* «ahumada», *queez betea* «ahumado» (baina *quea* «humo»).

4) Elkarbide eta eratorbidean, berriz ere *-e-z* hasten diren osagaiekin; *HH*-an bakarrik lekukotu ahal izan dut:

artzeera «acogida», *adisquideera* «amistad», *aseezgarriro* «insaciablemente».

4.2. , <v>, <u>, <ü>

Larramendik gaztelaniaz indartzen zuela, eta euskaraz <v>rik ez zegoela uste zuela jakinik (Urgell 1998b: § 4.9 eta 2000: I, § 6.1.1), pentsatzekoa da euskal hitzetan ez eze, euskal etimologiadun hitzetan eta are maileguetan oro har nahiago zukeela. Idatzien arabera, ostera, maileguetan <v> gorde ohi du, baita tradizionalki mailegutzat hartu izan den *bizi*-ren familian ere, azken honetan aren aldeko joera txiki bat badu ere:

⁴⁶ Ez dago argi fonologikoki bokal luze ala bokal bikoitzat hartu behar diren (Mitxelena 1977a: 111): beraz, «bokal bikoitzak» izena zentzurik grafikoenean erabiltzen dut, auzia erabakitzeke inolako asmorik gabe.

LET: *vici* (14), *lendavicicoa* (17), *biciro*, *polvorac*, *viztu*, *valentiari* (18), *vizcorra* (22), *vici* (29), *devocioari* (33), *vicia*, *devocio*, *devocioaren* (34), *provechuric* (35), *salvacioari*, *Provincian* (36), *viciagatic*, *servitzaria* (37), *Virgiñari*, *salva*, *vici* (39), *bici* (41), *Virgiñarequico*, *vicioen*, *viciro* (42), *lascivia* (43), *vicitza* (45)...

HH-an ausartago izan zela dirudi, baina ez horregatik aren alde erabat egin:

1) Etimologietan oro har dago; A eta V letretakoak bakarrik kontuan hartuta:

bezatu «abezarse» (DAut *avezar*), *alcarobea* «alcaravea», *aribe* «aleve», *atrabesatu* «atravesar», *atrebitu* «atreverse», *abilanteza* «avilantez», *baoa* «vaho», *baliota* «valioso», *bardasca* «vardasca», *baroquiac* «varones», *beda* «veda», *bega* «vega», *beemencia* «vehemencia», *bella* «vela», *belartea* «velarte», *viloa*, *biloa* «vello», *bellorea*, *billorea* «vellora», *belloria* «velli», *belosquera* «velocidad», *belots* «veloz», *bera* «vera», *bireda* «vereda», *biregueta*, *bidegueta* «vericuetu», *beta* «veta», etab.

Salbuespen gutxi batzuk badira, halaz ere:

averia «avería» (baina cf. «abería»), *provechatu* «aprovechar», *verdacho* «verdacho», *verga* «verga», *vergela* «vergel», *vitoria* «vitoria» (baina etimoa bitorea da).

2) Maileguetan, VA-VE zatia hartuaz, sarri aurkitzen dugu:

bacac «vacas», *bainilla* «vainica, vainilla», *balerosoa* «valeroso», *baliamentua* «valimiento», *baliza* «valiza», *balona* «valona», *bara* «vara de alcalde», *basoa* «vaso», *beleta* «veleta», *beloya* «velón», *bendabala* «vendabal», *bengala* «vengala», *beztitu* «vestir», *bisiga* «vexiga».

Alabaina, <v> z idazten dituen hitz solteak eta are familia osoak ugariago dira:

vanagloria «vanagloria», *vanaglorioso* «vanaglorioso». *vanoqui(ro)* «vanamente», *vanidadea* «vanidad», *vanoa* «vano». *vela* «vela», *velagea* «velage», *velaztatu*, *velairatu* «velejar», *velaria* «velero». *veintiquatro* «veintiquatro». *venda* «venda», *vendatu* «vendar». *venenoa* «veneno», *venenotsua* «venenoso». *venera* «venera», *venerablea* «venerable», *venerablequiro* «venerablemente», *veneracioa* «veneración», *veneratzallea* «venerador», *veneratu* «venerar». *venganza* «venganza». *veniala* «venial», *venialqui(ro)* «venialmente». *ventaja* «ventaja», *ventajosquiro*, *ventajotsuro* «ventajosamente», *ventajotsua* «ventajoso». *ventana* «ventana». *ventosa* «ventosa». *ventutzallea* «vencedor», *ventzutu* «vencer», *ventzugarría* «vencible», *ventzuerá* «vencimiento». *venus* [sic] «Venus». *verbena* «verbena», *Verbo Divinoa* «Verbo Divino», *verdolaga* «verdolaga», *Veronica* «Verónica». *vecindadea* «vecindad», *vecinoa* «vecino».

Dena dela, familiek aren aldeko joeraren erakusgarriren bat izan dezakete:

valentia «valentia», *valientea* «valiente», baina *balenquiro* «valientemente». *velochoa* «velillo», baina *beloa* «velo». *verdarra* «verdál», *verdea* «verde», *verdaisa* «verdegai», *verdeitsasquia* «verdemar»... *verdularia* «verdulera», *verdura* «verdura», baina *choaberdea* «verdecillo».

3) Euskal hitzetan ere familia bat bederen beti <v>z aurkitu dut:⁴⁷

navartu «variar», *navardea*, *navarrera* «variedad de colores», *navarra* «vario».

4) Honezaz gainera, badirudi <u> kontsonantearen arrastoren bat ere badela HH-an (cf. LET 45 *euanjelioac*):

zauartzea «apoltronarse», *zauarra*, *zauartua* «apoltronado», *zauar jarri*, *zauartu* «arrellanarse», baina *zabarra* «espacioso», «lento», «pelmazo», «repantigado», «tardío», *zabartu* «repantigarse».

Honetaz ohartzea garrantzitsua da, zeren eta bokalarteko <u> bokaletik bereizteko batzuetan bakarrik erabiltzen baitu <ü>, eta inoiz edo behin are <v> ere itzuri zaio:⁴⁸

LET: *üanditua* (21), *Gaztelaiien* (35).

HH: *aua* ['ahoa'] «ababar». *aiiena* «aullido», *aiendu* «aullar». *christaua* «christiano», «farfán», «mozárabe», *christaiien* «doctrina christiana». *laiüoinca* «(andar a) gatas», *lauoincoa* «cuadrúpedo», *lavoinduna* «animal cuadrúpedo». *chaiia* «claro», «immaculado», «limpio», *cebaiia*, *chaiieza* «impuro», *chaiiera* «limpia», *chauera*, *chaueta* «mondadura». *üala* «correa». *zamaiia*, *zabaua* «manteles», *zamauiac*, *zauauac* «alemanisco».

Alde honetatik, HH-aren berezitasunetatik bat honelakoetan edozein posiziotan *b*-aren epentesia (inoiz <v>z ordezkaturia) gauzatzeko joera da:

aua «boca». *aubena* «lamentación». *lauba* «llano». *chauba* «casto», «immaculado», «limpio», *chauva* «genuino», *chaubeza* «impuro». *üala*, *uvala* «correa». *zamauba*, *zabauba* «palia».

4.3. <c>, <qu>

<k> zeharo alferrikakotzat jo zuen (Urgell 1998b: § 4.10) eta, hortaz, gaztelaniatzko ohiko banaketari eutsi zion: <ca>, <co>, <cu>, <que>, <qui>. Ez dut salbuespenik aurkitu. Alabaina, gaztelaniatzko grafiari atxikita ere, ez zen arazoetatik zeharo libratu: izan ere, /kw/ adierazteko <qu> idazteko ohitura zeharo sartuta zegoen, eta Akademiak ez zuen 1815 arte <c> agindu halakoetarako (Lapesa 1984: 423). Honetan ere gaztelaniaren erara jokatzen du maileguetan:

quadroa «quadro», *quarangoa* «quarango», *quartilloa* «quartillo», *quarto* «vellón», *quartoya* «quartón», *questorea* «questor», *questura* «questura», *quoquea* «quoque», *veintiquadroa* «veintiquatro».

cuelloa «cuello de eclesiásticos», *cuerta* «cuerta».

⁴⁷ *nava*-ren (eta *Navarra*-ren) etimologiarekiko loturarengatik izan liteke (ik. Urgell 2000: III, § 11).

⁴⁸ Aditzean ere adibideak ugari dira —cf. LET *ceuan* (17), *devana*, *Erzevan* (18), *deuanic*, *deuan* (22), *euen* (27), *nauen* (42), *etzenala* (44)—, baina <ü> sistematikoki ez markatzeagatik, baliteke hau ere idazkera etimologizalea izatea, hots, *deu* > *deuan*, etab.

Osterantzean, <cu> aurkitzen dugu:

cualdia «tiro», *cuia* «calabaza», *cuichoa* «calabacica».

Sistematik kanpo zeharo ditugu ondoko bi hitzok, non <qu>k /k/ adierazten baitu:

quaratsa «amargo», *quarastasuna* «amargor».

Baina, espero genezakeen legetxe, bitxitasuna aise azaltzen da behin iturria ezagutuez gero, kasu honetan ez baitago ezbairik: biak Harrieten hiztegitik hartutako hitzak dira (ik. Lakarra 1991 eta Urgell 2003), grafiak salatzen duen bezala.

4.4. <g>, <gu>, <gü>

Antzeratsu gertatzen zaigu /g/ hotsarekin: HH-ko banaketa <ga>, <go>, <gu>, <gue>, <gui> izaten da, baina arazoak izan zituen /gw/ taldearekin; <güe>, <güi> z islatuta egon daiteke, baina baita <gue>, <gui> z ere:

igüitu «tediar», *igüicarría* «tedioso».

egüena «jueves», *egüerdía* «mediodía», *egüerdialdea* «sud», *ezagüera* «aprehensión», «botánica», «conocimiento», «noticia», «reconocimiento», *ezagüerazo* «noticiar», «notificar».

Aurkitu ditugun adibide hauen azalpena, baliteke etimologiatik etortzea, hots, *egun* eta *ezagun* edo *ezagutu*-rekiko loturatik. Honexegatik, halako azalbiderik gabe beti <gu> daraman ondoko familia, ziurrenik interpretatzen jakin ez zuen —edo interpretatu beharrik sentitu ez zuen— iturri idatziren batetik hartua da:

iguindu «tediar», *iguintza* «tedio», *iguingarria* «tedioso».

4.5. <s>, <ss>

Gaztelaniaz oro har ereduaren banaketa gorde zuen, <ss> <s> bilakatzen duten aldaketa gutxi batzuk badira ere (Urgell 2000: I, § 6.2.3). Euskaraz, banaketa honek berez funtsik ez izan arren, Larramendik bikoiztasuna gorde egin zuen hurrengo kasu hauetan:

a) Etimoetan (1), baita etimologiaz bermatutako maileguetan (2), salbuespenen batekin (3):

(1) *assalda* «assalto», *assayatu* «assayar», *asse*, *asseaz* «assaz», *assi*, *assitzea* «assisia».

(2) *assomatu* «assomar», *assomatua* «assomado», *maspassa* «passa».

(3) *asustatu* «assustar», *lasai*, *lasaitu* «lasso».

b) Maileguetan (1), salbuespen ugarirekin (2) eta zalantza batzuekin (3):

(1) *confessorea* «confessor», *hyssopoa* «hyssopo», *missioa* «misión», *missionista* «missionero», *passaportea* «passaporte», *possible* «(no es) possible».

(2) *mesana* «messana», *paseatu* «pasear», *paseatzallea* «passeante», *pasea* «paseo», *tasa* «tassa», *tasatuqui* «tassadamente», *tasatzallea* «tassador», *tasatu* «tassar».

- (3) *passa* «passa de aves», *licapassa* «passa, (...) un afeite de mugeres», *pasada*, *passaera* «passada», *passagarria* «passadero», *passatu* «passar, activo», etab., baina *pasarria* «passage», *pasatu* «passar de un lugar a otro», *pasatua* «passado», *pasalecua* «passo, por donde se passa», *pasartea* «passo, de Escritura». *passio* «passión de Christo», baina *pasioleora* «pasionaria».

c) Euskal hitzetan ere ager daiteke; esate baterako, *aserre*-ren familian ia beti <ss> dugu; *nabasi*-renean, berriz, <ss>koak gutxiengoan daude eta *asi*-renean salbuespen bat baino ez:

asserraldia «escarapela», «mano, reprehensión», *asserratu* «reñir», *asserre* «begín», «(estar) reñidos», *asserrecorra* «enojadizo», *asserreazo*, *asserraraci* «enzarzar», *asserrati* «arisco», *asserretu* «enojar», «reñir», «reprehender», etab., baina *aserre* «bravo», «feroz».

nabassi «adulterar», «alear», «(meterlo todo a) barato», *nabassia* «adulterado», *nabassitza* «adozenarse», baina *nabasi* «desordenar», «desrizar», «emmarañar», «encartar», *naasi* «aguar», «añascar», *naasia* «mixto», etab. *assi* eta *asi* «alear», baina *asi* «abotonar», «acabar», «amanecer», «maullar», «principiar», «tebotarse», *asia* «comenzado», «inchoado», etab.

4.6. <ts>

Grafema honek adierazten duen hotsaren adierazpena gorabeheratsua izan da testu zaharretan. Bizkaieraz berandu arte <s> aurki dezakegu (Urkizu, Barrutia), frikariak eta afrikariak bereizi gabe; tradizio berankorragokoa den gipuzkeraz, berriz, <ts> dugu Otxoa eta Irazutzarengan (Lakarra 1985b: 243-244). Etxeparek, bere aldetik, hiru grafema —<x> nagusiki, <ts> bakan eta behin <stz>— darabiltza, baina <x>k oraingo balioa ere badauka, <ch>rekin batera (Lafon 1951: 315). Egungo balioaz non-nahi eta noiznahi <ts> erabiltzeko hautapena, ezaguna denez, Leizarragari zor diogu azken batean, nahiz eta Iparraldean bi sistemek iraun zuten, testu batzuetan batera agertuaz (cf. *CatLav*-en *atseguin* eta maizago *axeguin*, esaterako; ap. Villasante 1985), eta are hirugarren bat lehian sartu: <tx> (cf. Harrieten *irritxa* «ambition», *quaratxa* «amer»...).

Hegoaldean, berriz, Lakarrak (*loc. cit.*) jadanik azpimarratu duen bezala, Larramendik <ts> orokortu zuen, eta ez dago salbuespenik, dakidalarik, *HH*-an. Gai honetan, Axularren izena aipatzen du bere alde:

Aprendan los nuevos traductores a escribir esta pronunciación *miretsi* como la trae Axular, desterrando de ella la x que importunamente añaden, *etsi*, *etsian*, *ardietsi*, *onetsi*, *gaitzetsi* y otros (*Corografía* 298).

4.7. <c>, <z> eta <tz>

Ohiko banaketa <za>, <zo>, <zu>, <ce>, <ci> dugu frikarian. Orain normala —baina zaharra— baderitzagu ere, orduko euskaran erdi-berrikuntzat hartu behar dugu, betiko bazter batera geratu baitzen lehenagoko —Iparraldeko zein Hegoalde-

ko— liburuetakoa <ç>. *CatLav*-en (1733), adibidez, *gauça* edo *eguidaçu* idazten da, baina *berce* eta *obligacione*; Otxoarengan, bestalde, *gauça*-ren bat aurkitzen da oraindik, *gauza* 1700-1745 bitarteko Hegoaldeko testuetan nagusi den arren (Lakarra 1984, s.v.). Arazoa oraindik pil-pil sentitzen zuen Larramendik: «también debe desterrarse la cedilla o la ç, que en España ha estado también en uso, y hacen su oficio la c y z con las vocales correspondientes» (*Corografía* 298). Gaztelaniaz *DAut*-ek bezalaxe (1726: lxxii t. hur.), esan daiteke <ç>ri atea behin betiko berak itxi ziola euskaraz. Honekin batera, <tce> <tci> eta guztiz <tçe> <tçi> ere baztertu zituen, testuinguru guztietan <tz> sartuaz (Lakarra 1985b: 243).

Badago bertan beste berezitasun bat: inoiz <ze> <zi> topatzen da euskal ordaintan, gaztelaniazko hitzetan legez (Urgell 2000: I, § 6.2.1). Haatik, euskaraz arazoia etimologikoa bide da: *ez*-etik *ezetz* ateratzen da, *batez*-etik *batezere*, etab.,⁴⁹ bai eta hitzak berezko *-a* duenean ere, gaztelaniarako *DAut*-ek (1726: lxxii t. hur.) eman arauan —hots, *paz* baina *paces*— ez bezala:

gauzen «admirador», *gauzetan* «acidia», *gauzeza* «inútil». *goizean* «(esta) mañana», *goizean goiz* «(muy de) mañana», *goizetic* «(tan de) mañana». *mezururquia* «terno de missa». *pozez* «aclamar», *pozic* «alegremente». *chanzerea* «eutrapelia» (< *chanza*).⁵⁰

Idatzietan ere beste horrenbeste sumatzen da, gorabehera gehiagorekin bada ere: *bezela* eta *bezala* erabili ohi du, batetik; bestetik, ohartu Azkoitiko sermoiko *zeu*-ugariei:⁵¹

LET: *bezela* (14), *contuzena*, *errazen*, *bezela* (34), *guzioc* (35), *baizic*, *batezere*, *gauzetan*, *jaquiñezen* (36), *batezere*, *Eleizetan* (37), *Guipuzetatic* (39), *zeure*, *zeu*, *atozea* (46), *zeuri* (49), *pozic* (52), *pozic* (55), *eleizen* (77).

4.8. <is>, <(i)sy>, <ch>, <x>, <g>, <j>

Jadanik badakigu *HH*-an hiru sistema ezberdin bizi direla elkarrekin (Urgell 1998b: § 4.10): Iparraldeko testuetako <ch>, Hegoaldeko zenbait testutako <x> eta Larramendik balio beraz baliatu ohi zituen <is> eta <(i)sy> berriak. Beste arlo batzuetan ez bezala, honetan ez zuen lortu bere proposamenak aurrera ateratzea; honegatik, besteak beste, ezerk baino zalantza eta gaizkiulertu gehiago sortu eta sortzen ditu, batez ere <ch> eta <is>-ren ulerpenari dagokienez.

<ch>k abantaila nabarmen bat dauka: euskaldunek zeinek bere modura irakurtzen baldin badituzte, *choratu*, *chori*, *chucatu* eta *churi* bezalako idazkerek ahoskapen askea dute: *xoratu* zein *txoratu*, *xori* zein *txori*... irakur daitezke, ezer galdu gabe. Desabantaila nabarmenak ere baditu, batez ere gaurko interpretatzaileontzat, bietako zeinen lekukotasuna dugun erabakitzen ez baita beti erraza, guztiz hitz hasieran txistuariek jasan dituzten bilakaera ezberdinak direla eta. Alabaina, bistan da behinik

⁴⁹ Gauza bera Lardizabal (Urgell 1995: lix) eta Añibarrorengan (*GGERo* 3-72 *gauzezac*, 4-15/16 *gauzea*, 4-40 *errazezan*, 4-100 *dozuzenean*, 4-122 *ezereztuten*...; cf. Urgell 2001).

⁵⁰ Cf. *DAut*: «Virtud que modera el exceso y desenvoltura en las chanzas y juegos...».

⁵¹ Bildutako adibideak eskura dauden lehenagoko argitalpenetan egiaztatutakoak ditut denak.

behin ezin dugula *a priori* Hegoaldeko usadioa islatzen duela esan, Larramendik Iparraldeko liburu anitz —ia denak— ezagutu baitzituen; halako hitz errazetan bederen, nago biak islatzen dituela, baina lehenik Iparraldeko euskalkiak hainbestean ezagutzen zituela frogatu beharko nuke.

Ordu horretara iritsiak ez garenez gero, alderantziz saia gaitzke, ezinbestean gaurko <x> islatzen duten <ch> grafiadun hitzak seinaltatuaz. Honetarako, baina, onartu behar zait hanbatik hanbatean errazago dela /š/ suposatzea Iparraldean ongi lekukotutako formetan, ezen ez inoiz ez jasotako /č/-dun forma «berreraikitzea» edo, demagun, Nafarroako bazter batean bakarrik erabiltzen dena entzuteko aukera izan zuela sinistea. Hona nire hautagaiak, zerrenda osoa izatetik oraino urruti badago ere;⁵² ohartu haietako batzuetan aldamenen grafia larramenditarra ere agertzen dela:

bachera, baisera «vaxilla» (*baxera* 1643). *dichida, disida* «desafío» (cf. *dixidatu* 1630, *dixidu* *XVII ea.). *fachelatu* «embarazar», *fachelua* «embarazo». *queicha*⁵³ «angustia» (*kexa* 1627). *lacho* «floxoso, perezoso» (*laxo* 1545), *lachotasuna* «floxedad» (*laxotasun* 1627), *lachotu, lachatztea, lasyotu, lasyatztea* «afloxar» (*laxatu* 1545, *laxotu* *XVII ea.). *puchanta, puisyanta* «poderoso» (*puxant* 1627). *chaya* «bodega» (*xai* 1857). *chaiia* «claro» (*xahu* 1545), *chabutzea* «acrisolar» (*xabutu* 1545). *chedarria* «lindero», «término, mojón» (*xedarri* 1712), *chedatua* «intencionado» (*xedatu* 1571), *chedea* «fin, motivo» (*xede* 1571). *cherloa* «cabellera» (*xerlo* 1635). *chilíncha* (*xilintxa* 1627). *chiloo* «hoyuelo», «orificio». *biotza chimicatzea* «compungirse», *chimicoa* «disgusto, enfado» (*ximiko* 1571). *chipitu* «achicar» (*xipitu* 1571). *chirmendua* «sarmiento» (*xirmendu* 1571). *chirripa* «arroyo» (*xirripa* 1664). *choil* «muy» (*xoil* 1571). *chorrotza* «picante, en instrumentos agudos», *chorrosquiro, chorroisqui* «agudamente», *chorroistasuna* «agudeza», *chorroistu* «afilar». *chorta* «gota, de agua» (*xorta* 1627), *chortaca* «gota a gota» (*xortaka* 1664). *chotilla* «lindo» (cf. *chotiltua* 1545). *chumea* «pequeño» (*xume* 1664), *chumetu* «descrecer» (*xumetu* 1677). *chutic* «(en) pie» (*xutik* ~1620). *chuisen* «derechamente» (*xuxen* 1571).

Erakuskari txiki honek gauza bat erakutsi digu Larramendiren sistemari buruz: izan ere, HH-an ez dago <x> hasten den euskal hitzik, *xagua* «xagua» eta *xea* «xea» maileguak izan ezik.⁵⁴ *bachera* <baisera> eta *puchanta* <puisyanta> bezalakoak letralda ditzakeen arren, ez da inoiz ere hitz hasieran saiatzen: **isedea* ‘xede’ nahasgarria dela aitorturik, dena dela, ez dago behin ere **syedea* edo *xedea* bezalakorik.

⁵² Nire intuizioak EH-ak eskaintzen dituen datekin erkatu ditut, eta honek jasotzen ez dituen zenbait hitzetarako OEH-ra zein Azkueren hiztegitara jo dut; hitzen bat (*fachelatu, fachelua, chiloo* eta *chorrotzen* familia) belarriz-edo epaitu behar izan dut, edo eskura nituen lexikoietara joaz (*chipitu, chirmendu, chotilla*). Bidenabar, Sarasolak gehienetan ez du Larramendiren lekukotasuna aintzakotzat hartzen (cf. *xai*), eta agertzen den bakanetan beti ere <tx> (cf. s.vv. *xilintxa, xirripa*) edo <s> irakurketaz (cf. s.v. *dixidu*). OEH-an, berriz, *laxatu* / *laxotu*-ren *lasy-* formak <lax-> baina *lach-* formak <latx-> letraldatura daude. Zertxobait aldatu beharko dira gauzak alde honetatik, beraz.

⁵³ Aurkitu dudun <ich>-ren adibide bakarra; baliteke iturriaren idazkera izatea.

⁵⁴ Gaztelaniazko hitz hasierako <x>-dun hitzetatik ateratako maileguen idazkeraz ik. § 4.12.

Antza denez, <x> ez zitzaion egokia iruditzen Larramendiri —berehala ikusiko ditugu honen aldeko beste xehetasun zenbait—, ziurrenik gaztelaniazko ohituraren arabera /x/ ahoskera iradoki zezakeelako (Urgell 2000: I, § 6.2.4). Berriz, gaztelaniazko ahoskera adierazteko arazorik gabe erabili zuen <#sy> grafemaren (Urgell 1998b: § 4.9) hiztegi osoko adibide bakarra gazt. *xea*-ren etimologian (*chea*, *syea* «que significa cosa menuda») dago; gazt. *xetar*-enean, ordea, *cheatu* («que significa desnuzar») bakarrik darabil, adibidez, eta ordain modura beti *chea* eta *cheatu* idazten du. Erreparatu, gainera, *chorroisqui* ‘xorroxki’, *chorroistasuna* ‘xorroxtasuna’, *chorroistu* ‘xorroxtu’ eta *chuisen* ‘xuxen’ bitarikoei.

Beraz, hitz hasieran /š/ adierazteko daukan grafema bakarra Iparraldeko <ch> da. Erabakia azalgaitza da, gure ikuspegitik bederen, baina ez azalezina. Kontuan har dezagun, batetik, oso ondorio txikiak izan zitzaizkela, Hegoaldean hitz hasierako /š/-aren bakantunagatik (Mitxelena 1977a: 190-194). Bestetik, Larramendik Iparraldeko hitzak hegoalderatu nahi zituzkeela eginik, ez zait iruditzen ausartegia denik bere herrikideek *chedea* idatzi eta *txedea* ahoskatzea —*txori* ahoskatzen zuten moduan— axola ez zitzaiola esatea, baldin eta *erabiltzera* bederen makurtzen baziren. Edota, agian hobeto, litekeena da Ip. /š/= Heg. /č/ egokitasun normala gainerako hitzetara hedatzea, hots, Ip. *xedea*-ri Heg. *txedea* zegokiola pentsatzea. Batera zein bestera, azpimarra dezadan halaxe ez zeritzonean markatzen jakin zuela (*baisera*, *disida*, *lasyotu*, *lasyatzea*, *puisyanta*).

Gatozen orain Larramendik honelakoez gainerakoan erabili zuen sistemara. Jakin badakigu <is> eta <(i)sy> erabiltzen dituela bai hiztegian, bai idazlanetan, eta <x> -*xe* indartzailean ia bakarrik (Mitxelena 1978: 392; Lakarra 1985b: 247, 13. oh., Urgell 1987: 360-361). Halaz ere, ez dakigu <is> eta <(i)sy> berdin, hots, testuinguru beretan erabiltzen zituenentz, ez eta <is> beti /š/ denentz. Ikus ditzagun lehen-dabizi bakoitzaren adibide ziur batzuk:

<(i)jy> (= <isy>): *asyeria* «raposa». *asyerre* «perrengue». *asyetsua* «airoso». *basya-coa* «musgaño». *gaisyo* «acierto», «acezar», *gasyoa* «pobre hombre», *gaisyotasu-nac* «achagues», *gaisyoquiro* «achacosamente», *gaisyotsua*, *gaisyotia* «achacoso», *gaisyotu* «adolecer». *goisyobiurrac* «torcidos, dulces», *gosyorea* «tallarín». *lasyotu*, *lasyatzea* «afloxar». *mosyala* «bozal». *musyica* «pérsigo». *pisya*, *chysya* [sic] «orina», *pisyajario*, *chysyajarioa* [sic] «meón», *pisyaldia* «meada», *pisyeguin*, *chisyeguin* «orinar». *puisyanta* «poderoso». *usyatu* «ahuyentar».

<ij> (= <is>): *aisala* «casarilla», *aisaldarra* «somero», *aisalmea* «farfara, teli-lla». *aiseria* «zorro». *aiserre* «perrengue». *aisolduria* «cuidadoso», *aisolduro* «cuidadosamente». *baisera* «vaxilla». *bisgoiso* «bizcocho». *burruisquea* «cabezuela». *eistua* «agua manil». *eisurrac* «acanthobola». *gaisigoisoa* «agridulce». *gueisancha* «babieca». *goisoa* «dulcecito», *goisa-biribilla* «peladillas», *goisaroa* [sic]⁵⁵ «fartes, fruta de massa llena de dulce», *goiso biurrac* «retorcidos, dulces», *goisopilla* «ramillete, piña de dulces», *goisorea* «caramelo», *goisoro* «dulcemente», *goisochocha* «canelón». *queisa* «quexa».⁵⁶ *moisala* «rocín». *moiscortu* «cargar delantero, embriagarse». *moistu* «afeitar». *muisica* «melo-

⁵⁵ Izan liteke *goisorea*, bestetan bezala, edo *goisarea* behinik behin.

⁵⁶ Etimologian azaltzen da eta, zehazkiago, hauxe dio: «...*queja*, *queisa*, en Bizcaya es fatiga y cansancio».

cotón». *muisturra* «hociquillo». *neisca* «rapacilla». *puisca* «cabito». *chorrois-qui* «agudamente», *choroistu* [sic]⁵⁷ «acicalar», «adelgazar», *chorroistu* «afilar», «aguzar».

Begi-bistan jotzen gaituen lehenengo kontua da bi idazkerak hitz berberetan ager daitezkeela (*asyeria* / *aiseria*, *aisherre* / *asyerre*, *goisyobiurrac* / *goisobiurrac*, *gosyorea* / *goisorea*, *mosyala* / *moisala*, *musyca* / *muisica*). Eta bigarrena, inplosiboan <is> bakarrik erabiltzen duela (*buruisquea*, *eistua*, *moiscortu*...). Badakusgu, bestalde, Iparraldeko hitz zenbait zuzenean aldatu egin zituela (*aisolduria*), bertako grafia islatu gabe (cf., oster, *Erans*-eko *acholduria* «cuidadoso», *acholduritu* «(hacerse) cuidadoso»). Bidenabar, -xe indartzailea ez da nahitaz <x>z agertzen, pentsa genezakeen bezala; aitzitik, *HH*-an bederen bestelako grafien aldamenen gutxiengoan dago:

alaxe «(de esta) suerte», *alasye* «almendrán». *andisyec* «(de) allí». *andiseagoa* «ampolla en la carne». *araise* «allá ir». *guesyago* «(algo) más».

Lehenengo galdera, edo haren zati bat behinik behin, erantzunik dago. Bigarrena, berriz, arras zailagoa da erantzuten, ziurrenik gure begietan *gaisoa* bezalako gauza bat ezinezkoa ez delako. Lehenik eta behin, ezarrita utzi nahi nuke bokal artean <ch> daukaten oinarrietatik ateratako <is> inplosiboek derrigor /ʃ/ hotsa adierazten dutela:

aiscondoa «pezón, de el exe», *aiscondarria* «pezonera» < *acha* «exe». *ecaiztuna*, *ecaisduna* «tempestuoso» < *ecaitza*, *ecacha* «tempestad». *careisduna* «verruguento» < *carecha* «verruaga». *choisguillea* «palillero» < *chocha* «palillo».

Beste horrenbeste esan behar da logikak agintzen duenean. Adibidez, *cuiscurdura* «encogimiento», *cuiscurquiro* «encogidamente», *cuiscurra* «encogido», *cuiscurtu* «enco-gerse», «ovillarse» formak, *OEH*-ak (s.v. *kizkur*) badaezpada ez aipatuak, inolako zalantzarik gabe gaurko grafian *kuxkurdura*, *kuxkurkiro*, *kuxkurra* eta *kuxkurtu* dira, eta Larramendik hobeto ezagutzen zuen *kiskur*-en aldamenen (cf. honen erabilera bat 1745: cciv-n, eta s.vv. *aladares*, *rizo*, etab.) entzun ahal izan zituen. Aldaera hau bermatu ez eze, bi mendez aurreratu egiten du (*kuxkurtu* V-gip, *kuxkur* s.v. *kizkur* 4 < H [< *HH*] ap. *OEH*; cf. *kuskurtu* And *AUzta* 135). Hona beste adibide batzuk:

beraaaisca «papandujo» (< *beraa* «blando», cf. lat. *Nimis blandus*). *goisgalea* «regosto», *goispilla* «chocho, confitura» (< *goxo*). *joistallu* «(estar de) fiesta», *joistallua* «mojarrilla, el que siempre está de chanza y fiesta». *naisca*, *guraisca*, *gogaisca* «veleidad» (< *nai*, *gura*, *gogo*). *oiscada* «velicación», *oiscatu* «velicar» (cf. *ozka* «mordedura»).⁵⁸ *olaisca* «ripia, tabla delgada». *poiscaria* «mojarrilla», «ojialegre». *poistarica* «aguzanieve». ⁵⁹ *choisqueriac* «buxerías» (< *txotx*; cf. *chocheria* «chuchería»).

⁵⁷ Bietan holaxe, *chorroistu*-ren orde; cf. «adelgazar más, *chorrochagotu*».

⁵⁸ Cf. *DAut*, s.v. *velicación*: «Mordicación de los humores que punzan alguna parte del cuerpo»; eta s.v. *velicar*: «Punzar los humores acres y mordaces alguna parte del cuerpo».

⁵⁹ Cf. «Posta, el que la corre, *posta*, *postaria* (...), y con este nombre significamos apresuración y correr mucho; y por esto al aguzanieves, que corre con rara velocidad, llamamos en un dialecto *postarica*, *poistarica*, y *postaca* [llamamos] el modo de ir corriendo».

Larramendik, dakusgunez, bustidura adierazgarriak egiteko aparteko erraztasuna zuen (*joxtailu, oxkada, poxkari...*). Bestalde, oro har ez dago zailtasunik <is> inplisiboa agertzen den guztietan /s/ hotsaren aurrean gaudela erabakitzeke; erreparatu, besteak beste, -*xka* txikigarriari. Alabaina, bi formak zalantza zor dezakete oraindik, *pisca* eta *gaisto*-k, goikoek ez bezala, biek berezko *i* dute eta. Testuinguru honetan <sy> ezinezkoa denez eta <x>rik ez dagoenez gero, <is> da *pixka* eta *gaixto* zein *gaxto* idazteko Larramendik zeukan aukera bakarra; baina, zer idatzi nahi zuen? Berriro ere «zeinek bere erara» hura gogora dezakegu alde batetik; baina /s/ irakurketa ere aurreikusita ote zegoen? *Pisca*-ren kasuan baietzan nago, cf. «Pedacico, *puisca, pisca, puscachoa, zatichoa, amenchoa, zaticoa*» sarrera, non gainerako ordain guztiek txikigarri modu bat dararamaten. Besterik da, ostera, *gaisto*-ri dagokionez: oso oker ez baldin banago, *gaizto* eta *gaisto* ez dira sekula elkarrekin agertzen *HH*-an; banaketa osagarrian daude, beraz, eta *gaisto* ugariago aurkitzen da bestea baino. Izan liteke, hortaz, honen idazkeran inplisiboa gertatutako txistukarien neutraltzeak bestek baino indar gehiago izatea (§ 4.18). Arazo berbera gence *eistaria* «montero»-ren kasuan, esaterako.

Bokal artean, berriz, goiko adibideak nahikoa ugal daitezke hain nabariak ez diren, baina ziurtzat jo behar ditugun zenbait aipatuaz:

aisalcorra «esclirótica» (cf. *aisal* ~ *azal*). *aisurteguia* «aprisco» (< *axuri*). *gaissea* «gage». *gaisoa*, *gasyoa* «pobre hombre». *goisacaria* «chulo», *goisaqueta* «chulada» (cf. *esale goisoa* «chulo»). *queisaera* «violación», *queisaria* «violador», *queisatu* «violiar», *queisua* «violencia». *loisencharia* «soflamero». *luisalea* «escaramujo». ⁶⁰ *muisa* «zabullida», *muiseguín* «zabullirse». ⁶¹ *muisarmea* «mirlo, afectada gravedad en el rostro», *muisarma(tu)* «mirlarse». ⁶² *chaisaria* «chazador» (< gazt. *chaza*). *chuisaca* «chamiza». ⁶³

Ohartu <is> guztiak bokal ostean agertzen direla gure adibideotan eta, gainera, *gaiso*-n izan ezik *i* ez dela etimologikoa. Zer gertatzen da, berriz, ondokoekin?

bisiga «vexiga», *bisigada* «vexigazo», *bisigaguillea* «vexigatorio». *isildu* «callar», *isilic* «calladamente». *lisiva* «colada», *lisiba*, *lisibea* «lexía», *lisibontzia* «coladero». *maisua* «maestro». *misarra* «marmota». *pisazaya* «guardamea», *pisazapia*, *pisoyalac* «pañales». *pisontzia* «orinal». *chisa* «mea», *chisaldia* «meada», *chisontzia* «orinal».

Nire ustetan, gorago <ch>az esan bezala, irakurketa askea ahalbidetzen duten grafiak dira: bitxia da *ixil* behin ere ez jaso, hala nola *pixa* / *txixa* bikotean dauden grafi aldaketak, ziurrenik *gaisoa*, *gasyoa* «pobre hombre» bikotea bezain adierazgarriak. Aitorkizun bat daukat: *ixil* behin ere ez jaso gezurra da; izan ere, badira *HH*-an zehar agerraldi gutxi batzuk, zalantzagabeko baina beharbada esperoezineko den grafia batean, kasu guztietan <isil-> formen aldamenean:

⁶⁰ Cf. *lausarda* / *luxarda* «mostaza negra» (OEH, s.v. *lausarda*).

⁶¹ Cf. Azkue, s.v. *mux*: «3. (B-m), cabizbajo, meterse de cabeza en el agua. *Muxean* (B-m), nadar bajo el agua».

⁶² Cf. «Mogicón, viene del Bascuence *musucona*, que significa lo mismo, y quiere dezir una *carada* o golpe bueno en la cara, de *musu*, cara, y *on*, buena, y *musuco*, golpe en la cara...» edo «Mogiganga, es de el Bascuence *musiganga*, que significa lo mismo, y viene de *musu*, cara...».

⁶³ Cf. Azkue, s.v. *txuxaka*: «1. (G-orin), haz de leña delgada».

igildu, *igilaraci*, *igilerazo* «acallar», *igildu* «callar», *igila*, *igildua* «callado», *igilean* «calladamente», *igildo* «mudamente», *igilic* «cepos quedos».

Ziurrenik *quejoo* «desasosiego», «inquietud» ere honen erakusgarri bat da. Ez dago esan beharrik, Materrek erabili eta Axularrek iruzkindu zuen haretxen aurrean gaudela:

Batac esquiribatcen du *chebero*, bertceac *gebero*. Batac *chedea*, bertceac *gedea*. Batac *ichilic*, bertceac *igilic*. Batac *lachoaa*, bertceac *lajoo*. Batac *choil*, bertceac *joil*. Batac *quecho*, bertceac *quejo*. Batac *chuchen*, bertceac *jugen* (Axular 1643: 17-18).

Gure zalantzekin bukatzeko berme bat eskaintzen digu honek: *igil* eta *isil* elkarrekin agertzeak, inolaz ere, *isil*-en /š/ irakurketa ere aurreikusita zegoela adierazten du. Eta, ikusiak ikusirik, uste dut baieztza daitekeela Larramendi testuinguru horretan bustidura automatikoki egiten zuen hizkera bateko hiztuna zela.

Azkenik, *HH*-an <x>rekin zer gertatzen den azaltzeko dugu. Alde batetik, bada-kigu ez hitz hasieran, ez inplosiboan aurkituko dugula, batean <ch> eta bestean <is> dago eta. Osterantzean, hitz zenbaitetan —oso gutxitan— agertzen da, baina defektiboki, hiru egoera hauetako batean bakarrik: (1) ahoskapenari buruzko oharraz lagunduta; (2) bestelako grafia batez lagunduta; edota (3) <ix> moduan:

- (1) «Bizcocho (...) viene de el Bascuence *bisgoiso*, *bizgoxo*, pronunciada la *x* a la Latina, y significa, sea dulcecito».
- (2) *muxicac* «abridero», *muisica*, *muxica* «melocotón».
- (3) *muix* «chapuz», *muix sartu* «chapuzar» (cf. *muisa* «zabullida», *muisegin* «zabullirse»).

Gainerantzean, uste dut *quexa* «querella, quexa», *oxala* «oxalá», *oxte* «oxte» edo *fenixa* «fénix» bezalako gauzak /š/ irakurtzea, anakronismo hutsa izango litzatekeela: zeren eta, Larramendik irakurketa hori nahi izatera, hobeto markatuko baitzukeen, behar izan zuenean egin zuen bezala. Dena dela, gai honetaz beharaxeago (§ 4.12) eman ahalko dut argibide gehiago.

4.9. <id>, <y>, <ty>, <g>

Larramendik, nahiz gipuzkoarra izan, bustidura gehienak aipatu ez arren, Oñederak (1992: 57) esan bezala, egiazki haien lekukotasunak izan badira, hiztegian sakanatuta eta grafia ezberdinen azpian moztortuta, nahiz /š/-ren adierazpideetatik ez urrun:

<id> *eiderra* «decoro, honor», *eiderguea*, *deseidertea*, *eidercaitza* «desacatamiento», *eiderto*, *eiderqui* «decorosamente», *eiderperatu* «degradar», *eider-tsua* «decoroso».

<y> *anyerea* «moña, figura de muger que sirve para modelo de el traje», «muñeca de niñas», «títtere, figurilla de pasta, &c. bien vestida», «soplado, demasiadamente pulido». *anyerequeria* «melindre, demasiada delicadeza», *anyerequ(er)ietan*, &c. *ibilli* «melindrear». *anyerequeta* «ada-

mamiento», *anyeretia* «melindroso», *anyeretzea* «adamarse», *anyeretua* «afiligranado», *anyerechoa* «damisela». *galyurra* «acrotera», «ápice», «auge», «caballete de el texado», «capitel», «cima», «cupulino», «penacho», «pináculo», «sumidad», «tope», *galyurtu* «campear», *galyurtua* «acopado, árbol», *galyurchoac* «repelar las yerbas».

<ty> *muisturra*, *mutyur(r)a* «hociquillo». *ontoa*, *ontyoa* «hongo».

Hiru grafiotatik dagoeneko azaldu zaigun bakarra <ty> da, Larramendik age-
rriki bestek <tt> idazten zutenarekin berdindu eta ia <ti> (*ditiut*) ahoskatzen den
hotsa dela zehaztu egin baitzuen (Urgell 1998b: § 4.10). Ongi ezagutzen dugun
<sy>ren parekoa da, eta gure adibideen arabera edozein testuingurutan *t* bustia
adierazteko balio du.

<id> grafiak, berriz, <is>ren antzera, *d* bustia adierazten du bokal artean, *l* eta *n*
ostean *d* bustia <y>z irudikatzen den bitartean. Azpimarra dezadan *galyur*-en kasua,
zalantzazko bakarra izan daiteke eta: Larramendik hitzaren bestelako lekukotasunik
ez dakarrenez, *OEH*-ak (s.v. *gailur*) <ly> *l* bustitzat hartu badu ere,⁶⁴ hainbat arra-
zoik *gailddur* ulerpena egitera garamatzatela uste dut: lehenik, *anyere*-ko <ny> argia-
rekiko paralelismo hertsia; bigarrenik, leku horretan *d* daukaten formak erdialdeko
euskalkietan —batez ere *G* eta *GNn*— oso ondo lekukotuta egoteak —ik. *OEH*, s.vv.
gailur (*gaildur*, *galddur*, *gaildor*, *kaildur*, etab. aldaerak), *galdor*, *galdur* eta *gandor*;
Larramendik berak *gandor* ere jaso zuen—; herenik, agerraldi asko izan arren beti
batera idatzita egoteak; eta, azkenik, *l* bustia adierazi nahi izanez gero <ll> erabiliko
zuelako ziurtasunak (§ 4.14).

Zalantzarik gabe oraindik bustidura gehiago ezkutatzen dira *HH*-aren orrietan.
Aparteko kasu bat aurkitu ahal izan dut, Larramendiren sistematik kanpoko zeha-
ro, eta honegatik bestela (iturriaz?) azaldu beharrekoa: *angerederra* «cebellina, especie
de comadreja».

4.10. <ch>, <tch>

/š/ adierazten ez duen orotan, gehienetan alegia, <ch>k gaztelaniazko grafian
daukan balioa du *HH*-an, lehenagoko eta beranduagoko Hegoaldeko testu guztietan
legetxe. Halaz ere, bada Iparraldeko <tch>aren arrastorik, oso bakanki antza denez:
etcholac «aduares» soilik aurkitu ahal izan dut, besteren bat badagokeen arren (cf.
Erans-eko *etchalecua* «descanso (lugar de)»). Hortaz, badirudi gainerantzean <ch>z
aldatu zituzkeela Iparraldeko testuetan aurkitutakoak, hitz hasieratik lekora, *Erans*-
eko Harrietengandiko hitzetan erraz egiazta daitekeen bezala: *bacochia* «nones» (< Ht
FE 395 *bakhotchia*), *birichia* «pares» (< *ib.* 395 *biritchia*), *achiquitu* «tener, assir» (< *ib.*
431 *atchiquitcea*), *ichindia* «tizón» (< *ib.* 432 *itcbindia*). Aldaketa honen *HH*-ko leku-
kotasun gisa cf., agian, *barach* «lentamente», *borcha* «fuerza», «violencia», *borchaz*
«violentamente», *borchatu* «violiar» edo *meachatu* «amenazar».

⁶⁴ Egile honek ere erruena bat du erabakian: *gailur*-tzat hartu dira *HH*-ko lekukotasun guztiak, eta
Lardizabalen *galyur* ere zalantzazkotzat jo, grafia berezia markatu bada ere (s.vv. *gailur*, *gailurtu*, *gai-
lurtxo*).

4.11. <j>, <g>, <y>, <i>, <ï>

Badakigu Larramendik zer uste zuen <j>ren ahoskapez, eta hura irudikatzeke <y> baliatu zuela: «...inclinándose a *yauna, yan, &c.*» (Urgell 1998b: § 4.10). Halaz ere, grafia lehengoan utzi zuen. Nagusiki, hitz hasieran <j> aurkitzen dugu, baina ohartu gaztelaniaren banaketa —hots, <ge->, <gi->— gordetzen duela baita erdal etorkirik —nabarmenik behinik behin— ez daukatenetan ere:

LET: *gendartecoac, gendalla* (36), *Igitucoen* (37), *Euangelioac* (52), *gelaz* (76).
Salbuespena: *euangelioac* (45).

HH: *jabea* «amo», *janaria* «comida», *jarío* «manar», *gela* «hielo», *gendea* «gente», *giganteen* «agigantado», *gicotria* «treta», *gira* «giro», *giratu* «girar», *jo* «pegar», *joan* «ir», *jocoa* «juego», *josi* «coser», *judua* «judío».

Ohiko banaketaren aurkako adibide bakanak, badirudi tradizio ezberdin bati (*Jencotasuna* «deidad») edota erdal grafiaren beraren eraginari (*jupoya, jipoea* «jubón») egotz dakizkiokeela. Leku honetan <y> ere aurki daiteke, baina oso gutxitan, eta eskuarki bestelako arrazoiek azal dezaketen moduan: maileguak (*yaroa* «yaro», *yuca* «yuca»), etimologiak, gaztelaniazko grafia agertu beharrez edota etimologietan beti informazio gehiago ematen duelako (*yan, jan* «yantar», *jocoa, yocoa, jo, yo* «juego», *yoa* «bermejo», *jo, yoa* «látigo», *yoman, yoeman* «imán»), beste tradizio bateko hitzak (*yagoitu* [sic] «jamás», *yelosgoa* «emulación») edo ahoskera berezi bat adierazi beharrrak (*ia, ya* «junco»). Bikoteak, etimologietakoak kenduta, oso-oso gutxi dira: *jocatu, yocatu* «jugar» eta *yotzia, jotzia* «repullo». Honezaz gainera, bada interpretapen errazik ez bide duen hitz bat: *yotorria* «eco». ⁶⁵

Halaber, hitz zenbaitetan <i> agertzen da lehen lekuan. Sistemak akatsen bat badu ere (cf. *ia, iuncia*), dena bitara laburtzen da: (1) hiatook edo hiatotzakoak <ï> daramate (gogoratu <ü>), eta eskuarki aldamenean hiatoa hautsitako formaren bat; (2) beste tradizio bateko formek <i> daramate, baita halaber /j/ ahoskera markatzea interesatu zitzaioneko adibideren batek (cf. bizkaierazko perpausa):

- (1) *i, ia* «juncada», *ia* «izaga», *ia* «junco», *iya* «enjuncar», *iaduna, iyatsua* «juncoso», *iyamea* «bejuco», *iyurdintsua* «paja de meca, (...) junco oloroso». *iagoitic* «nunca». *igandea, iandea* «domingo». *igartu, iartu* «ajar». *iñoteriac, iauteriac* «carnestolendas». *iguesi, iesi joan, iesequin, iguesequin* «huir», *iesia, iguesia* «fuga», *igues, ieslea* «desertor». *ietzi* «enrasar, enrasarse algún vestido», *ietzia, iyetzia* «usado, gastado», *iyutzia* [sic] «(cosa muy) gastada». *io, igo* «ascender», *igo, io, iyo* «subir». *iomena* «fama». *iöri* «abundante», *iöria, iyoria* «abundancia», *iöritasuna, iyoritassuna* «abundancia». *iötua, igotua* «(dolor de) costado», *iötua, igotua* «impertinente», *iyotua, igotua* «sobrehueso, lo que molesta». *iuncia* «escoba», *iuncia* «saúce», *iunciaga* «saucedal». *iurtzuria* «trueno», *iyurzuria* «relámpago». *iñusturia, iusturia* «trueno».

⁶⁵ OEH-ak (s.v. *jotorri*) ez du ezer azaltzen, ez aske den beste lekukotasunik eskaintzen. Haatik, lehen begiratuan bigarren zatia -*arria*-ren ordez dagokeela deritzat (cf. *barri bizi*): *jo + arria*, beraz?

- (2) *iagoiticotz* «(por los) siglos de los siglos». *iardausi* «sacudir». *iauqui* «cometer algún delito». *iautsi* «agacharse». *zulango guizonari deungaro iausten iaca* «(ser) ageno de, no quadrar». *jan, ian* «comer». *jo, io* «acertar, tirando algo».

Gogoratu behar dugu <i> grafemak /j/ hotsa adierazi izan duela Iparraldeko tradizioan eta, beraz, bertatik hartuak dirateke 2. taldeko hitz asko (cf., adibidez, Leiz. *iagoiticotz, ian, iauqui, iautsi, io*). Osterantzean, itxura guztien arabera Larramendi zenbait hitz interpretatzera ausartu zen, bai goraxeago ikusi ditugun *yelosgoa* eta *yagoitu* delakoa (*yagoitic*-en ordeaz, dudarik gabe),⁶⁶ baita orain azaldu zaigun *iiori* ere (areago *iyori*; cf. LET 37 *iioriena*, 75 *iioriagoric*); ez beti asmatu, ordea: OEH-ak (s.v. *jori*) dioenez, «...los textos parecen descartar una pronunciación como trísilabo». Nolanahi ere den, HH-an hiatoa hausteko biderik usuena <iy> taldea da; aipatutako familiez gainera, *iyelso* «hyeso»-renean agertzen da, honetan beti, baita *miyan* bezalako kasuetan ere: *quioric ezteu miyan* «(no tiene) pepita en la lengua». Larramendik eroso menperatzen zuen hizkera bateko ezaugarria dirudi, hortaz.

Bokal artean, <y> da grafia normala, eta beheranzko diptongoan, berriz, <i>:

LET: *goi* (17), *goi* (18), *sayetsetic*, *irurazayac* (21), *etsai*, *jayet-aldean*, *Esayoc*, *ayetatic* (22), *mayan*, *oyetan* (23), *garai* (25), *beargai* (26), *Ayena* (29), *ayec*, *ayentzat* (30), *zai* (31), *Gayari*, *ayenatzen* (33), *gaya*, *goi*, *oi*, *beargai*, *doaya*, *sayets*, *oyez*, *ayec*, *oyetaco*, *goi*, *gaya*, *gayac*, *sayoac* (34), *guyenac*, *jayeterrico*, *nai*, *oi*, *ayentzat*, *oyec*, *Goyerrico* (35), *Ayenatu*, *oyec*, *oyec*, *escucoi*, *guyenac*, *ayetan*, *gai*, *Bizcayan* (36), *aroiqueriaz* (37), *ayetan* (41), *ayenatu* (43), *gaya* (46), *sustraya* (47), *errayetaco* (49), *sayetsa* (51), *ibayac* (52), *anayac*, *bai* (55).

HH: *auzijarraya* «abogado» vs *jarrai niri* «sígueme». *buyatu* «abotagarse». *escuyeronz* «acia la izquierda» vs *escui ta ezquer* «(a) diestro y siniestro». *guyegui* «abultar» vs *gwei* «mucho, adverbio». *gordacayac* «guarniciones» vs *gordacaiquillea* «guarnicionero». *ibayari* «sangrar» vs *ibai* «(río) caudal». *jayoa* «ábil». *loya* «cieno» vs *loi* «(a) piedra y lodo». *mandazaya* «acemilero». *marai* «maravedí». *naya* «apetencia» vs *nai* «absolutamente». *oyala* «abatanar». *puyata* «colada». *sayea* «abestruz». *sugoya* «éter» vs *sugoitarra* «etéreo». *sustrayetic* «acercén» vs *sustrai* «oca, una raíz». *zaldabayaren* «témpano» vs *zaldabaiquiña* «adufero».

Alderantzizko adibideren bat ediren daiteke, dena den; idatzietan, gramatikan (LET 13-20) eta Andoaingo sermoian (LET 73-88) pilatzen dira batez ere:

LET: *goierria*, *goierritar*, *gweiago* (17), *arraio*, *goia* (18), *etsaiac* (20), *bay* (21), *aien*, *oiec* (25), *oiec*, *naiez*, *saietsetic* (26), *odeietara* (30), *gay* (34), *gweiago* (35), *gweiago*, *bay*, *Loiolan* (37), *geienac* (38), *geiagorano*, *etsaiez* (39), *Loiolan* (40), *oietan* (41), *jaiera*, *beargaiac* (42), *hipuyac* (44), *jaiotza* (46), *ay*

⁶⁶ Lhandek Hiribarrenen hiztegiko lekukotasuna aipatzeagatik errezeloak hartuta, antza denez, OEH-ak (s.v. *jagoitu*) *jagoitik*-erako dei batekin arazoa bukatutzat eman badu ere; alabaina, Hiribarren Larramendiren zordun ezaguna da eta, beraz, honelakoetan ez andoaindarra baino fidagarriagoa.

(47), *etsaien* (49), *aytari* (51), *Bay*, *gueiago* (52), *jaiio* (53), *jaiera*, *loiaquin*, *anay*, *etsaien* (54), *jaioa* (73), *gaia* (74), *naiez* (75), *aienatzen*, *celai celaiean* (76), *oien* (77), *leialtadez* (78), *oiebec* (79), *aiurri*, *jaieterriac* (80).

HH: *bay* «abarcar». *buiatua* «abuhado». *deiartea* «interpelación». *erlezaia* «abejero». *gay* «ábil», *gaytasuna* «abilidad», *gayro* «ábilmente». *gueiagotu* «abultar»...

Honezkerok, baderitzat ziurtzat jo daitekeela bokalarteko <j>ren (eta <ge> <gi>ren) /x/ ahoskera HH-an, *frigitu* «freir» bezalakoetan ez ezik, gipuzkeraz eta Gipuzkoako goinafarreraz gaur ohikoak diren zenbait aldaeratan ere (Mitxelena 1977a: 177 eta 194):

ajola «cuidado». *gajotu* «apestar», *gaisotu*, *gajotu* «enfermar». ⁶⁷ *laja* «dejar». *majadera* «pesebre». *ojua* «aclamación», *oiua*, *ojua* «alarido». *tajua* «traza, modo». *ujola* «avenida».

Hitza ondo ezagutzen ez dugun oro, ostera, zalantzaren bat gera daiteke:

ajubetatu «majolar». ⁶⁸ *ajuda* «ayuda, clyster», *ayuda*, *ajuda masculina* «gaita, melecina», «mangueta». ⁶⁹ *ajutua* «ábil», «capaz». ⁷⁰ *zaldiz ejatu* «(correr) parejas». ⁷¹

4.12. <g>, <j>, <x>

Hiru grafema hauek etorkiz bi fonema ordezkatzeko zituzten gaztelaniaz: <x>k auresabaikari frikari ahoskabea /š/, eta <j>k —<g> *e* eta *i* aurrean— auresabaikari ahostuna /ž/. Bilakaera korapilotsu baten ondoren, XVII. mendearen lehen herenerako bikotea bakandu ez eze, bere ondoren bakarra /x/ da (Lapesa 1984: 377-379). Alabaina, Akademiak ez zuen 1815 arte hirukoiztasuna erraztu, <x> /ks/ taldea adierazteko bakarrik utziaz (Lapesa, *ib.* 423). Beraz, bai DAut-en bai HH-an lehenengo banaketa zaharrak dirau, Larramendik aldaketaño batzuk —geroko usadioa iragaritzen dutenak— egin bazituen ere (Urgell 2000: I, § 6.2.4).

Euskaraz <x>ren balioa ebazteko, kontuan izan behar dugu Larramendik hiru tradizio ezberdin izan zituela begi aurrean: orduko gaztelaniazko /x/ ahoskera, zeharo alde batera utzi zuen Iparraldeko /č/ ahoskera (§ 4.6), eta euskal idatzi batzuetan eta

⁶⁷ Cf. Otxoa 100: *Ery edo gajo arquitcen diranac*.

⁶⁸ Cf. OEH, s.v. *axubeta*.

⁶⁹ Larramendiren temak eta *ayuda* aldaerak iradokitzen dute /x/ dela; cf. *ajuria* (Etxba Eib, ap. OEH, s.v. *aiuda* 2).

⁷⁰ Mogelek *adjutu*, *adiutu* idazten zuen (Mitxelena 1977a: 352, 13. oh.) eta OEH-ak (s.v. *adiutu*) iradokitzen duen bezala, idazkera bitxia da. Hiztegi honen *adiutu*-ren aldeko aukera, proposatzen duen etimologiaren menpe dago (< *adimon*) eta ez tradizioaren, zeren eta hau argi eta garbi Mogelen idazkerak behin betiko baldintzatu baitzuen, lekukotasun askerik eskaini gabe. Nabarmena iruditzen zait Mogelek hots berezi bat —bere hizkeran ezohikoa— adierazi nahi izan zuela, eta bururatzeko zaidan hautagai bakarra /d/ (**addutu*) da. Honek ez digu argitzen, ordea, zergatik Larramendik <j> idatzi zuen.

⁷¹ Bokalarteko <y>aren salbuespena dirudi: cf. *eyatu*, *eyaca joan* «correr», *eya ta eya joan* «correr a todo correr». Cf. OEH s.vv. *ea*, *eiaka* eta *eiatu*.

Espainiako hitz «dialektal» zenbaitetan bakarrik (galegotik, asturianotik... hartuta-koak; ik. Urgell 1998b: § 4.9) aurkitzen zuen /š/ ahoskera, «a la latina», berak zioenez. Ahoskera berezia azpimarratu behar honek, badirudi izan zela <x> /š/ balioaz ia erabat baztertzeraz eraman zuen zioa (§ 4.8). Izan ere, gaztelaniaz nola, euskaraz hala dugu maileguetan:

- <ge, gi> *alfangea* «alfange», *Egira* «Egira», *evangelioa* «evangelio», *giral-detea* «giraldete», *giratu* «girar», *magestadea* «magestad», *Sexagesima* «Sexagésima Dominica», *sugetoa* «sugeto».
- <je, ji> *jericotarra* «rosa de Jericó», *sujetatu* «sujetar».
- <ja, jo, ju> *ajonjolia* «ajonjoli», *ajustatu* «ajustarse», *pujanza* «pujanza», *puja* «puja», *tajatu* «tajar», *tajoa* «tajo».
- <x> *axedreza* «axedrez», *caxa* «caxa», *caxoya*, *caxoea* «caxón», *exemploa* «ejemplo», *exercito* «acampamento de el ejército», *quixotada* «quixotada», *quixotea* «quixote», *xagua* «xagua».

Araua hautsi zuen kasu bakanetan, gainera, ia beti <j>ren alde egin zuen:

1) Maileguetan, batez ere euskaraz berezko ahoskera dutenetan —mailegu irun-tsietan— edota euskal etimologiadun hitzetan:

bajoya «baxón de música», *bajoichoa* «baxoncillo». *equersitu* «ejército». *queja*, *queisa* «quexa» (etim.), *quejatu* «quexarse». ⁷² *quisyera* «quijera», *quijera*, *quisyera* «quijero» (etim.).

2) <x> hitz hasierakoa denean, ondoren ezberdinekin:

a) gazt. <x> / eusk. <j> (edo <g> *e, i* aurrean):

jabequea «xabequé», *jaboea* «xabón», *jacara* «xácara», *jacaroea* «xácaro», *jan-daloea* «xándalo, sándalo» (baina cf. *menda samurra* «sándalo»), *jaquea* «xaque», *jaqueta* «xaqueta», *jarabea* «xarabe», *jarcia* «xarcía», *jaropatu* «xaropar», *gicara* «xicara», *jubetea* «xubete», *juta* «xuta».

b) gazt. <x> / eusk. <ch>: *chalchacotala* «xalxaco[t]l», *chametea* «xamete», *chibia* «xibia» (etim.).

c) gazt. <x> / eusk. <s>: *serga* «xerga», *siringa* «xeringa» (etim., *giringa*-ren bitartez).

d) gazt. <x> / eusk. <g> (?): *galapa* «xalapa, una raíz de Indias». ⁷³

Beste horrenbestetsu esan behar dugu gazt. <x> = /ks/-ri buruz: idazkera berbera gordetzen du euskaraz (1), mailegu iruntsiak direnean izan ezik (2):

(1) *examina* «examen», *examinatu* «examinar». *excelencia* «excelencia».

(2) *escumicatu* «excomulgar» (1733), *escumicua* «excomunió» (1627). *escusa* «excusa» (1545).

⁷² Gazt. <quexa> izan arren, alfabetoaren arabera <queja>ren lekuan kokatuta dago; eta, bestalde, hitzak euskal etimologia du.

⁷³ Amerikako hitzekin hartu ditu erabakirik ezberdinenak: *juta* «xuta, pájaro de las Indias», *xagua* «xagua, fruta de Indias» eta *chalchacotala* «xalxacotl, árbol de Nueva España», eta ez da harrigarria, hein batean bederen, DAut-ek ahoskapenari buruzko ezer ez dioenez.

4.13. <h>

Larramendik hitz batzuk bakarrik idatzi ohi zituen <h>az; berehala igerriko diogu:

LET: hori (30), Hiri, Hiriac (31), Hiri (32), hori, hizcuntzari (33), hau, bibotzarequico, hori, Hitzetatic, hizcuntzari, bor, hizcundeen, bitzeguiteco, hizcuntza, hitzaren (34), hilcen, hura, hori, bitz, hitzaren, hitzeguin, hizcunzan, hitzera, hizqueta (35), hizcuntza, hizjario, bonragarriena, hitzcundeetatic, bitz, horiec, hitzera, zubur (36), hori, haren, harc (37), hizcuntzac (38), hiruroguei (39), Hau (40), hau (41), hizqueta, obore (42), ibeslecu (43), hipuynac, hume, hura (44), hori, hura, hume, hitzic (46), hizcunde, hitzeguin, holocaustoric (49), herituco (51), bonragarria (52) hizcho, humildadez (53), honretan, desbonragarri (56)...

Testuen artean ezberdintasunen bat dagoen arren, maileguak (*honra, holocausto...*), erakusleak eta hitz jakinen bat (*bitz, hume*) <h>az idazten ditu, salbuespen gutxirekin. Maileguak oraingoz alde batera utzita, antzeratsu dabil HH-an, baina are salbuespen gutxiagorekin; erakusleetarako ematen dudan banaketa (*au / hori, hura / orren, aren...*) erabat zorrotz betetzen du:

bitza «palabra», *bitzaburra* «epílogo», *bitzaldaira* «hypérbaton», *bitzaldia* «plática», *bitzartea* «interlocución», *bitzaurrea* «prólogo», *bitzeguin* «hablar», *bitzontzia*, *hizjarioa* «hablador», *hizqueta* «conversación», *hizquindea* «retórica», *hizcuntza* «lengua», *hiztarra* «verbal»...

humea «chico», *humealdia* «camada», *humbichia* «ahijado», *humequiña* «prolífico», *humequita* «procreación», *humequeria* «caduquez», *humequia* «feto», *humelqui* «parir», *humerrria* «cabrita» / *umerria* «cordero», *humechoa* «cachorro», *humezurtza* «huérphano»...

au «éste», *ona* «acá», *onen* «(a) vista de esto».

hori «éссе», *orren* «respecto de esso».

hura «aquél», *aren* «su».

Halaz ere, LET-n batzuetan bezala (cf. *bibotzarequico, zubur, obore, ibeslecu...*) HH-an badira <h>z idatzitako —zuzen idatzitako— bestelako hitzak ere, Iparraldeko idazkerari batzuetan amore eman ziolako seinale. Adibide gutxi batzuk baino ez:

Bokal artean: *abalquea* «confusión», *abalcatu* «avergonzar. *abanci* «desacordarse». *abaranza* «conversación». *bebatu* «acechar». *ebortzi, obortzi* «sepultar». *ibaquina* «remedo». *ibardetsi* «responder». *ibarrosi* «sacudir». *liboa* «lino». *nihola, niholaz* «(de ninguna) manera». *nibon* «(en ningún) lugar». *nibor* «ninguno». *obatzeta* «nido». *oboratu* «honrar», *oborea* «honor». *sebia* «doméstico». *uberritu* «menear». *ubiña* «ola». *zubaina* «forrage». *zubaitza* «árbol». *zubirindu* «concomerse». *zurra, ziburra* «prudente».

Hitz hasieran: *babea* «coluna». *baguna* «espuma». *balsarrac* «entrañas». *bastandu* «disgustar». *batseman* «abahar». *hauzua* «lícito». *hebaina* «flaco». *bedea* «correa». *herra* «odio». *heuraguia* «verisimilitud». *beiagora*

«alarido». *bigatu* «gastar». *biguingarria* «desagradable». *bil* «fenecer, morir». *hildoa* «surco». *hobena* «crimen». *hoguena* «pecado». *hostatu* «(llenarse de) hoja». *budigoa* «enemistad». *humoa* «maduro». *hunquitu* «acertar, tirando algo».

<h> egotea, beraz, Iparraldeko iturri baten aztarna izan daiteke, *Erans*-ean Axularrengandik (*bobatu* «arranciarse el tocino», *bobenduria* «culpado»...; cf. Mitxelena 1970: 62 eta 77) edo Harrietengandik (*baizugoa* «permisión», *hazbeguiac* «facciones»; cf. Lakarra 1991: 240 eta 230-231) hartutako hitz zenbaitek erakusten dituzten legez.

Salbuespen gutxirekin, ordea, hauek eta honelakoak aldizka bakarrik agertzen dira <h>z idatzita, eta baliteke Iparraldeko hitzen batzuk beti ere gabe agertzea, *Erans*-eko iturri ezaguneko zenbait bezalaxe (*ambatic ambatean* «caeteris paribus» < *hanbatic hanbatean* Ax G Gero 552; *obecuntzac* «mejoras» < *hobequñçac* Ht FE 384); hona hautagai batzuk:

bearria «oreja». *beaztopa* «tropezón». *beeratzapena* «abatimiento». *erabea* «vergüenza». *erstura* «apuro». *leyatuqui* «aprisa». *meachatu* «amenazar». *noarroina* «mendigo».

Derradan, azkenik, *erbia* «dedo» eta *inhurria* «calambre» bakarrik aurkitu ditudala, besteren bat egotea litekeen arren, Iparraldeko testuetan aurki zitezakeen <h>dun kontsonante-talde zein digrafoetatik; cf. ordea:

burezurra «calavera». *matela* «carrillo». *oroitu* «acordarse». *unatu* «cansar». *cileguia* «permitido». *zocoa* «rincón»...

Bestalde, ez dirudi HH-an *hume* ezagunetik kanpo ahoskerari zor ez zaion <h>-rik dagoenik oro har. Bakan batzuetan, dena dela, lekuz kanpo edo soberan aurkitzen da, hiztegitikaren zein inprimatzailearen erruz, baina oharkabea, nolana ere:

basta maiza «alcandia» (cf. *astagarbanzua* «astrágalo», *astailarra* «aphaca», *astacañabera* «cañaheja», *astalbaca* «albahaca silvestre»...).

biaute «(domingo de) carnestolendas» (cf. *iauteriac* «carnestolendas»).

Maileguei dagokienez, euskal etimologiaren eraginez <h>rik ez dutenak asko dira; hona HA-HE zatian aurkitu ditudanak:

aberia «habería». *acendatu* «hacendar», *aciendachoa* «hacendilla», *acienda* «hacienda». *abrolla* «hadrolla». *aiz* «haiz». *arpa* «harpa». *arpeoa* «harpeo». *arpillera* «harpillera». *arpoya* «harpón». *arpia* «harpya». *ebilla* «hebilla». *embra* «hembra». *eraldetarra*, *eraldearra* «heráldico», *eraldoa* «heraldo». *eritu* «herir». *errementaria* «herramental», *erremienta* «herramienta». *erbera* «hervero».

Hiru salbuespen aurkitu ditut, bi oso, haietako bat lapurteraren idazkeraren eraginez, eta bat erdizkakoa, eratorri guztiak <h> gabe agertzen dira eta:

batua «hato» («de el Bascuence Labortano»).

hazaña, *azaña* «hazaña», *azañeria* «hazañería», *azañaria* «hazañero», *azañosquiro* «hazañosamente», *azañotsua* «hazañoso».

heregea «herege», *heregia* «heregia», *heregetzarra* «herejote».

Egia esan, ia ez da etimologiarik ez daukan mailegurik *HH*-ko <h> letran; diren apurretan, dena dela, badirudi <h> galtzeko joera handia dela, letra honetatik kanpora bestela ager badaiteke ere:

abitua «hábito», baina *habitua* «mongil». *arre* «harre». *echura* «hechura». *olanda* «holanda», *olandilla* «holandilla». *orchata* «horchata».

Eta gorde, hitzik arraro edota jasoenetan bakarrik gorde dela (erregaratu kontsonante arteko <y>ren mantenketari ere):

halifa «halifa». *harmonia* «harmonía». *hebreoarra*, *hebreotarra* «hebraico». *Herculesarra* «hercúleo». *hyblatarra* «hybleo». *hiena* «hyena». *hysopoa* «hysop».

4.14. <ll>, <il>, <ill>

Joera <ll> erabiltzea da, guttiz bokal artean, baina baita hitz hasierako kasu bakanetan, eta batzuetan hitz bukaeran ere:

LET: *illunac* (16), *illargui* (19), *otzaillaren* [sic] (19), *dabill* (21), *saill*, *isill*, *ibilli*, *naspillatic* (22), *billa*, *dabillenean* (24), *illun*, *nabillela* (25), *balleracoac*, *sallari*, *isillic* (26), *dedilla*, *milla*, *Erabilli* (29), *dollor* (30), *naspillac* (31), *cedilla*, *billatu* (32), *erabilliaz*, *llilluramenduac* (33), *erabilli*, *saill*, *naspillai* (34), *ereille*, *soilla*, *milla* (35), *erabilliaz*, *billatu*, *gendalla* (36), *saill*, *soilla* (39), *iraillean*, *ill* (44), *batallaren* (47), *gaitzguillea* (48), *dollorqueria*, *criatzallea* (49), *eralle* (50)...

Dena dela, bukaeran sarritan <l> besterik ez dakusgu: *LET Hil* (17), *nabil* (25), *mutil* (30), *dabil*, *nabil* (39). Idazlanetako banaketa berbera idorotzen dugu *HH*-an, *saill* beti honela idazteko joera ere barne:

ballera «cofradía». *billa* «busca», *billatu* «buscar». *dabil* «corre, que» / *dabillena* «fugitivo». *dollorra* «bellaco». *erabilli* «menear» / *erabiltea* «coleo». *erallea* «assassino». *ereillea* «sembrador». *gendalla* «gentalla». *ibilli* «andar» / *ibiltea* «bamboleo». *illuna* «oscuro». *isil* «(punto en boca)», *isildu* «callar» / *isilla* «callado». *llillura* «fascinación», *llilluratu* «fascinar». *milla* «mil». *naspilla* «enredo» / *naspildu* «intrincar». *otsailla* «febrero». *saill* «almacigado», *sailla* «tablar» / *saildu* «tablear». *soil*, *soilla* «sollozo» (etim.), *soill*, *soilla* «solo», *soillic* «sólo». *cedilla* «absolutamente».

Azpimarra daiteke <ill> grafia <ll>ren ordeztu oso bakana dela hiztegian, eta beti ere jadanik Iparraldean ongi lekukotutako hitzetan agertzen dela; halaz ere, <ll> ere emateko joera agerian dago:

beilla «velación», *beillan* «velar», *beilla eguin* «velar a un difunto» / *bella eguin* «trasnochar», *bella* «vela», *bellan* «(en) vela» (*beilla* 1571). *paillarta* «fornicador» (*paillart* 1571). *tallua*, *taillua* «estatura» (*thailu* 1571).

Salbuespen bat egin behar dugu: hitz elkartuak, non batzuetan behintzat lehenengo osagaiaren <-l> bukaera gorde egin duen, bokal artean geratu arren:

ileuna / *illoyala* «mortaja», *ilezcorra* «immortal», *biloea* «féretro». *isilaraci*, *isilerazo* «acallar», *isileraguillea* «acallador».

Gainerantzean, beraz, bokal artean <ll>rik ez dagoenean, ziurtzat eman dezakegu bestelako ahoskapearen (cf. *cincilica*, LET 32) edota bestelako tradizio idatzi baten aurrean gaudela:

biloa «pelo». *biloba* «biznieto». *biluza* «desnudo». *dilindaca* «colgar». *dilista* «lenteja». *ilintia* «tizón», *ilinchá* «tizo». *quilia*, *quilica*, *quilmela* «cosquillas». *cila* «ombligo». *cilatu* «agujerar». *cileguia* «permitido».

Batzuetan bi tradizioetako —bi ahoskeretako— formak elkarrekin bilduta aurkitzen ditugu, dena dela:

bilauna, *billaua* «villano». *illarguia*, *ilarguia* «luna». *illarra*, *ilarra* «alverja». *ilea*, *ulea*, *illea* «vello». *illuma*, *iluna* «lóbrego».

4.15. <ñ>, <iñ>, <in>

Sudurkariaren kontua korapilotsuxeagoa da. Berez, bustidura markatzeko ohiko grafema <ñ> hutsa da, bokal artean beti eta hitz bukaeran zalantzaz (baina albokarian baino nahikoa maizago), hitz barruko inposiboan markatzen ez den bitartean (cf. *ainbeste*, *jaquintsu*):⁷⁴

LET: *carmiñez*, *jaquiñez*, *baña*, *urdiñ*, *ciquiñac* (14), *baño* (17), *Españarren*, *fiñ* (18), *Españan* (20), *latiñezco*, *aiñ*, *iñor*, *iñarrusi* (21), *iñon*, *baña*, *aiñ*, *oñen*, *beiñ*, *Españian* (22), *ciquiñ*, *berdiñ* (23), *baña*, *jaquiñezac* (25), *ain*, *ecin*, *Españian*, *españiar*, *min* (26), *iñori* (30), *iñoiz*, *baña*, *alabañan*, *miñena* (31), *baña*, *Madridaño*, *iñon*, *eguiñen* (32), *jaquiñ* (33), *baña*, *aiñ*, *ain*, *mingañari*, *baño*, *bezaiñ*, *bañan*, *equiñaz* (34), *baña*, *siñis*, *Alabañan*, *diña*, *eciñ*, *beiñ*, *Latiñera*, *beiñ* (35), *Españar*, *anciñacoen*, *fiñena*, *Latiñetic*, *baña*, *bezaiñ*, *baño*, *jaquiñac*, *jaquiñezen*, *jaquintsuac* (36), *jaquiñ*, *beiñ* (37), *anciñaco*, *Virgiñari* (38), *labaiña*, *ainbeste*, *eguin*, *gueiagoraño*, *ain* (39)...

Dirudienez, *aiñ* / *ain*, *beiñ* edo *bezaiñ* hitzetan ez bezala, *gain*, *orain* eta *cein*-en bederen zalantzak izaten ditu berezko *i* jaso ala ez:

LET: *gañean* (14), *gañeracoa* (18), *gañez*, *gañera* (34), *gaiñ* (35). *oraño* (20), *orañago* (31), *oraiñ* (34), *oraiñ* (37). *edoceñec* (14), *ceñaren* (18), *ceñen* (31), *ceña* (32), *ceiñ*, *ceñean*, *ceñetan* (34), *ceñean* (35), *ceña*, *cein* (36), *ceñean* (37).

⁷⁴ Bada *ancinaco* bat (LET 18 = Larramendi 1729: 391) ohiko *anciña*-ren ordez, baina baliteke denok erabiltzen dugun faksimilearen akatsa izatea: nire alean behinik behin, <n>aren gainean makiltxoaren aztarnatzat har daitekeen zikintxo bat dago. Jatorrizkoan egiaztatu beharko da, beraz.

Hiztegiko grafia oraindik argiagoa da; honako hitz guztiotan <BñB> vs <n#> banaketa berresten da:

ainbeste «tanto como». *baña* «pero». *baño* «antes que». *berdin* «igualmente» / *berdiña* «igual». *virgiña* «virgen» / *virgintasuna* «virginidad». *diña* «digno». *equin* «exercer» / *equiña* «oficial». *fiña* «fino». *iñarrusi* «sacudir». *jaquin* «saber» / *jaquiña* «sabido». *latiña* «latín» / *latindu* «latinizar». *ciquin* «puerco, sucio» / *ciquiña* «sucio».

Eta ondokoetan, salbuespenen bat egon arren, agerraldi gehienak aipatu banaketaren alde daude; salbuespenetatik batzuk, gainera, sarrera berean agertzen dira, aldatzat emanak, albokarian bezala:

anciña «antiguamente», *anciña*, *ancina* «ancianidad» (etim.). *eguin* «hazer», *eguiñ* «(hazer) figuras», *eguiña* «hecho». *ecin* «impossible», *eciñ* «aguantar», *eciña* «impotencia». *iñor*, *inor* «nadie». *jaquiñez* «ignorante», *jaquinez* «lego». *miñ*, *min* «doler», *miña*, *samiña*, *mina*, *samina* «amargo». *urdiña*, *urdina* «azul», *urdiña* «canas», *urdin* «acaparrosado», *urdiñ* «lapislázuli».

Beheranzko diptongoetan banaketa normala <BñB> vs <in#> edo <iñ#> da, hots, <i> inplosiboan bakarrik azaleratzen da, eta salbuespenak oso-oso gutxi dira; gainera <in#>ren adibideak hitz guztietan gehiago izaten dira <#iñ#>renak baino:

ain, *aiñ* «tan». *bein* «(una) vez», *beñ* «(en fin, por) abreviar». *bezain* «claro como el agua». *labaña* «resbaladizo», *labaiña* «soflamero». *mingaña* «lengua» / *mingaingabea* «deslenguado», *mingainchoa* «lengüecilla». *oin* «(de) puntillas», *oiñ* «(a pie) enxuto», *oña* «pie». *orain* «ahora», *oraiñ* «acabar de venir», *orañago* «poco ha», *oraño* «hasta ahora», *oraiño* «(hasta) aquí».

Halaz ere, ustekaberen bat badugu: *carmina* «amargo» idazten du *HH*-an, eta *siñistu* «creer» eta eratorrien aldamenen (*siñisgarria* «creíble», *siñisguea* «descreído»...), *sinistu* «persuadirse» eta eratorriak (*sinisegarria* «apócrifho», *sinisgarria* «credibilidad», *sinisquizuna* «creíble», *siniscoya* «crédulo», *sinistea* «creencia»...) gehiago dira. Badirudi, beraz, albokarian bezala hemen ere beste tradizio baten —edota beste ahoskera baten— aztarnak daudela:

baña, *bañan*, *bainan* «pero». *dañua*, *dainua* «daño». *fuinac* «seso(s)». *guina-rreba* «suegro». *queinatu* «amagar». *leinua* «alcuña» vs *leñu* «cabeza de linage». *mainada* «familia». *maina*, *mahaina* «mesa». *ninia* «niña», *ninicatu* «brotar». *soiña*, *soina* «hombro» vs *soñean* «acuestas», *soñecoa* «vestido».

Beste era bateko salbuespenak dira mailegu ez iruntsiak, noski, *quina* «quina» edo *pinua* «pino» bezalakoak.

4.16. <mp>, <mb>

1821 arte ez zen zalantzan jarri gaztelaniaz bezala euskaraz ere eta <p> aurrean nahitaez <m> idatzi behar zela (Urgell 1987a: 368-369). Larramendi, jakina, usadio horri zeharo atxikia dakusgu:

LET: *gambara*, *illumbean* (14), *aimbat*, *ceimbat* (17), *lembicico*, *aimbeste* (22), *Alambere* (24), *aimbeste*, *pimpilimpausa* (26), *lembicicoa* (27), *barrumbeari*, *ceibat*, *lembicico*, *nombait* (34), *jaquimbidea* (35), *lembician* (36), *gaimburuco* (82).

HH: *aimbat*, *ambat*, *aimbeste*, *ambeste* «tanto, tanta». *alambere* «obstante». *barrumbea* «albergue». *gaimparatu* «sobreponer». *gambara* «desván», «quarto de casa». *illumbean* «(a) obscuras». *lembician* «primeramente», *lembicicoa* «primero». *nombait* «(en algún) lugar». *pimpoila* «grano». *pimpaleta* «barrena». *pimporta* «grano, en la cara». *ceibat* «quánto».

Nahiz HH-ko agerraldi guztiak begiratu ez, ez eta gutxiagorik ere, <nb> pare bat aurkitu ahal izan dut; honek berresten ditu LET-eko salbuespenak, batzuk behinik behin, hasiera batean argitalpenaren akatsak zirelakoan banengoen ere:

LET: *minberacor* (34), *ainbeste* (39), *minberaatu* (52), *lenbician* (77), *ainbeste* (79).

HH: *jaquimbidea* «catecismo, libro». *minberatu* «desparse» / *mimberatua* «dolorido». Cf. *mimbiciaz* «encancerarse» vs. *min bicia* «cáncer», *min biciz* «canceroso».

Bistan da inoiz edo behin Larramendik bestetan ere darabilen idazkera etimologizaleari amore eman diola honelakoetan.

4.17. <lz>, <nz>, <ltz>, <ntz>

Larramendik ozen ondoan frikaria jasotzeko halako joera bat dauka, idatzi batzuetan bestetan baino gehiago; zehazkiago, Mendibururi egindako gutunean (1747; LET 33-37. or.) ia beti frikaria ematen du; hein txikiagoan, halako zerbait antzematen da Azkoitiko sermoian ere (1737; LET 44-57).⁷⁵ Salbuespen argi modura, *-tztat* atzizkia bakarrik aipa daiteke:

LET: *cebiltzan* (14), *ausartzi* (18), *carsu*, *ausartziac* (20), *bizcuntza* (21), *hitzontziac*, *isiltzeco*, *bizcuntza*, *antza*, *bizcuntzetatic* (22), *bizcuntza*, *artzen* (26), *dabiltzan* (30), *dabiltzan*, *cebiltzan* (31), *biltzeco*, *biltzen*, *auciabarzac* (32), *zabiltzala*, *bizcuntzari* (33), *darabilzu*, *dabiltzan*, *bizcuntza*, *Euscaltzentzat* (34), *hilcen*, *eztabilza*, *badabilza*, *ansi*, *enzunle*, *Euscaldunentzat*, *bizcunzan*, *bizcunza*, *enzule*, *bulzaca*, *ayentzat*, *minzoa* (35), *bizcuntza*, *gal-tzen*, *anciñacoen*, *aguertzeco*, *cintzo*, *jaquintsuac* (36), *darabilzun*, *mintzo*, *artzeco* (37), *anciñaco*, *bizcuntzac* (38), *Franciac*, *Galtzeco*, *elzartu*, *ortz*, *antza* (39), *alabanza* (41), *arzaz*, *alabantzac* (42), *balanza* (44), *cecartzien*, *guentzan*, *Eranzungo* (45), *zabiltza* (46), *bostorzatu* (48), *anza* (49), *aran-zetan*, *dacarciten* (50), *preciatuenzat* (74), *ancecoa* (76).

⁷⁵ Ez dirudi data kontua denik: gramatikari (1729; 13-20. or.), hiztegiko hitzaurrean (1745; 21-24. or.), *Corografía*-n (1754; 25-27. or.) eta *Sobre los Fueros...*-en (~1757) ia dena afrikatua da; paretsuan dabil-tza frikari eta afrikatuak Gandararen gutunean (1763; 38-40. or.), etab.

HH-an idatzietan hartutako hitz berak aztertuaz, bost talde egin daitezke: (1) beti afrikatua daukatenak, (2) afrikatua nagusi, (3) biak paretsuan, (4) beti frikaria, eta (5) frikaria nagusi:

- (1) *agertzen* «registro de las mercaderías». *auciabatza* «pendencia». *biltzea* «acceso», *biltzen* «(iglesia) cathólica». *bostortzatu* «arar con el bostortz». *dabiltza* «(están jugando a la) pelota», *dabiltzanac* «andante». *darabiltza*, *darabiltzi* «abusar», *darabiltzute* «qué hazeis, cathólicos?». *galtzea* «pérdida». *hitzontzia* «hablador». *hizcuntza* «lengua». *jaquintsua* «docto».
- (2) *artzeoa* «(tener que) aver», *arzen* «abortar». *ausartzia* «determinación», *ausarcia* «atrevimiento». *bultzaca* «(a) empujones», *bulzaca* «(a) empe-llones». *dacartzi* «administrar», *dacartzien* «clavera», *dacarzu* «(esto) apesta». *biltzen* «apique está de», *biltzer* «agonizar», *ilcer* «moribundo». *mintzoa* «habla», *minzoa* «acentuar en lo hablado». *ortza* «diente», *ortza-tua* «dentado», *orzaz* «abocar». *cintzoa* «ábil», *cintzoro* «mañosamente», *cinzoro* «ábilmente».
- (3) *antza* «semejanza», *anza* «assimilar».
- (4) *alabanza* «alabanza». *anciña* «antiguamente». *aranza* «espina». *arraz* «(me) valgo de tí». *balanza* «balanza». *eranzun* «responder».
- (5) *ansia* «ansia», *antsia* «cuidado». *enzule* «abad», *enzun* «oir», *entzun* «escuchar», *entzunlea* «oyente».

Dakusgunez, joera nagusia afrikatuak jasotzea da, guztiz aditizenetan (*agertzen*, *biltzea*...) eta adizkietan (*dabiltza*...), hala nola atzizki jakinetan (*hizcuntza*, *jaquintsua*...). Hala eta guztiz ere, hitz batzuetan aurkako joera dugu, batzuetan etimologiadunak (*alabanza*, *anciña*, *ansia*) edo maileguak (*balanza*) izateagatik, edo atzizki jakinekoak (*arraz*). Bestelako azalpena behar dute, agerian denez, *enzun* / *eranzun* ia sistematikoek.

4.18. <sK>

Larramendiren idatzietan, argitalpena fidagarria baldin bada, bi txistukariak bata bestearen truk ager daitezke inplisiboan leherkari aurrean: *LET escutagai* (18), *eztali* (30), *estueta* (36), *Euzquerearen* (39), *gustioc* (40). HH-an ere joera horren adibideak kausitzen ditugu, baina esan behar da gehienetan agerraldi bakanak direla jatorrizko txistukaria daukatenen aurrean; ezaxola pixka bat izan liteke, beraz, baina nagusiki <s> <z>ren ordeztu dago:

escontza «maridage», *ezcontzaidegoa*, *escontzazco* «afinidad», *escontzaidac* «afines assí», *escontzen* «capital». *escozuia* «hacha», *escozuilea* «hachero» / *ezcozuicada* «hachazo», *ezcozuichoa* «hacheta». *espata* «(espada en) cinta». *esta* [= 'ez da'] «(esso no tiene...) hechura», «salutación angélica». *estarriaz* «guturalmente». *estena* «punzón», *estichoa* «dulcecito». *ezcuztatu* «tratar, tocar algo con las manos», *ezcuztatua* «tratado».

Alabaina, gehienetan hitzak «zuzen» jasota daude; cf., adibidez:

ezcalu «garapita», *ezcalua* «bermejuela», *ezcallu* «xaramugo». *ezcata* «escama». *ezquela* «bisojo».

Aldaera zenbait elkarrekin edota pareko maiztasunez agertzea, beraz, belarria irmo izan zuelako seinale izan daiteke: *ezcaratza* «cocina», *escaraza* «portal», «zaguán»; *esquilla*, *ezquilla* «campana». Batzuetan aldaera «nagusia» agerraldi nagusiko familian agertzen da, eta bestea, berriz, gutxi-asko sakabanatuta:

ezpartzua «esparto», *ezpartaria* «espartero», *ezpartzuaga* «espartizal»... / *esparzua* «atocha, esparto», *esparzuaga* «atochal», *esparzuzco* «alpargata», *espartzuzco* «lía»...

Antzera gertatzen zaigu *esne* / *ezne* bikotearekin:

eznea «leche», *ezne-saltzalea* «lechero», *eznabelarra* «lechetrezna» / *esnezcoa* «lácteo», *esnajaquiac* «lácteos», *esnacraca* «lactumen», *esnabidea* «Vía Láctea».

5. Mugatzailea eta hitz bukaerako hiatokak

Euskal zatia arakatzen hasi orduko nabaria izan zen mugatzailea eta hitz bukaerako hiatokak arazotsu suerta zitezkeela, baina arazoaren benetako sakonera ene tesiaren III. ataleko corpus trinkoa —euskarazko A letra— aztertu arte ez zen agertu (Urgell 2000). Izan ere, hitzez hitz aritzean batzuetan erraza zirudien forma mugagabea erabakitzeak, dela familiako beste hitzen, dela bestelako lekukotasunen laguntzaz; maizegi, ordea, datuek elkar gezurtatzen zuten, edota ez zegoen euskarri argirik. Arazoa orokorrean konpondu ezean, hainbat hitzen forma mugagabea kolokan gertzen zen, baita haietatik ateratako elkartu-eratorrietako balizko hots-aldaketak ere. Honegatik, bi gai hauek aurretiaz lantzea erabaki nuen, berez aipatutako corpusean Larramendiren iturriak eta sorbideak arakatzearen ondorio izan arren, aldi berean han egiten diren baieztapen eta ateratzen diren ondorio askoren oinarrian baitaude eta baliatuko baitzaizkio —halaxe espero dut, behintzat— *HH*-ko beste edozein corpus mota aztertuko duenari. Alabaina, lanaren kronologiari egiten diodan iruzur ttiki honek nahitaez eskatzen du han bakarrik behar bezain egoki argudiatu ditudan hipotesi batzuk onartzea; hipotesi hauek bai orokorki *HH*-an erabili diren iturri edo sorbideei, baita hitz jakin zenbaiten etorki edo eraketari dagozkie. Bigarren motakoetan ezinbestean lan hartara bidali behar dudana bitartean, zilegi bekiz lehenengoak azaltzea, gaingiroki baino ez bada ere.

Lehenik eta behin, jakintzat emango dut Larramendik *HH*-an ahozko hitzak ere —eta ugari— jaso zituela, herrietan egin zituen galdeketen ondorioz (Larramendi 1745: lii-liiii; R. M. Pagola 1992) eta, gainera, hitzok ez direla nahitaez gipuzkerazkoak, are gutxiago hiztegi-gilearen jaioterrikoak, hizkera eta euskalki ezberdinetakoak baizik (Urgell 2000: III, § 12).

Bigarrenik, jakintzat emango dut literatura (hiztegiak barne) iturri garrantzitsua izan zela, eta *HH* osatzeko hitzaurrean aipatzen dituen liburuak oro hustu zituela. Iparraldeko liburuetatik ekarpena bereziki handia eta nabarmena da, baina izenak ematekotan, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Harriet eta Landucci behinik

behin *HH*-aren iturri ziurrak dira dagoeneko, nahiz azken hirurak *Erans*-ean ere agertu (Urgell 2000: III, §§ 9 eta 10; Urgell 2003).

Hirugarrenik, jakintzat emango dut gertakari zenbait halabeharrezkoak direla —hots, Larramendik nola jaso hala transkribatutakoak—, baina beste zenbait sistematikoak direla, hau da, delako fenomeno bati eman zion interpretazio eta hedaduraren ondorio; bestela esanda, Larramendi batzuetan lekuko huts izango dugu, eta besteran materiala lantzen ere jakin zuen hizkuntzalari modura azalduko zaigu.

Ildo honetatik, eta laugarrenik, jakintzat emango dut elkartu-eratorri asko Larramendik eginak direla, euskarari buruz zekiena profitatuaz hizkuntza berez aberasteko asmoz; halaber, hitz berriok edozein iturritako materialaren berranalisiaren ondorio direla, hitzak ez eze, hitz berrietarako gaiak ere —oinarriak, atzizkiak zein elkarbi-deak— erdiesten saiatu baitzen eta, hortaz, hitz eraketan jokarazi zituen arauak, nahiz maiz ezezagunak izan eta batzuetan harrigarriak iruditu, beti ere trinkoak direla, eta eskurakoak (Urgell 2000: III, §§ 2, 3, 4 eta 5).

Eta, azkenik, jakintzat emango dut euskarari buruzko berri bila landu zituen materialen artean erdal hitzen euskal etimologiak eta toponimia-antroponimia ere sartzen direla, eta azterketa haren ondorioz arlo hauetako hitzak, atzizkiak eta egiturak oro har bere egin zituela (Urgell 2000: III, §§ 6 eta 8)

Premisa hauen gainean bakarrik uler daitezke alor honetan aurkituko ditugun gertakari ñabarrak. Arazoa ez litzateke hain larria izango, demagun, gipuzkera hutsezko hiztegi baten aurrean bageunde, zeren eta ziurrenik hitz ezezagun gutxi batzuetan bakarrik izango baikenuke zalantzako motiborik. Baina, izan ere, euskalki bat baino gehiagotako eta hizkera bat baino gehiagotako informazioa biltzen duen hiztegi bat aztertzen ari gara: hitzek berezko *-a* galdu duten eta galdu ez duteneko hizkerak, eta hitz bukaerako hiatoei zeinek bere irtenbidea eman dioten hizkerak islatuta daude *HH*-an. Halaz ere, ez *HH*-ak gehienetan laguntzarik eskaintzen du, ez hiztegi-gileak bildutako datuak beti zuzen ulertu zituela esateko ziurtasunik ere dugu: maiztasun ezberdineko gertakari multzo bat baino ez. Nahiz kasu guztietan behin betiko ebazpenik emateko ahalbiderik izan ez, orokorrean gauzak nola dauden ikusi ahalko dugu, gero hartu beharreko erabakien lagungarri. Esan gabe doa, bide-nabar, grafia xeheki aztertu ondoren hemendik aurrera *HH*-ko euskal hitzak gaurko eran letraldutako ditudala, behar den bezala, non eta alderantziz egiteko arrazoi berezirik ez dagoen.

5.1. Berezko *-a*?

HH-ak puntu bereziki ahul bat dauka: edonor zoratzeko moduko *-a* itsatsiarekiko nahaste-borraste izugarria. Espero ez dugun hitzetan agertzen da, eta espero dugunetan ez. Jakina, Larramendik faktore ezagun bat baino gehiago zituen bere kontra: jatorriz gipuzkoarra izatea (Mitxelena 1977a: 131-132)⁷⁶ eta ezagutzen ez zituen

⁷⁶ *HH* galeraren lehendabiziko lekukotasun handia bide dugu, zeren eta ez Otxoak, ez Irazutzak jasotzen baitute oro har; Lakarra 1984an, begirada arin batean, honakoak aurkitu ditut: *eleizaco* (Iraz 40), *eleiza santa* (OA 3), *gauzaric* (Iraz 6, OA 47), *importantciaric* (OA 129), *justiciaco* (OA 137), *concientiacio* (OA 134), *legamia baguico* (OA 45).

hitzetan asmatzen ibili beharra, besteak beste. Gauza guztiak ez daude behar bezain argi, gainera; cf., adibidez, Mitxelena *aldia*-z esana:

Es un tanto desconcertante el empleo de *aldia*, por *aldi* 'vez, etc.' en autores guipuzcoanos, ya desde O. de Arin. Con todo, Ax[ular] 63 tiene *aldia batez*, que puede no ser errata, ya que se repite en la 2ª ed., como acaba de señalar Villasante, *Gero, Jakin, Arantzazu*, 1976, p. 48. (Mitxelena 1977a: 500).

Honi erantsi behar zaio hitz askoren beste lekukotasun bakarra, Azkueren hiztegia, ez dela oso fidagarria, nik uste, egileak zalantzazko kasuetan *-a* kentzeko joera nabarmena baitauka; cf., adibidez, Ax. 215 *albenia* (*oibalaren albenia eta bazterra*) vs Azk. *albeni* (cf. gazt. *albenda*). Berberera jo du sarritan *OEH*-ak ere, nahiz honena alde barkagarriago izan, Larramendiren hitz batzuekin itsuka aritu beharra izan baitu, hala nola *arpetz* hautatzean, *-tza* atzizkiduna bada ere (cf. *arpetza* «declaración» edo *arpetze* «interpretación» < *arpeztu* «declarar», «interpretar»); baina sarri mailegu argietan ere huts egin du: *aberi* «avería», *angurri* «angurria», *arlantx* «lancha» eta *albeni* bera, alderantziz *alabea* «alabe», batzuetan lekukotasun berriagoei akritikoki jarraiki.⁷⁷

Dakigunez, berez *HH*-ak forma mugatua bakarrik ematen du (§ 1.1), baina ordain perifrastikoez, esapide edota adibideek hitz batzuen forma mugagabea eskaintzen dute, Arakistainek esan bezala; bestela, elkartu-eratorrietan aurki daitekeela dirudi, hasiera batean behinik behin. Halaz ere, hitz mordoxka batean *HH*-ak ematen dizkigun datuak zalantzazkoak dira edo, are sarriago, elkarren aurka datoz:

a) *-ia*-z amaitzen diren hitz zenbaitetan *-i* mugagabea aurkitzea espero genezake (Mitxelena 1977a: 131): *abi(a)* «nido»-tik *abikaiztu* «desanidar», *artegi(a)* «redargución»-tik (< *egia*) *artegitu* «redargüir», *azkai(a)* «caspa»-tik (cf. *ezkabia*) *azkaiitsu* «casposo». Bitariko eraginak aurkezten dituzte, aldiz, *aitzaki(a)*-k (*aitzakiagarri* «disculpable», *aitzakiatu* «disculpar», «excusar» vs *aitzakigarri* «excusable», *aitzakiezgarri* «inexcusable»), *antsi(a)*-k (*antsiarik* «dársele...», *antsiakiro* «congojosamente», *antsiati* «congojoso»... vs *ansidun* «importante», *ansikabe* «ansia», *antsikaitz* «desahogo»...) eta *ai(a)*-k (*aia mota bat* «alica» vs *ailoizoki* «puchada»).

b) Berbera gertatzen da *-a* gabekoak izan litezkeen zenbait hitzekin: *aldi(a)*-tik *anitz aldiz* «(muchas) veces», *alditsu* «avenado»... baina *aldia batean* «assentada», *aldiako* «barco de la vez», *aldiadun* «atreguado»...; *alsti(a)* «hilacha»-tik (Azk. *alsti*, baina cf. gorago esana) *alstiatu* «motear el paño» baina *alsiki* «lechino»; *abodi(a)* «canales»-tik (< *odi(a)*) *abodiatu* «acanalarr»; *araldi(a)* «chacota»-tik (< *aldi(a)*) *araldiaka* «chacotear» baina *araldizale* «chacotero»; *artzi(a)* «raridad»-tik (cf. *hartzi* L, BN, S ap. Azk) *artziatu* «enrarecer»; *azti(a)* «adivino»-tik *aztiatu* «adivinar» (Azkuek jasoa) eta *aztin(a)* «adivino»-tik *aztinatu* «agorar».

⁷⁷ *aberi*-n Lardizabal hobetsi du, Larramendi eta Etxeberri Sarakoaren lekukotasun gurtxienez zalantzazkoak aintzat hartu gabe; *angurri*-n XX. mendeko idazle pare bat (Bingen Amezaga eta Txillardegí). Ezberdina da *abi*-ren kasua, nahita (eta jakinaren gainean, espero dut) *-a* gabeko forma aukeratu baita euskara baturako. Ez da alferrik azpimarratuko zeinek eta Larramendik *aia mota bat* idatzi zuela.

c) *abakoa* «parentesco» nola ulertu zuen jakiteko modurik ez dugu; cf., oster, *aino(a)* «añublo»-tik *ainoatu* «anieblarse», baina *arrazko(a)* «adufe», «atabal»-tik *arrazkoalari* «adufero» vs *arrazkodun* «atabalero».

d) Txistukari bukaerako hitzetan ez dugu ziurtasun handiagorik aurkitzen: *-a* ziurra dutenetatik *arraultza-k* *arraultza-kosko* «cascarón», *arraultzatxo* «huevecico» baina *arraultz oliozartuak* «(huevos) estrellados» edo *arraultz gisako* «aovado» bezalako gauzak ditu; *aranza-k* *aranzadi* «espinar», *aranzatu* «espinar, punzar»... baina *aranzdun* «espinoso».

e) *-a* gabekoetan alderantziz doaz kontuak batzuetan: *aitz-etik aizkorri* «zancarrón», *aitzxori* «bahari» edo *aitzzar* «peñón» dugu, baina baita *aitzadi* «peñascal» eta *aitzagaineke* «bancal» ere; *arrotz-etik arrotzain* «hospedero» (< *zain*) baina *arrotzatu* «extrañar»; *artz-tik artzakume* «ossesno»; *atz-etik atzagiltza* «nudillo», *atzakeria* «rascadura»... baina *azka* «(a) tiento»...; *antz-etik antzeko* «parecido», *anzdun* «semejante» baina *anzako* «aguileño», *anzaera* «apapagayado», *antzakabe* «tosco»... Nola ulertu, beraz, hitz berria den *arutsa* «pausa», *arutsaro* «pausadamente» baina *arusdun* «pausado», *aruska* «(a) pausas»... izanik?

f) Ozen bukaeradunetan, azkenik, bereizketa saio ez burutu zenbait aurkitzen ditugu (*adinako* «suficiente» < *adina* vs *adineko* «adulto» < *adin*, baina *adindu* «tantear» zein «templar») eta burututako baina faltsuak diruditen beste zenbait (*a(b)uldu* «enflaquecer»... < *abul* «flaco» vs *aulatu* «(poner, ponerse) insulso», *aularo* «insulsamente»... < *aula* «insulso»), betiko zalantzen aldamenen: *atzar* «dedos corvos»-tik *atzarpe* «zarpa» baina *atzarratu* «arañar», *atzapar-etik atzaparkatu* «arañar» baina *atzaparratu* «atrapar».

Gauzak honela, iturri ezberdinak izatea gertakari asko garbitzeko bidea izan daiteke. Alde batetik, iturri mota berean —literaturan, demagun— eta are iturri berean bi eratako jokabideak aurki zitezakeen (cf., adibidez, Leiz. edo Ax. *an(t)siarik* baina *an(t)sikabe*). Bestetik, hizkera kontserbatzailen arrastoeekin batera (cf. Leiz. *atxakiatu*, edo iturri ezezaguneko *arraultza-kosko*), berritzaileena ere itsats edo itzur zekiokeen (*atxaki*, *arraultz gisako*...), eta susma dezakegu bai *aitzakia bat*, *arraultza bat*, bai *aitzaki bat*, *arraultz bat* bezalako gauzak entzuteko ez zukeela Loiolatik oso urruti joan behar. Eta, azkenik, *alsiki*, *aranzadi*, *aizkorri*, *azka*, *adineko* edo *a(b)uldu* zuzenak diren heinean, iturri jakin (nahiz ez beti ezagun) batzuetatik hartuak direla pentsa daiteke, haien aldameneko *altsiatu*, *aranzdun*, *aitzadi*, *atzakeria*, *adindu* edo *aulatu* horiek beste batetik-edo diren bitartean. Niketz, bigarren taldekoen iturririk egiantzekoena Larramendi bera da: hots, zalantza askoren eta arauaz kanpoko diruditen forma askoren azpian hiztegegilearen beraren zalantzak edota badaezpadako erabakiak dautza; hau frogatzeko modua, aurkezten dituen zenbait joera azaleraztea dukegu:

1) Elkarketan, lehen osagaiaren azken bokala galtzeko joera indartsua lagun (cf. *abodi* «canales» < *abe*, *ageder* «especioso» < *agi*, *aitorgume* «penitente» < *aitorgo*, *arkaste* «arranque» < *arku*), *-a* guztiak —direnak eta ez direnak— desagertu ohi dira, eta honegatik elkartuak ez dira alde honetatik lekukotasun fidagarriak: adibidez, *-a* itsatsi ziurra duen *arratza* «atabal» hitzetik *arratzadun* «atabalero» / *arraz larru* «parche» familia dugu; beraz, *arraultza-kosko* bezalako salbuespen urriek entzunak edo irakurriak izan behar dutela deritzat.

2) Eratorpenean, ostera, oinarriaren azken bokala kentzeko joera txiki bat badago ere (cf. *argidortar* «ilustre» < *argidore* «ilustración», *asberkide* «connovicio» < *asi berri*, *adrilkada* «ladrillazo» < *adrilu*), eskuarki egonkorragoa da:

- a) *-dun* atzizkia fidagarrietakoa izan daiteke: gorago aipatu *arratzadun*-ez gainera, honen arabera Larramendiren ustetan *-a-dunak* dira *aldia* (*aldiadun* «atreguado») eta *arabia* (*arribiadun* «rabioso») ere, eta *-a* gabekoak *aitz* (*aiztun* «peñascoso»), *alosi* (*alosidun* «harmonioso»),⁷⁸ *antz* (*anzdun* «semejante») eta *aruts* (*arudun* «pausado»). Dena dela, hemen ere zalantzazko kasuren bat uzten du: *andezdun* «edematoso» (< *andeza* «edema» < *-eze*, elkartuen bigarren osagaian maiztxo gertarazten duen bisilabadunen bukaerako *-e*, *-o*, *-u* > *-a* arauarekin; cf. halaber *aderna* «pitón, cuerno que empieza a salir» (< *erne*), *arnasta* «calabriada» (< *nastu*)⁷⁹ edo *atoltxa* «tablilla de excomulgados» (< *oltxo*), eta ik. Urgell 2000: III, § 3.2.3.4).
- b) Aditzak, beste muturrean, zalantzakoenak dira, *-a*-rik behar ez bide duten gehienek gorde baitute: *abodiatu*, *ainoatu*, *altsiatu*, *aribeatu* «(hacerse) aleve» (< *aribe* «aleve»), *arrotzatu* (< *arrotz*), *atzatu* «ajar así [i.e. manoseando]» (< *atz*), *atzarratu* «arañar» (< *atzar* «dedo(s) corvo(s)»), *aulatu*, *aztiatu* eta *aztinatu*-k gutxienez. Azalpen modura, bururatzen zait *trabes* / *atrabesatu* bezalako bikote mailegatuak aipa daitezkeela, ausaz.
- c) Taiu berekoa da *-di* atzizkia ere (*aitzadi* «peñascal», *astamaizadi* «alcandial»). Baderitzat kasu honetan azalpena toponimiatik zuzenean datorkigula, zeren eta oro har lehenengo osagaian mugatzailea daramaten leku-izen zein deiturak ugari baitira (*Atxaguren*, *Egiazabal*, *Larreategi*; Mitxelena 1955: § 1); honek bidenabar *aitzagaineko* ere azaltzeko balio lezake. Zehazkiago, *-di* atzizkiari dagokionez, balirudike bere kideko *-aga*-ren modura (Urgell 2000: III, § 2.1.6) honek ere mugatzailea eskatzen duela uste izan zukeela Larramendik.

5.2. Hiatoak

Mugagabearen arazoa nahasixeago bihurtzen da oraindik hiatoen bilakaera ezberdinak batzen baldin badizkiogu. Alabaina, horretara baino lehen zilegi bekit gaiari unetxo batez beste alde batetik begiratzea, eta filologoak harrapatzeko sare itxura *HH*-ari kentzea. Izan ere, Larramendik bere irekitasunean *buruia* «cabeza» bezalako zerbaiti sarrera eman zion hiztegian (§ 1.1), bidenabar ziurrenik Harrieten hiztegitik hartua (cf. «*buruia*, tête» EF 280). Are errazago izan zen *quioric ezteu miyan* «(no tiene) pepita en la lengua» entzun eta jasotzea, hala nola *ansiya* «pena, cuidado» edo *barrutiya* «palatinado» ere: hiatoak oro har era honetara hausten duen hizkera baten aztarnak ugari xamar kausitu ditugu dagoeneko grafia aztertzerakoan (§ 4.11), eta mugatzailearekin gehiago ez agertzea ziurrenik hiztegi gilearen erabakiari zor zaio. Hortxe daude, halaber, *auga* «boca», *lauba* «llano», *txauba* «limpio», etab. (§ 4.2), testuinguru honetan *-iya*-dunak baino nahikoa ugariago. Azkenik, hiztegiari buka-

⁷⁸ Jakina, gainerakoetan ez bezala, honetan Larramendiren lekukotasuna badaezpadakoa dugu: ezaguna denez (Urquijo 1907: 82), hitza Etxeberri Sarakoarena da —edo izan liteke—, eta tradizionaluki *alosi* dela egin izan da, nahiz ez dakidan erabakirako oinarri ziurrik dagoen (cf. OEH, s.v.).

⁷⁹ Cf. *DAut*: “Mezcla de dos o más vinos...”.

era eman zionean bizi zen lekuan bizirik, ez da harrigarria, orobat, $a + a > -ea$ bilakaeraren adibideak oso maiz agertzea. Ahaleginean non-nahiko eta nolannahiko euskarari lekua egin ziolako seinale argiak dira hauek guztiak. Haatik, bistan da denei ez ziela arreta berbera eskaini, dela hurbiltasuna edo dena delakoagatik.

Gure arazoetara itzulirik, bistan da, halaber, bilakaera guztiak ez direla arazo-tsua: *buruia*, *barrutiya* zein *aua*-ren kasuetan aski ongi menpera dezakegu nondik nora sortu diren. Baina bestetan, bilakaeraren izaerarengatik, era mugagabea bera zalantzan dago. Orotara hiru oztopo nagusi aurkitu ditut A letrako corpusean: *-ea* bukaerak, hitz ezezagunetan batez ere, *-ia* bukaerak hitz gutxi batzuetan eta *-ua* bukaerak, mailegutan bereziki.

5.2.1. *-ea*, *-ia*

-ea bilakaera Larramendik behin bederen aipatzen duen ezaugarria da, oso leku zehatzari dagokiola:

En Azpeitia (...) *aitea*, *amea*, *damea*, *señorea*, por *aita*, *ama*, *dama*, *señora* (Corografía 301).

Ezaguna da ezaugarri hau Azpeitia baina hedadura zabalagokoa dela; beraz, Larramendiren aipamena gipuzkeraren barruan ulertu behar da, eta hartan ere tentuz, zeren eta eremu honetan bertan Goierri ere agertzen baita.⁸⁰ Azkoitiko sermoian badira honen arrastoak, salbuespenak —ekialderagoko hitzun bati dagokionez— ugari izan arren (Lakarra 1985b: 250). Ezaugarri beraren arrastoak ugari dira, halaber, *HH*-an, eta lehenengo bulkada, errazena egiatan, Loiolaldeko hizkeraren eraginari egotzea da;⁸¹ honen alde etor daiteke Gramatikan honi buruzko aipamenik ez eze, honen aztarnarik ere ez sumatzea, oso oker ez baldin banago. Nolanahi ere, hau dela eta oso gertakari ezberdinak biltzen dira hiztegian, ziurrenik ez denak ahozkoak: saia gaitzean, beraz, nondik nora doazen eta ezer argirik atera ote daitekeen antzematen. Hasteko, bost hitz talde egin ditzakegu, *HH*-an noiz-nola agertzen diren eta horren arabera:

a) Agerraldi guztietan (sarritan bakarrean) *-ea* duten hitzak:⁸²

agorgea «gorga», *allorbea* «alholba» (*allorba* V-gip, *allorbe* V-ple-gip, AN-larr-5vill), *akoskea* «tranquero de puertas y ventanas», *alasea* «aparador» (ekiald. *alase*, AN-5vill *alasa*), *albokea* «albugue» (orok. *alboka*), *albondigea* «albéndiga», *aldaperea* «declive», *aldatserea* «declive», *alegerea* «alegre» (orok. *alegera*), *algebrea* «álgebra», *andreerea* «señoría», *anezkea* «lanzadera» (Azk. *anezka*), *arazea* «estante» (orok. *arasa* edo *?araza*), *arikerea* «entresijo», *arraskea* «rascador» (orok. *arraska*), *artxidukesea* «archidukesa», *artzea*

⁸⁰ Jakina, ezaugarri hau hizkera gehiagorekin batera dauka: bizkaieraz gainera, Araba osoan, Burundán, Lanán, Amekoan «...eta, beharbada, Allinen eta Ega ibarreko hizkera batzuetan ere» (Zuazo 1998: 136). Ik. orain Hualde & Gaminde 1997.

⁸¹ Loiolaldeko hizkeren eraginaz, oro har, cf. Urgell 2000: III, § 12.2.8.

⁸² Daudenean, ahozko lekukotasunak bildu ditut; zehaztapan gehiagotarako, cf. Urgell 2000: 17. eranskina.

«criba» (orok. *artza*), *asmea* «asma», *aspirea* «artesa» (orok. *azpil*, V-ple *aspira*), *atapea* «escotilla» (Azk. *atapa*), *atxerea* «guadapero», «pera silvestre», «peruétano», *aumea* «cabritillo» (bizk. *auma*), *azalkerea* «barbaria», *azufaifea* «azufaifa».

- b) Agerraldi berean bata bestearen ondoan bi formak dauzkatena, nahiz eta, bestetan agertzeraz, normalean *-a* forma erabiltzen duen:

abadesa, *abadesea* «abadesa», *adarga*, *adargea* «adarga», *aizkora*, *aizkorea* «hacha», *alabarda*, *alabardea* «alabarda», *alaga*, *alagea* «alaga», *alaja*, *alajea* «alaja», *alba*, *albea* «alba», *alborada*, *alboradea* «alborada», *almena*, *almenea* «almena», *almendra*, *almendrea* «almendra», *almendrada*, *almendradea* «almendrada», *almilla*, *almillea* «almilla», *arlatea*, *arlata* «latas», *arpa*, *arpea* «harpa», *arropa*, *arrobea* «arroba», *artxa*, *artxea* «harpón», *aska*, *askea* «artesón», «cuerdo», *azienda*, *aziendea* «hacienda».

- c) Agerraldiren batean bakarrik *-ea* dutenak:

aize bunbadea «ventolera» (vs *a. bunbada* «torbellino», «tremolina»), *atxurkinzea* «agricultura» (vs *atxurkintza* «(oficio de) cavadores», «labranza»).

- d) Agerraldiren batean bakarrik *-a* dutenak: *arraska*, *arraskea* «canalón» vs *arraskea* «vaciado» (*arraska* V, G, AN).

- e) Berreraiketa analogikoak: *e + a > -ea* bukaera mugatu ziur batzuen aldean —tar-tean Iparraldeko hitzen bat ere bada— *-a* bukaeradun forma ezezagunak eskaintzen dira HH-an, bizkaierazko berregituraketa (*lora*, *laba*, etab.) gogora ekarriaz:

abalkea, *abalka* «confusión», «corrimiento» (cf. *abalka* «empacho», «rubor», «vergüenza»). *aldea*, *alda* «lado». *aizea*, *aiza* «viento». *alerzea*, *alorza* «alerce». *ata*, *atea* (s.vv. *ataurique*, *atrio*, *estrada*, etab., beti etimologietan). *atzalda*, *atzaldea* (*espalda*-ren etim.). *atzarpa*, *-ea* (*zarpa*-ren etim.). *aurka*, *aurkea* «cara», *aurkea*, *aurka* «delanteraz», «frente». *azora*, *azorea* «azor». ⁸³

Talde honen adibide bereziki korapilotsua dugu *adra* / *ad(e)rea* bikotea:

aderea, *adra* «aderezo» (etim.), *adra*, *adrea* «esquadra» (etim.), *adrea*, *adra* «regla», *adrakaia* «reglamento», *adrakaitza*, *adrebagea* «irregular», *aderaskiña*, *adraskiña* «aderezo», *adreztu*, *adrastu* «reglar, verbo», *adreztu* «aderezar», «arreglar»... *adregokia* «reglar», *adrez*, *adrezkiro* «regladamente».

Eta hauekin bateratsu azter daiteke hurrengo ere: *arikea* «brumamiento» vs *arika* «cansancio», «fatiga» (< *arikatu*, noski). Gertakari hauekin guztiekin lotuta egon daiteke zenbait atzizkiren bukaerako *-e* / *-a* zalantza eta ildo honetatik Larramendik sortu zituen alomorfo berriak; zehazkiago, *-kide* (izen [+biziduna] edo izenondo [+biziduna]) / *-kida* (izen [-biziduna]); cf. Urgell 2000: III, § 4.1.6):

⁸³ OEH-ak *azor* (< *azora*) eta *azore* (< *azorea*) aldaerak egozten dizkio Larramendiri.

ipizticuquidea, *afespicuquidea* «coepiscopo», *beticoquidea*, *betiraunquidea* «coeterno», *oroiquida* «commemoración», baina *cupidaquidea*, *erruquiquida* «commiseración», *avisuquida*, *mezuquida* «commonitorio», *baquida*, *anizquida* «común», *daquizcoquida*, *colegialquidea* «concolega».

eta batez ere *-te*, *-ta*, *-de* eta *-da* aldaerak izan ditzakeen aditzizena (cf. *ib.* § 2.1.11):

agerrerazte «manifestación», *artezgita* «rectificación», *abrilde* «inmolación», *araulida* «preposteración», baina *adierazte* «demonstración, señal, prueba» vs. *adierazta* «indicación», *aldegite* «desvío» vs. *aldegita* «remoción», edo *antzesta*, *antzestea* «pintura».

baita batzuetan elkarren aldamenean agertzen diren *-tze* / *-tza* atzizkidunak, atzizkibion izaera iluna ere tartean,⁸⁴ eta corpusean agerraldi bakarria duen *-zaka* / *-zake* ere:

argitza, *argitzea* «dilucidación» (*argitze* «alumbramiento», «iluminación», «lucimiento»), *arpetza*, *arpetzea* «interpretación» (*arpetza* «declaración», «definición»).

artezaka «aviesso», *artezake* «aviessamente».

Dena dela, hitz batzuen *-e* forma mugatuak argiak dira, hitz ezezagunak izan edo mend. *-a* / ekiald. *-e* zalantza egon arren, Larramendik gehienetan ekialderagoxeko hizkerak islatzen dituelako seinale:

AGURE: *agure zarra* «anciano», *agure aurtua* «caduco», *aguretasun* «senectud»... ALBISTE: *albiste saria* «albricias». ALTISTE: *altiste itsatsiak* «fantasías». ALTARE: *altare-arria* «ara consagrada», *altareco* «frontal»... ANDERE: *andere*, *anyeretzea* «adamarse», *anderetxoa* «madamisela». ANDRE: *andre monjen agintaria* «abadesa», *andre jainkotia* «beata», *andregizona* «andrógeno», *andretia* «deshonesto»... ANRE: *anreketan* «(andar) divertido». ANTXUME: *antxume argal* «chotuno», *antxumekia* «cabrito»... ANYERE: *anyerekeria* «melindre», *anyeretxoa* «damisela». ARLOTE: *arlotte arbuia*... (atsotitza) «arlotte». ARNASE: *arnase artu* «respirar». ARTISTE: *artiste gorria* «Balax», *artiste hirurtia* «calcedonia»... ASNASE —jadanik gramatikan (Larramendi 1729: 393)—: *asnase ematea* «abahar», *asnase nekeza* «acezo», *asnase artu* «alentar»...

Beste horrenbeste gertatzen da beti era batera ematen dituen *-tzaille* / *-le*, *-gile* atzizkiekin (cf. Urgell 2000: III, §§ 2.1.3 eta 2.1.4), hala nola *-bage*, *-ge*-rekin:

abaiatzaillea «provocador», *abarrosgilea* «triscador», *aboiatzaillea* «abollador», *abrebaslea* «quatrero», *adiagilea* «plañidera», *adierazlea* «significativo», *adierazotzaillea* «amonestador», *agurgilea* «saludador», *aizegilea* «abanico»...

adrebagero «irregularmente», *amodiobage* «desamoradamente», *anzketu* «dessemejar», *apaingetu* «desadornar», *araudebagekoa* «extravagante», *aurakero* «desconcertadamente», *arazogero* «desembarazadamente», *ardurabagetu* «descuidar», *argegarria* «eclipsable»...

⁸⁴ Etorki berekoak izan daitezkeela iradoki zuen Mitxelena (1977a: 111).

Bestetan, ordea, aldaerak argi eta garbi bi hizkera ezberdini dagozkio: *ate*, *ata* «abucasta», «foxa» mugagabea, baina *atea*, *ataa* «ánade», «pato» mugatua.⁸⁵ Bistan da gauza bat baino gehiagoren aurrean gaudela, eta gehienak Larramendiren euskararen irekitasunari —ziurrenik alde bilatua, aldez oharkabea jaso— zor zaizkio. Nik uste, *-ea* / *-a* bikoteek gertakari honi antzerako besteri (cf. gorago aipatutako *-iya* kasu bakanak)⁸⁶ baino garrantzi gehiago eman ziola adierazten dute —bide batez, Hegoaldean daukan zabalkundearekin ondo etorririk.

Baderitzat, bestalde, *-a* / *-e* bukaerarekiko oro har euskaraz aurkitu zituen gorabeherak (mend. *-a* / ekiald. *-e*, elkartu-eratorrietako *-e* > *-a* bihurkerak, etab.) arau orokortzera eraman zutela, zenbait hiperzuzenketa edo, nahiago bada, zenbait ustezko berreraiketa eraginaz. (e) taldeko *-a* forma batzuk, argi eta garbi *-a*-z bukatzen diren gaztelaniazko hitzak hobeki azaldu beharrak eragin ditu (cf. *atzalda* ~ *espalda*, *atzarpa* ~ *zarpa*); halaz ere, besteek erakusten digute etimologietan Larramendik ez zuela egin bestetan ere egitea zilegi ez zenik. Beraz, alderantziz azaldu beharko genuke: alegia, gazt. *-a* eta eusk. *-e* baliokidetzea zilegi da, eusk. *-e* zein *-a* biak posible direlako. Honen adibiderik onena *arika* / *arikea* bikotea dugu: inolaz ere, *arikat*u aditzetik Larramendik atzerantz eratorritako izena dugu (honelako eratorriez cf. Urgell 2000: III, § 5.1.1) eta, aditsoinean *-a* egonik, ezin erabaki izan zuen —edo ez zuen erabaki nahi izan— *arta* / *artatu* ala *aize* / *aizatu* erlazioa zegoen. Ez da txarra, halaber, *ad(e)rea* / *adra* bikotea, baldin eta —dirudien bezala— Ip. *drezatu*-rekin lotuta badago (*ib.* § 5.1.1).

Bestelako arazoa dugu *-ea* bukaera bakarrik duten hitzekin —eta honek OEH-an gorabehera handiak sortu ditu—, nahiz eta oro har uste dut ia denetan *-a* mugagabea proposa daitekeela:

- a) Jatorrizko *-a* daukaten mailegu zuzenetan (*agorgea*,⁸⁷ *albondigea*, *algebra*, *arraskea*, *artxidukesea*, *asmea*, *atapea*,⁸⁸ *azufaifea*) ez dago zalantzarik, jakina:⁸⁹ ezaugarri honetarako izan zuen estimuaren isla baino ez bide dira. Ezberdina izan liteke *allorbea*, lekukotasun askok *-e*-ren alde egiten baitute (cf. OEH, s.v. *ailorbe*).

⁸⁵ Bide batez, gaurko euskararen Hualde & Gamindek (1997: 214) *a + a > aa* ondorena «In a few localities on the western *-ea* / central *-a* isogloss (e.g. Zumaia)» bakarrik seinalatzen dute. Duela bi mende eta erdi haren eremua zabalagoa zein murriztagoa izan, berriz ere ez bide dago Loiolatik gehiegi zertan hititu.

⁸⁶ Biak bakarrik (hots, agertzen diren sarreretan *-ia* formaren aldamenean ez daudela) azaltzen dira, aukeran eskainita dauden *-ea* forma asko ez bezala. Hiztegi osoko corpusa beharko genuke, oster, ezaugarri hau egiaztatzeko.

⁸⁷ Erka bitez Larramendiren azalpena: «oy se llama *agorguea* en muchas partes a aquella comida con que ceban por fuerza y a la mano a los capones y otras aves», eta DAut-ena (s.v. *gorga*): «El alimento o comida que se les dispone a las aves de cetrería». Maileguaren esanahi bereziak berma lezake haren herrikoitasuna, besterik ezean (Urgell 2000: III, § 12.2.10).

⁸⁸ Badugu antzeko lekukotasun bat haren herrikoitasuna bermatzeko: *atapa*, *atape* V-ger «musgo o argoma con [que] se cubre la pila de leña destinada a carbón» (Azkue).

⁸⁹ OEH-ak jakintzat ematen ditu *algebra* (s.v. *aljebra*) eta *arraska* (s.v. 2 *arraska*) forma mugagabeak, *-ea* forma aipatu ere gabe; aipatu egiten du *asmea* forma, baina etimologia moduan eta buruan HH jaso gabe; *atapea*-ren kasuan, berriz, ez du erantzukizunik hartu. Gainerako hitzek ez dute hiztegi honen arreta merezi izan.

- b) Jatorrizko *-e* bukaeradunetan (*albokea*, *alegera*) duda egin daiteke, baina nire ustez gainerako lekukotasunek *-a* mugagabea proposatzera eraman behar gaituzte.⁹⁰
- c) Beste horrenbeste gertatzen da gainerako lekukotasun guztietan *-a* daukaten hitzekin: *anezkea* (*anezka* V-m, *anazka* V-m, *ainezka* G ap. Azkue), *arazea* (*arasa* V, G, *agasa* G-azp), *aspirea* (*azpira* V, *aspire* (mug.)⁹¹ V-ple), Larramendiren ulerpena gorabehera (cf. *anezketxo* «espolín», ziur asko berak eratu). Eta, jakina, atzizki ezaguna dutenekin: *andreerea* «señoría»; cf., besteak beste, «*estuera*, *estu erea*, que significa modo de juntar y apretar» (*estera*-ren etim.).
- d) Baita *-e*-dun lekukotasun bakarra zalantzazkoa (ziur asko azken batean *HH*-tikoa) denean: *artzea* (*artze* G ap. Azkue, *artza* V, G, AN); izan ere, *artzari* eta *artzatu*-ren aldamenen *artzelari* eta *artzetu* baditugu ere, lehena G-to [Andoain] (< Azkue, erabat susmagarria)⁹² da, eta bigarrena beste lekukotasunik gabekoa (cf. *OEH*).⁹³
- e) *aumea* *HH*-an *-e* bukaeraduna da, zalantzarik gabe, *aume eznetia* <-tea> «choto» agerraldiaren arabera, eta honen alde etor liteke, halaber, *aumia* «cabrita» aldaera ere; beraz, badirudi *HH*-aren lekukotasunak hitzaren zabalkundea berraztertzer garamatzala.⁹⁴ Haatik, nago beste aterabiderik ere badela: izan ere, ez dirudi ezinezkoa denik Larramendik *aumia* bakarrik entzun eta *aume* ulertzea, ez eta *aumia* hori *auma* + *-a* > *-ea* > *-ia* egiten zuen iturri bati zor izatea.⁹⁵ Honen antzekoa izan liteke *aboria* «negocio», «ocupación», beharbada *labore*-ren aldaera izan bailiteke (hasierako *l*-aren galeraz, ik. Mitxelena 1977a: 323-324).⁹⁶
- f) *alasea*-ren kasuan, egiantzekoagoa iruditzen zait Iparraldeko iturri batetik (Etxeberriren hiztegitik?; ik. Urgell 2000: III, § 12.2.9) hartua eta, beraz, mugagab. *alase* izatea, ezen ez nekez eta urrutitxo (AN-5vill [Lesaka] ap. Azkue) lekukotuta

⁹⁰ *OEH*-ak jakintzat ematen du *alboka* (s.v.), baina *alegere*-ren alde erabakitzen du (s.v. *alegera*). Bigarrenarako, antza denez, erabakitzailea izan da Kardaberatz, Iztueta, etabarrek *alegere* forma erabiltzea: haatik, arriskutsua iruditzen zait idazle gipuzkoar horien lekukotasunari hainbesteko garrantzia eskaintzea, eurek ere *HH*-ko aipamena bere kasa —eurentzat ohikoa zen modura— ulertzea oso egiantzekoa baita. Xehetasun gehiagotarako, ik. Urgell 2000: 17. eranskina.

⁹¹ Jakina, *a + a* > *ea* > *e* urratsak eman osteko forma mugatua.

⁹² Azkueren «G-and» laburdurak batzuetan behintzat *HH* ezkuta dezakeela iradoki izan da: xehetasunetarako, ik. Urgell 2000: III, § 12.1.2.

⁹³ *OEH*-ak, ostera, Azkueren lekukotasunari amore emanaz, *artze*-ren alde erabakitzen du *HH*-rako (s.v. 1 *artza*).

⁹⁴ Halaxe erabaki du *OEH*-ak, *aume* jakintzat emanez *HH*-rako (s.v. *auma*), nahiz eta Landucci eta Añibarroren kasuetan *-ea* mugatua lekukotzen dutela zehaztu. Aurreiritziak izugarriko indarra dauka, dakusgunez.

⁹⁵ Hualde & Gaminderen arabera (1997), XVIII. mendeko markineraz gainera, gaur egun gertakari hau eurek «Lekeitio/Deba type» eta «Larrauri type» deritzenetan, gehi Errezil eta Urdiainen bederen betetzen da, besteak beste. Berriro ere Loiola inguruko eremuan gehien bat.

⁹⁶ Antzeko lekukotasun bakarra *abori* L «tropiezo» da (ap. *OEH*), baina hau oso susmagarria izateaz gainera, ez dirudi gurearekin zerikusirik duenik. Zehazkiago, Aizkibelek *aburi* (L) «tropiezo» dakar, euskalki marka gorabehera Larramendiren *aburikai*, *aburikatu*, *aburiko* familiatik berak erator zezakeena. Bere aldetik, Azkueren «*abori* (L), tropiezo»-k Aizkibelenaren ondorengo akastuna baino ez izateko aukera asko ditu.

dugun *alasa*, areago Azpirozek *alase* (nahiz beste adiera batean: ik. *OEH*, s.v. *alasa* 2) jaso duela kontuan harturik.⁹⁷

- g) Bost hitz ezezagun geratzen zaizkigu: *akoskea* «tranquero», *aldaperea* eta *aldatserea* «declive», *arikerea* «entresijo» eta *azalkerea* «barbaria, barbarie».⁹⁸ Bitan Larramendik *-e* ulelpena egin du (*arikerezain* «meseraicas», *azalkeretso* «bárbaro»), baina jadanik ikusi ditugu beti asmatu ez zuelako adibide batzuk. Izan ere, *arikerea*, lehen zatia identifikatu ez badut ere, argi eta garbi *eraa*, *erea* «molleja» (ik. *OEH*, s.v. 1 *bera*) hitzaren elkartua da eta, beraz, **arikera* behar luke.⁹⁹ Halaber, oso egiantzekoa da *azalkerea* *azalkeria*-ren ordeztu egotea,¹⁰⁰ eta ondo datorke goraxeago *-ia* zuzen ulertzeko iradoki ditudan zailtasunekin. *aldaperea* eta *aldatserea* bikotean, postura egingo nuke bata bestearen analogiaz eraturakoak direla, eredia *-era* atzizkiduna delakoan (cf. lehen aipaturako *andreerea*). Hautatzekotan, *aldaperea* joko nuke oinarritzat, errezeloa baitut atzizkia itxurazkoa baino ez dela —Larramendiren berranalisi okerraren ondorio—, eta egiatan bigarren osagaian *behere* duela.¹⁰¹ Ez daukat inolako azalpenik, azkenik, *akoskea* hapaxerako.¹⁰²

5.2.2. *-ua*

Inolako zalantzarik gabe, *HH*-ak oro har *o + a > oa* bilakaera daukaten hizkeren lekukoa da; hala adierazten digute *-txo* eta *-ko* atzizkiek (Urgell 2000: III, §§ 2.1.1 eta 2.1.17), adibidez, hala nola hainbat eta hainbat hitzek ere: *adaroa*, *aitasoa*, *alainzoa*, *albiñoa*, *aldaroa*, *altzoa*, *apoa*, *ardoa*, *artoa*, *astoa*, *auspoa*... Batzuetan, bi bukaerak ondo lekukotzen ditu, dela aldaera modura, dela esanahi ezberdinekin:

akulloa, *akulua* «aguijada» (*akuilo* V-arrig, AN-erro, B, Ae, *akulu* V, G, BN-baig, S, R ap. *OEH*, s.v. *akuilu*). *ameloa* «amelo» (cf. *OEH*, s.v. *amelo*), *amelua* «estopa» (V ap. *OEH*, s.v. *amelu*). *asmoa* «acierto en hablar, curar, &c.», *asmua* «pretexto» (cf. Ax. *asmua*).

⁹⁷ Beste kontu bat da zergatik *OEH*-ak eta *EH*-ak *alasa* hautatu duten, xx. mendeko gipuzkerazko idazle zenbaiten (Zaitegi *alaza*, Etxaide eta Txillardegia) erabilerari atxikita: ba ote da jakintzat eman duten ahozko berme gehiago? Nolanahi ere den, orain artean ez bezala, honetan *OEH*-ak zalantzak azaltzen ditu («*alasea* Lar (de *alase* o *alasa* + *a*?)», s.v. *alasa*), nahiz honen azpian datzana, oso oker ez baldin banago, *alasa*-ren «hegoaldekotasuna» eta, beraz, Larramendik horixe jaso behar zukeelako ustea izan.

⁹⁸ *OEH*-ak *?aldapere* forma jartzen du buruan, Hiribarrenen *aldapere* Larramendiren forma ulertzeko gidaritzat harturik, mesfidantzaz bada ere; sei orri beranduago, berriz, *aldatsera* erabakitzen du, Lhandek dakarren *aldatsere* forma oker (eta ziurrenik Hiribarrenen bitartez) dela baieztatuz. *akoskea* eta *azalkerea* ez ditu jaso.

⁹⁹ Cf. *DAut*, s.v. *entresijo*: «Tela gruessa y llena de gordura, entretejada de nervios, venas y arterias, y con muchas landrecillas o mollejas» (azpimarra nirea da). Bide batez, *OEH*-ak (s.v. 1 *bera*) *ere* forma bat egotzen dio Larramendiri, ziurrenik *erea* mugatutik.

¹⁰⁰ *OEH*-ak, s.v. *azalkeria*, «acto escandaloso» adiera dakar, frai Bartolomenen hiru adibiderek; (cf., adib., *Esaten ditubeela berba desonestubak ta lotsarizko errazoiak; ta egiten ditubeela, arei darraikuzan azalkerija berdiak* (fB Olg 60).

¹⁰¹ Cf. Corominasen etimologi proposamena *aldapa*-rako: *alde* + *-be*, *-pe* (*MDELV*, s.v. *aldapa*).

¹⁰² Larramendik egindako hitza dela esan ahal izateko, haren eraketa asmatu beharko genuke eta nik neuk, behintzat, ez diot antzik ematen: baliteke, beraz, hau ere herrikoia izatea.

Gure arazoak maileguetan hasten dira; lehenik eta behin, esan behar da inolako dudarik gabe Larramendik *-oa / -ua* baliokideak izan zitezkeela bazekiela, baita gatz. *-o-ri* eusk. *-u* egoki dakiokideela ere, etimologietan erakusten duen bezala:

Acero, es de el Bascuence *altzairua*, que pronunciado *altzairo*, quedó en acero.

Fárrago (...), de *arrago*, *arragua*, que es aquel grande hoyo, pozo ancho y horno abierto en que se cueze y quema primero la vena...

Fragua, viene de el Bascuence *arragua*, *arragoa*, que es aquel horno grande en que se cuece y prepara la vena para hazerse después la massa de el hierro...

Hato, rebaño, es de el Bascuence Labortano *batua*, que significa lo mismo.

Bigarrenik, *obispoa*, *apezpikua* «obispo» adibidearen arabera, mailegu iruntsiak *-u* bukaera duten bitartean, mailegu berriek *-o* dute oraindik, espero zitezkeen bezala. Honexegatik, badira *HH*-an *-o* bukaera argia daukaten mailegu anitz; dena dela, gutxi batzuetan, berritasunak baino lehenagoko tradizioa egoteak garrantzi gehiago izan dezake (lehen agerraldiaren datarekin markatu ditut halakoak). Azpimarragarria da, halaber, euskal etimologia izateak ez duela *-o* gordetzea oztotutzen:

abaninoa «abanino», *abetoa* «abeto», *ablatiboa* «ablativo», *adulteroa* «adúltero» (1571), *agasajoa* «agasajo» (etim.), *aginaldoa* «aguinaldo» (etim.), *akolitoa* «acólito», *alabastroa* «alabastro» (etim.), *albokeroa* «alboguero», *alborotoa* «alboroto» (etim.), *alborozoa* «alborozo» (etim.), *amañoa* «amaños» (etim.), *amomoa* «amomo», *anakardoa* «anacardo», *animoa* «ánimo» (1562), *anparoa* «amparo» (1713), *antekeristoa* «antechristo» (1627), *apostolikoa* «sede apostólica», *argisaltia* «cabra saltante» (cf. *saltoa* «salto», «tranco»), *armiñoa* «armiño» (etim.), *arrasgoa* «rasgo» (etim.), *arrasoa* «raso», *arrastoa* «rastro» (1627), *arzedianoa* «arcediano», *astrosoa* (etim.) «zaparrastroso».

Bestetan, berriz, *-ua* bukaera dugu, nahiz orotara adibideak gutxixeago izan. Haietako zenbaitetan *-u* argia da, dela zahar itxuragatik, dela bestelako lekukotasunengatik, edo dela *HH*-ak berak aztarna ematen digulako:

abisua «aviso», *abisu-ontzia* «(navío de) aviso». (*h*)*abitua* «hábito», «mongil» (1610). *adrailua*, *adrilua* «ladrillo». *arrastelua* «biendo», «vieldo». *astagarbanzua* «astrágalo», cf. *garbantzua* «garbanzo», *garbanzutegia*, *garbanzudia* «garbanzal». *batua* «hato» (*VocBN*, ap. *OEH* s.v. *batu* 2).

Eta oro har ez dut uste arazorik legokeenik ondokoetan ere *-u* ikusteko:

amitua «amito» (1656). *arrazoi usua* «uso de razón» (cf. *usu errazoakora*, VJ 4). *arrimua* «arrimo» (1715). *austrapua* «rodilla de cocina» (cf. *OEH*, HAUTS-TRAPU, s.v. *hauts*).

Alabaina, bada bederen *-oa / -ua* bikote bat: *arrojoa* «arrojamiento» vs *arrojua* «arrojo». Honen arabera, ez dakit nola ulertu behar diren ondokoak, nahiz, ikusiak ikusirik, *-u* bukaeradunak izatea egiantzekoena izan:

abrigua «abrigado lugar», *albertxigua* «albaricoque o albérchigo», *almen-drua* «almendro», *aborrua* «ahorro».

Alderantziz gerta liteke, berriz, euskal jatorriko hitz batean: *aiztua* «cuchillo»: *OEH*-ak eta *EH*-ak (s.v. *aizto*) *aiztu* interpretatu dute, gainerako lekukotasun guztiek (Azkue, *ContR*, *EAEL*) *aizto* ematen duten arren (ik. Urgell 2000: III, § 12.2.9). Ene uste apalean, *HH*-ak aldizka biltzen dituen eredu ezberdineko bilakaeren beste adibide bat baino ez da, ostera.

6. Ondorioak

Lan honetan zehar euskal ordainek bere buruaren berri eman zezatela saiatu naiz, euren sarrerako bataz besteko kopuruaren, gainerako ordainekiko kokapenaren, famili arteko erlazioen eta euren itxura morfologiko eta grafikoaren bitartez. Honela *HH*-ko hitzen ulerpenerako eta jatorriaren azterketarako benetan baliotsuak izan daitezkeen anitz xehetasun bildu ahal izan ditugu, baita, ezinbestean, azterketa hartan azaldu beharko diren joeretatik batzuk sumatzen hasi. Inoiz ez dut besterik egin, ezpada azterketa horretan erabilitako corpusak sortu dizkidan buruhausteak honetara ekarri, adibide multzo osoaren azterketan gertakari arazotsuen azalbidea aurkitzeko esperantzaz; hauxe gertatu zait etimologietako ordainekin (§ 3.9) eta mugagabearen arazoarekin (§ 5).

Sarrerako ordainen bataz besteko kopurua aztertuaz lehen baino argixeago nabaritu ahal izan dugu *HH*-ak ezkututzen duen aberastasuna. Aberastasun hau, hainbat alderditan antzeman ahal izan dugunez, aldeztu Larramendik liburuetan zein herrietan egin zuen bilketa lanari zor zaio, aldeztu hizkuntzaren baliabide ezberdinak erabiltzeari. Beharbada biek pareko garrantzia dukete hiztegian baina, oraingoz, hitzberrigintza lana oso aise begietaratu dugu: berez bezala dario egin dugun azterketa motari.

Nolanahi ere den, bilketa lanaren agergerri ezin hobekak oso dira ordain jator eta oso itxura ezberdinekoez —inoiz argi eta garbi oso etorki ezberdinekoez ere— osatutako sarrerak (§ 2), hala nola hitz ber baten aldaera grafiko, fonetiko zein morfologikoak biltzen dituzten sarrerak, haietako batzuk etorki nabarmenekoak (*zurru*, *zuburru* «assessor», *cherria*, *cerria*, *charria* «cochino» edo *ecaitza*, *ecacha* «tempestad» bezalakoak; § 3.7). Honezaz gainera, egiaztatu ahal izan dugu hiztegitik hiru euskalki nagusien aldaerak batzen ahalegindu zela eta, honen barruan, bizkaierazkoak emateko erraztasun gehixeago zuela; hau euskalki honetako hizkeretik hurbiltasun edota haien berri jakiteko erraztasun handiagoari egotzi behar zaio, noski.

Alabaina, esan bezala, lehenengo hurbilketa honetan hitzberrigintza ageri-agerian geratu da, batez ere Pouvreauren hiztegian antzematen den modu beretsuan (Lakarra 1995): izan ere, Larramendik hitz familiei —alfabetatzean, adibidez— eman zien garrantzia, baita adierakako antolakuntzari ere emandakoa (Urgell 1998a: §§ 5.4.1 eta 5.4.7.1) euskaraz familiakako eta adierakako eratorpena errazteko urrats nabari suertatu da, espero bezala: familia eta adiera bereko hitzek erator oinarri bereko ordainak dituzte ia beti. Lan hau bereziki nabaria da A letraren hasieran, non oinarri bakoitza balio bereko atzizki guztiei erantsi zaien (§ 2), edo bestela irakurlea eratorpen legeak bere kabuz ezartzera agerian gonbidatuta dagoen (§ 3.3).

Hiztegiaren beste hainbat alderditan ikusi dugun bezala, Larramendik A letran aurrera joan ahala osotasun nahia alde batera utzi, eta oinarri ezberdinekin atzizki bakar bat erabiltzea, edo atzizkiak eta oinarriak aldizkatzea, edo oinarri guztietatik batzuk bakarrik hautatzea aski izaten du. Bistan da irakurle zoliarentzat honelako sarrera laburragoak hasierako sarrera oro-nahikoak bezain iradokitzaile direla; esan daiteke begiaurrean dugun *HH*-aren azpian askoz ordain gehiago biltzen dituen hiztegi «birtual» bat dagoela: oinarriak eta atzizkiak elkarrekin truka daitezkeen aletxo modura aurkezten direnez gero, aurretiaz ezin jakin daiteke irakurle jakitun batek har lezakeen erabakia. Honek balio lezake, bidenabar, *HH*-an zuzenean agertzen ez diren baina «birtualki» aurreikusita dauden geroko idazle eta hiztegegileen hainbat forma azaltzeko, hala nola Añibarroren *HH*-ko hitzen bizkaieratzeak (Urgell 1997: § 5.2.2).

Aipatzea merezi duen beste berezitasun bat ordain errekursibo laburtuak (§ 3.3) eta ordain laburtuak (§ 3.5) dira. Hauek ere erakusten digute kontuz ibili behar dugula *HH*-ko ordainen kontu ematerakoan. Hauetako batzuetan, dena dela, partizipioak edo *-se* aditzak direla eta, erredundantzia ezabatzeko —edo behinik behin ematzeko— joera berragertzen zaigu (cf. gainera partizipio bakanduak, § 3.4). Edonola ere, hala famili buru diren sarreretan nola hauen eratorrietan, halako maiztasun batez ordain bakartuak agertzen dira (§ 3.2): honelakoek *HH*-an dena automatismoa eta eratorri beharra izan ez zela egiaztatzen dute baina, aldi beretsuan, eransketa batzuk eratorpenean edo hitzaren zatikaketan aritzeko beranduegi iritsi zirela iradoki dezakete.

Ildo beretik ulertu behar dira *item*-etako batzuk ere (§ 3.6): euren zeregin nagusia ordain sail ezberdinak mugatzea dela ikusi dugu, baina batzuetan euskal ordain baten ezgaraiko eransketa ahalbidetzen duten marka hutsak dira. Zalantza geratu zaigu noizko eransketak diren, zirriborroan ala argitaletxean egindakoak, baina dena dela ez dago zalantzarik azken orduko iturri bat edo batzuk —edo iturri berankor bat edo batzuk bederen— egon zirela adierazten dutela.

HH-ko ordain gehienak bakunak —beste izenez «itzultzaileak» deituak— dira, hots, gaztelaniazko hitzen hitz bakarreko baliokideak (§ 3.1). Halaz ere, ordain perifrastikoak ugari xamar kausitu ditugu, batzuk hizkuntzaren izaerari ederki dagozkionak (*barrilean sartu* «embarrilar» bezalakoak); beste batzuk, ordea, gaztelaniazko hitzaren benetako definizioak dira (§ 3.1.1), eta hau bereziki azpimarratu behar da, orainsu arte, dakidalarik, hitzak euskaraz definitzeko halako beste saiorik izan ez dela kontuan harturik. Nolanahi ere den, honelako definizioen metahizkuntza beti ere Larramendiren idazkera da.

Oro har, bestalde, ordain perifrastiko anitz eta definizio guztiak, osoki edo zatika, eredutik jalgiak dira, dela *DAut*-en definizioen laburpenak, dela *HH*-ko gaztelaniazko azalpen zein zehaztapenen itzulpenak, edo dela latinezko ordainenak ere batzuetan. Inoiz edo behin antzeman ahal izan dugu, gainera, gaztelaniazko hitzaren kalkoa egin duela, erabatekoa zein gutxi gorabeherakoa (§ 3.1). *DAut*, eta gaztelania oro har (batzuetan latina ere), Larramendiren sorbideak aztertzerakoan behin ere alde batera utzi ezingo ditugun lekukotasunak dira. Ordain zehazgabeak —«*X mota bat*» eta antzerako adierazpenak, alegia— ere aurkitu ditugu, eta hiztegi zaharretan honelakoak ohikoak zirela egiaztatu (§ 3.1.2). Oro har, orduan orain baino dena *itzuli*

beharra txikixeago zela dirudi, beraz; eta, Larramendiri dagokionez zehazkiago, «pié forzado» delakoak muga argiak izan zituela *HH*-an.

Erorpenarekin batera, *HH*-ko ordainen kokapenak —kasu honetan sarrera barruko ordenak— erakutsi digun beste gauza bat, mailegatze lana egon badagoela da: ‘euskal hitza + mailegua’ bikoteen neurritz gaineko ugaritasunak salatu digu, areago euskal hitz direlakoak sarritan argi eta garbi hitz berriak direla kontuan izanik (§ 3.8): *bajodea* «embate», *articasdea* «estudio», *izquirillea* «rasgo de letra», *gozabetatu* «salvarse, ir al cielo», *batzola* «sandalia»... Aurkitu zituen hutsuneen aurrean mailegua eta hitz berria, bi aukerak eskaini nahi izan zituela dirudi, hortaz.

Etimologietan Larramendik egiatan proposatzen dituen ordainak zein diren mugatzen saiatu naiz, A letrako corpora eratzeraoan gaiak buruhauste franko eman dit eta. Nahiz eta hasieran etimologi sarrera mota ezberdinetan ordain zer den eta zer ez den erabakitzeke arau argi batzuk aurkitu uste nuen, datu guztiak arakatu eta erkatuta, azkenean aukera nahikoa irekia dela erabaki behar izan dut. Nolabait, honek lehenago aipatu ditudan ordain eratorri «birtualen» kontua dakar gogora: ez dirudi Larramendik aukeran etimoak ordain gisa erabiltzeko oztoporik jarri nahi izan zuenik, ez eta (baina honi argiago iritziko diogu, ziurrenik) aukeran maileguak erabiltzeko. Nolanahi ere den, adibide zenbaiten azalezko azterketa honek argi eta garbi erakutsi digu maileguak «bataiatzea», «zorrak hartzeko bihurtzea» (Mitxelena 1983a: 914-915) ez zela, ez eta hurrik eman ere, etimologiaren xede eta ondorio bakarra; honegatik, bistan da sorbideen azterketan ez dugula begi bistatik galdu behar etimologiaren bitartezko hitzberrigintza.

Grafian bereziki luzatu behar izan gara, hainbat gai ikergabe edota oso korapilotsuak izaki, grafema bakoitzaren benetako balioaren (edo balioen) irudi ahalik eta oso eta xeheena izatea komeni baitzitzaigun, hala nola fonema bakoitzaren irudikapen ohiko zein ezohikoena, euskal hitzen azterketara filologiak eskaini behar dituen gutxieneko bermeekin iritsi nahi baldin bagenuen, behintzat: alegia, hitz bakoitzaren irakurketa zehatza zein den jakinik, den mailegu edo hitz berria, den euskal hitz ezagun zein ezezaguna. Zeinu bakoitza zuzen eta zalantzarik utzi gabe interpreta-tzeak esan nahi du, besteak beste, *HH* ziurtasunez erabili ahalko dela —orain artean ez bezala— bera lehen lekukotasuna —edo bakarra— deneko ondare zaharreko hainbat hitzetarako. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, bada.

Jadanik ezagutzen genituen xehetasun askoren berrespenarekin batera, ustez uste-kabekoren bat ere eman digu arlo honek eta, batez ere, grafema askoren interpreta-ziorako halako ziurtasun bat. Laburpen gisa, Larramendiren (zehazkiago, *HH*-aren) oinarritzko grafi sistema honako hau da, geroago egingo ditudan zehaztapenekin:

/b/ = , <v>

/s/ = <za>, <ce>, <ci>, <zo>, <zu>

/d'/ = <id> / B — B; <y> / l, n —

/g/ = <ga>, <gue>, <gui>, <go>, <gu>

/gw/ = <gü>

/i/ = <i> / B — B eta / # — B

/j/ = <ja>, <ge>, <gi>, <jo>, <ju> (/x/ ahoskera ere posible, baina gaitzetsia)

/x/ = <ja>, <ge>, <gi>, <jo>, <ju>; <x> (maileguetan bakarrik)
 /k/ = <ca>, <que>, <qui>, <co>, <cu>
 /kw/ = <qu> (maileguetan bakarrik)
 /l'/ = <ll>
 /n'/ = <ñ>
 /s/ = <s>; <ss> / B — B
 /š/ = <(i)sy>, <is> / B — B; <is> / — # ; <ch> / # —
 /c/ = <tz>
 /č/ = <ts>
 /č'/ = <ch>
 /t'/ = <ty>
 /u/ = <ü> / B — B eta / # — B

Gainerantzean hiru eragin nabaritzen dira Larramendik hartzen dituen erabakietan, zein baino zein indartsuagoa dagokion arloan:

- a) Gaztelaniatzko grafiaren eragina: Bere idatzi guztietan ere nabarmena den arren, dudarik gabe gaztelania —honen hitzik ezohikoenak barne— beti aldamenean izateak, garrantzi bereziko ondorioak sortu ditu maileguen letraldatzean. Ezbairik gabe hau abantaila baino ez da filologoarentzat, hainbat arazotan aurrez aurre ikus baititzake abiapuntua eta ondorioa; honi esker, arazorik gabe erabaki ahal izan dugu maileguetan eusk. <x> zehatz-mehatz gazt. <x>i darraiola, hala /x/ nola /ks/ hotsak irudikatzen dituenean eta, arrazoi beragatik, <j> eta <g> /x/ (§ 4.12), eta <qu> /kw/ (§ 4.3) irakurri behar direla.

Bestetan, berriz, gaztelaniaren eragina haratago doa, euskaraz balio fonikorik ez duten bikoiztasunak maileguetan zein euskal hitzetan agertaraziaz. Hauetako zenbaitetan Larramendik gaztelaniatzko bikoiztasuna arbuizatzeko joera dauka, halere, nahiz ez erabatekoa: kasurik nabariena maileguetan <h> ia erabat desagertzea da, hitz arraro edo jasoetan izan ezik (§ 4.13). Halaber, aski adierazgarria da ia salbuespenik gabe etimologietan erabiltzea, <v>-k bestelako maileguetan indartsu dirauen eta, oso bakanki bada ere, euskal hitzetan ere ager daitekeen bitartean (§ 4.2). Bestalde, etimologia eta maileguetan <ss> gorde ohi duen arren, <s> bihurtzeko joeratzko batekin, badaude, egon ere, beti <ss>z idazten dituen euskal hitzak (§ 4.5). Azkenik, esan gabe doa <ja>, <jo>, <ju> / <ge>, <gi> bereizkuntza gorde duela, eta salbuespenetatik batzuk ere (*jipoea* «jubón» erakoak) gaztelaniari zor dakizkiokeela dirudi; hizkuntza honi zor zaizkio, orobat, hitz hasierako <y>ren agerraldi bakanetako zenbait (*yuca* «yuca» erakoak; § 4.11).

- b) Iparraldeko grafiaren eragina, baita agian beste sistemaren batena ere. Egia esan, oro har Larramendiren grafi sistema nagusi da *HH*-an: oso gertakari arrotz gutxi itzuri zaizkio eta, beraz, egin dezakegu estali egin zuela ia erabat Hegoaldeko aurreko testuetan aurkitzen zirenak, ezaugarri nagusienetan bederen, areago haien grafiaz kexu agertu zela jakinik (Larramendi 1745: xxxv). Iparraldeko testuekin, oster, salbuespen asko egin zituen, batzuk begi-bistakoak, nahiz eta grafi sistema haren ezaugarri nagusietako batzuk zeharo desagertarazi zituela sumatzeko aztarna nahiko izan.

Lehenik eta behin, Larramendik Iparraldeko testuak erabili zituela oraindik frogatu beharrik balego, <tch>, <nh> eta <rh>-ren arrastoak (§§ 4.10 eta 4.13) frogatzen dira, hala nola Harrieti egotzi behar zaion <qu> = /k/ grafia (§ 4.3), eta Materre edo Axularrengandik zuzenean datorkion <g>, <j> = /s/ ere (§ 4.8). Hau bezain nabarmena da hitz hasieran zein bokalartean <h> kokatzeko Larramendiren trebetasunak Iparraldeko tradizioaren ezagutza sakona —edo bertako iturri zehatzak, behintzat— eskatzen duela (§ 4.13).

Froga modura indar gutxixeagokoak izan arren, antzeko iturriei lepora dakizkieke, ikusiak ikusirik, hitz hasierako <iB> grafemaren adibideak eta ohiko <ge>ren <je> salbuespenen bat (§ 4.11). Halaber, ez da mezprezatzekoa gazt. <xK> = eusk. <xK> arauak dituen salbuespen bakanak, denak Iparraldeko testuetan ondo lekukotuak egotea (*escumicatu* 1733, *escumicua* 1627, *escusa* 1545; § 4.12). <in> eta <il>-ren adibide batzuk orokorrak diren arren (*dilista*, *quilica*, *ninia*...), ezin da ukatu beste askok (*biloa*, *ilarguia*, *bainan*, *mahaina*...) ekialdeko euskalkiek berezkoa duten ahoskera ez sabaikaria islatzen dutela (§§ 4.14 eta 4.15), eta errazago izango dela honelakoak Iparraldeko testuei egoztea, ezen ez Larramendik Nafarroa Garaiko haranetan zehar egindako balizko bilketari. Neurri berean —edo handiagoan, beharbada— epaitu behar ditugu <ill> grafiak (adib. *beilla*), normalean <il> ez sabaikari den idazkeretan bustidura azpimarrazteko erabiliak (§ 4.14).

Hitz hasierako <ch>aren maiztasunari dagokionez, uste dut nahikoa datu bildu ahal izan dudala Iparraldeko testuetatik datorrela, eta berariaz gorde duela, *HH*-an posizio horretan /š/ hotsak daukan adierazpide bakarra izateraino, ziurrenik irakurketa askea —*xoria* zein *txoria*, alegia— ahalbidetzen duelako (§ 4.8). Inolaz ere, Larramendik haren balioa ondo ezagutzen zuen, zeren eta hitz barruan Iparraldeko <ch> idazkeraren aldamenean (edo haren ordeztu) bere erako letraldatzea (<is> zein <(i)sy>) ematen baitu maiz. Adibide bakarra dugun arren, azkenik, <ng> (= /nd'/) *angereder* hitzean Iparraldeko grafiatzat hartzera makurtuko nintzateke (§ 4.9; cf. Urgell 2000: III, § 12.2.9).

- c) Larramendiren iritzien eragina. Lehenik, dagoeneko iradoki dudana zerbaiti berriz ekingo diot, zeren eta iturriak identifikatzerakoan, besteak beste, zeharo garrantzizkoa baita: Larramendiren sistema, eskura izan zituen beste sistemen bereizgarrien gainetik zapalgailu baten modura igaro zen. Zehazkiago, Iparraldeari dagokionez, bertako hitzak harrapaerrazagoak direnez gero, ziurtasun osoz esan dezakegu aldaketak eurrez egin zituela: <x>, <tx> (§ 4.6), <tch> (§ 4.10), <h>, <lh>, <nh>, eta <rh>, <cc> zein <kh>, <pp> zein <ph>, eta <th> (§ 4.13), eta <ch> bera ere, neurri ezberdinetan, arrastorik utzi gabe, edo arrasto txikiak utzita bakarrik desagertu dira *HH*-rako bidean. Oro har, beste horrenbeste gertatu da <ç>, <tç> eta <tc>rekin (§ 4.7).

Bigarrenik, Larramendik idazkera etimologizaleetarako halako joera bat izan zuela adierazten duten datuak bildu ditugu: *deu* > *deuan* (§ 4.2), /gw/ = /gu/ (*eguerdia*, *ezaguera*... § 4.4), <ze>, <zi> (*goizean*, *gauzetan*... § 4.7), <nb> (*jaquinbidea*, *minbera*... § 4.16). Ezaguna da, ordea, <tz#> eta <ts#> bezalakoak gaitzetsi zituela (1745: xxvii; ik. Urgell 1998b: § 4.10).

Honekin nolabait lotuta dagoen kontu bat: Larramendik (bereziki zenbait idatzitan) ozen ostean frikari emateko daukan joera *HH*-an normalean muga zehatzen banean geratzen da: afrikatua dago ia beti aditzizenetan, adizkietan eta hala dagokien atzizkietan, eta frikaria etimologietan, maileguetan eta berezko duten atzizkietan; aztertu ditugun adibideen artean *enzun*, *eranzun* bakarrik bestelako arrazoiei egotzi behar zaizkiela dirudi (§ 4.17). Oraindik argiago, jakinaren gainean egina da /č/ > /š/ aldaketa inplosiboan (§ 4.8), zalantzarik gabe testuinguru bereko *tz* > *z* eta *ts* > *s* aldaketekin lotu beharrekoa (Urgell 2000: III, § 2.2.5.2), baina, dena dela, etorki horretako <is> gutzien interpretapena ziurtatzeko bidea ematen digu.

Beharbada Ip. <ch> hitz hasieran gordetzea ere jakinaren gaineko aukera da, baldin eta Ip. /š/ = Heg. /č/ arauaren orokortzea bada (§ 4.8). Hotz-hotzean nekez sinestekoa dirudien arren, lan honetan bertan azaldu zaizkigu honen antzeko orokortze zenbait (zehazkiago, *-ea* / *-a* bikoteetan, § 5.2.1), eta are gehiago ikusi ahalko ditugu sorbideen azterketan.

HH eta *DAut*-en eduki osagarri ezberdinak erkatzerakoan (Urgell 1998b: § 7) hautemandakoarekin bat, ahoskapenaren arloan ere etimologietan beti informazio gehiago kausitu dugu. Oso interesgarriak dira Ip. <#iB> letraldatzeko egin zituen ahaleginak, dela <y> dela <i> erabiliak, eta are interesgarriago batzuetan oker zitekeela (*iöri*) ohartu garenetik, nahiz eta idatzietan baliatu zuen hitza izan (§ 4.11). Baliteke egokitze saioak zuzen edo zeharka lotuta egotea Larramendiren ustetan hitzak etorkizuneko Hegoaldeko idazleen artean izan zezakeen erabilgarritasunarekin, hain zuzen.

Larramendiren ezaugarri aipagarrienetatik dugu irakurlearen jatorri eta ohituren araberako bi irakurkera eskaintzen aritu zelako posibilitatea: <ch> (/č/ zein /š/; § 4.8), <j> (/j/ zein /x/, azkena gaitzetsia, baina ez debekatua; § 4.11), <is> (/š/ zein <is>; § 4.8), jadanik hainbatetan gogoratu dudana «En esto cada cual...» esaldiaren kariaz. Ardurakabetasun pixka bat azpimarratuko nuke leherkari aurreko txistukaria idatziz jartzerakoan; Larramendiren hizkeraren (edo belarriaren) ezaugarri izatea, testuinguru berean txistukariak jasotzeko erakusten duen gaitasunak gezurtatzen du. Batzuetan, <z> eta <s> dun aldaerak sarrera berean, edo sarrera ezberdinetan esanahi ezberdinez agertzea aldi berean hitzen etorki ezberdinaren eta hiztegi gilearen belarri onaren seinale dira (§ 4.18).

Eta, azkenik, *HH*-an daukaten iraunkortasun edo garrantziagatik egileak bereziki ongi menperatzen zuen hizkera bateko (edo batzuetako) ezaugarriak diruditen batzuk aipatuko ditut: bokal bikoitzak (§ 4.1), bustidura adierazgarriak eta *i* ondoko /š/ren bustidura automatikoa (§ 4.8), hiatoak hausteko eta <y>-ren epentesia (§§ 4.2 eta 4.11), hitz barruan /j/ > /x/ bilakaeraren adibide ugariak (§ 4.11), *i* osteko /n/ eta /l/ren sabaikaritze erregularra bokal artean eta beheranzko diptongoaren ondoren inplosiboan, eta, bestalde, mailegu (ziurrenik ez iruntsi) zenbaiten ez sabaikaritzea (§§ 4.14 eta 4.15).

Corpusaren azterketan buruhauste handiak eman dizkidan beste gai bat hitz askoren forma mugagabea ezarri ezina izan da, berezko *-a* duten eta ez duten hitzak bereizteko zailtasunagatik, eta *HH*-an hitz bukaerako hiatoen ondorio ezberdinengatik. Hemen egindako azterketari esker, uste dut argibide zenbait eskaintzeko para-

dan nagoela. Berezko *-a-ri* dagokionez, ondokoak azpimarratuko nituzke (§ 5.1): (a) iturri ezberdinek ondorio ezberdinak eskaini dizkiote hiztegi-gileari, *HH*-an eredu bat baino gehiago agertaraziaz; iturria identifikatzea, beraz, bide ona dateke zertaz ari garen jakiteko; (b) arauaz kanpoko adibide nabarmen gehienak, badirudi Larramendiren gaizkiulertuei egotz dakizkiekeela; eratorpen eta elkarketan ezarri zituen arauak aztertzeak arazoetatik batzuk konpontzen lagunduko digu: (c) zehazki, aurre-ra daiteke elkarketan ezin fida gaitzezkeela, azken bokala galarazteko joera indartsuarengatik; arrazoi honexegatik, elkarketan bokalak irautea zalantzarik gabe lekukotasun aske baten seinale da; (d) eratorrietan *-dun* atzizkia fidagarrienetakoa dela egiaztatu ahal izan dugu; (e) aditza, berriz, sarritan bereziki zalantzazko suertatzen da, *-a* zalantzazko edo ezinezkoa daukaten formen ugaria kontuan hartuz; (f) berbera gertatzen da *-di* atzizkiarekin: honek badirudi zehazkiago *-aga*-ren eragina pairatu duela, oinarrian mugatua baitarama, dakigunez (eta Larramendik ongi zekieenez; ik. Urgell 2000: III, § 2.1.6).

Hiatoei dagokienez (§ 5.2), hemen ere iturri ezberdinak izan direla egiaztatu ahal izan dugu lehenik: iturri idatzizkoren bat eta batez ere ahozkoak, jakina, zeren eta gehienetan Hegoaldeko gertakariak baitira. Azpimarratzekoa da Larramendik alde honetatik izan zuen irekitasuna. Badirudi ongi ezagutzen zituen gertakariak —huribileko gertakariak— direla *-iya* eta bereziki *-uba*, eta oraindik hobeto $a + a > -ea$. Azken honek hiztegi lanetan gehien aritu zen urteetako ingurunetik datorrelako itxura osoa dauka: Loiolako inguruetatik eta, zehazkiago, Azpeitialeko azpieuskalkitik. Honetaz dena dela, oro har Larramendik *HH*-an ezaugarri honixe —gorago aipatutakoei ez bezala— eman zion garrantzia oso ondo dator mendebaldean daukan hedadurarekin, eta beharbada honi zor zaio azken batean. Hiatoen bilakaera zenbait tek ulerpen arazoak eragiten dituzte, ez bakarrik guri, baizik eta baita Larramendiri ere ziurrenik: berak dakarren guztia ezin dugu besterik gabe sinistu, ez eta besterik gabe gipuzkera arrunt —literatur gipuzkera, Beterriko gipuzkera...— bailitza epaitu, ez eta hurrik eman ere: hizkera bateko baino gehiagotako ezaugarriak daude *HH*-an, eta gure lana da zeinen arabera interpretatu behar diren erabakitzea. Adibiderik argiena *-ea* bukaera da, batzuetan *-ia* bukaera zenbaitekin batera: *HH*-an honen adibideek argi eta garbi gutxienez hiru iturburu ezberdin dituzte: (a) adibide «kanonikoak», $a + a > -a$ eta *-ea* bikoteak: anitzetan Larramendik automatiko bihurtutako gertakaria dirudi. Ederki menperatzen zuen eta nahi adina egin zezakeen zerbait da, dena dela (cf. Azkoitiko Sermoia); (b) *-ea* bilakaera bakarrik duten hitzak, Larramendik iragaitzaz bezala jasoak eta berak ere batzuetan gaizki ulertuak, beharbada $a + a > ea > ia$ bilakaera jasan duten gauzak, eta beharbada $e + a > ia$ bilakaera jasan dutenak bezalaxe; eta (c) Larramendiren hiperzuzenketak, hots, *-e* bukaera duten hitzetan *-a* bukaera ere berreraikitzea (*aizea*, *aiza* erakoak); badirudi aztertu dugun $a + a > -ea$ bilakaeraz gainera bukaerako *-e* / *-a* bestelako gertakariak ere (hala nola mend. *-a* / ekiald. *-e* eta elkartu-eratorrietako *-e > a*) zerikusia izan dutela (bigarrenerako, ik. Urgell 2000: III, §§ 2.2.5.2 eta 3.2.1.2).

Neurri txikiagoan bada ere, agerian jartzen saiatu naiz *-ua* zenbaiten interpretazioaren gaitza, eskuarki maileguetan baina baita euskal hitzen batean ere. Nolanahi ere, *HH*-ak oro har $o + a > oa$ eta $u + a > ua$ bilakaeraren adibideak dakartza. Dena dela, honelako hitzak elkarrekin eta banaka aztertzetik ikasi dugu, ez itxura, ez

aurreiritziak, ez geroagoko lekukotasunak —HH-aren zordun direnean (!)— erabakitzailerik izan daitezkeela nahaspila honetan, eredu ezberdinak elkarren lehian egon daitezke eta.

Beharbada, azterketa honetatik atera dezakegun ondoriorik garrantzizko eta erabatekoena hauxe da: euskal ordainetan aurkituko ditugun gauza batzuk Larramendik oharkabeen-edo jasoak direla, hots, iturri ezberdinei zor zaizkiela eta, hein berean, iturria sala lezaketela. Baina, aldi berean, beste gauza batzuk Larramendik hala nahita gertatzen dira, berak euskaraz zekiena baliaturik orokortu edo maiztu zituelako. Tartean behin Larramendi hizkuntz aztertzailearen itzala ikusi ahal izan dugu, beraz, baina baita Larramendi hitz biltzailearena ere. Gauza hauek, baina, denak haren sorbideak aztertzerakoan banaka frogatu beharko ditugu.

Bibliografia

- Aceró, I., 1985, «El Diccionario latino-español y el Vocabulario español-latino de Elio Antonio de Nebrija: análisis comparativo», *Anuario de Lingüística* I, 11-21.
- Alibert, L., 1966, *Dictionnaire occitan-français*, Institut d'Études Occitanes, Toulouse.
- Altuna, P., 1967, «Larramendiren hiztegi berria», *Euskera* 12, 139-300.
- , 1979, *Etxepereren hiztegia*, Mensajero, Bilbo.
- , & J. A. Lakarra (arg.), 1990, *Manuel Larramendi. Euskal testuak*, Andoingo Udala, etab., Donostia.
- Fita, F., 1880-81, «Suplementos al Diccionario trilingüe del P. Larramendi, escritos en 1746 por el P. fray José de María, Carmelita Descalzo», *Revista de Ciencias Históricas*, II-III, 41-91.
- Housholder, F. W. & S. Saporta (arg.), 1975, *Problems in Lexicography*, Indiana University, Bloomington.
- Hualde, J. I. & I. Gaminde, 1997, «Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue», *ASJU* 31: 1, 211-45.
- Ibar, 1935, *Genio y Lengua*, Tolosa.
- James, G. (arg.), 1989, *Lexicographers and their works*, University of Exeter.
- Lafon, R., 1951, «La langue de Bernard Dechepare», *BAP* 7, 309-38.
- Lakarra, J. A., 1984, *Euskal thesauruserako gaiak: Hegoaldeko testuak (1700-1745)*, EHUko tesi-na argitaragabea, Gasteiz.
- , 1985a, «Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan», *ASJU* 19: 1, 9-50.
- , 1985b, «Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko Sermoia (1737)», *ASJU* 19: 1, 235-81.
- , 1991, «Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi», in Lakarra & Ruiz Arzalluz (arg.), I, 217-58.
- , (arg.), 1992, *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoingo Udala, etab., Andoain.
- , 1993, *XVIII. mendeko hiztegi gintzaren etorkiez*. Doktorego tesi argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- , 1995, «Pouvreuren hiztegiez eta hiztegi gintzaren historiaz», *ASJU* 29: 1, 3-52.
- , 1996, «Iturrien erabilera eta tamainak egitura(z) zehaztuaz: *Refranes y Sentencias* eta *Hiztegi Hirukoitza*», *Uztaro* 16, 21-55.
- , & I. Ruiz Arzalluz, (arg.), 1991, *Memoriae L. Mitxelena*, ASJU-ren Gehigarriak, Donostia.
- Landau, S. I., 1989 [1984], *Dictionaries. The Art and Craft of Lexicography*, Cambridge U. P.
- Lapesa, R., 1984, *Historia de la lengua española*, 9. arg. zuzendu eta emendatua, Madril.

- Larramendi, M., 1728, *De la antigüedad y universalidad del Bascuenze en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas. Demonstración previa al Arte que se dará a luz desta Lengua*, Salamanca. Ediciones Vascas, Bilbo, 1978.
- , 1729, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamanca. Arg. faksimilea, Hordago, Donostia, 1979.
- , 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* (2 lib.). Arg. faksimilea, Txertoa, Donostia, 1984.
- , c. 1764, *Corografía de Guipúzcoa*, J. I. Tellechea Idigorasen arg., Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1969.
- Martin, S. E., 1975, «Selection and Presentation of Ready equivalents in a Translation Dictionary», in Houscholder & Saporta (arg.), 153-59.
- Mitxelena, K., [1955], *Apellidos Vascos*. 4. arg., Donostia, 1989.
- , [1961], «Euskal iztegitik XVII-XVIIIgarren mendeetan». Orain *SHLV* I, 361-72.
- , 1970, *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbo.
- , 1977a, *Fonética histórica vasca*, 2. arg. osatua, *ASJU*-ren Gehigarriak 4, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- , [1977b], «Notas sobre compuestos verbales vascos». Orain *PT* 311-35.
- , 1978, «Para una historia de la ortografía vasca», in «Miscelánea filológica vasca, II». Orain *PT* 391-95.
- , [1983a], «Mendiburu eta Larramendi», *Euskera* 28: 1. Orain *SHLV* II, 912-5.
- , [1983b], «Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)», *Eusko Ikaskuntzaren IX. Kongresoa*, Bilbo. Orain *SHLV* II, 948-64.
- , 1987, *Palabras y Textos*, EHU, Gasteiz.
- , 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, (2 lib.), J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren Gehigarriak 10, Donostia.
- Oñederra, M. L., 1992, «Euskal fonologikoazko berriak 1900 arte», in Gómez & Lakarra (arg.), *Euskalaritzaren historia I*, *ASJU*-ren Gehigarriak 15, 49-66.
- Osselton, N. E., 1989, «Alphabetisation in monolingual English dictionaries to Johnson», in James (arg.), 165-73.
- Pagola, R. M., 1992, «Larramendi eta dialektologia», in Lakarra (arg.), 247-65.
- Palay, S., 1980, *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*, Editions du Centre National de la Recherche Scientifique, Paris.
- Quemada, B., 1967, *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863). Etude sur leur histoire, leurs types et leurs méthodes*, Didier, Paris, etab.
- Real Academia Española, [1726-39], *Diccionario de Autoridades*. Berrarg. faks., 3 lib., Editorial Gredos, Madril, 1979.
- Sarasola, I., 1983, «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU* 17, 69-212.
- Seco, M., 1987, *Estudios de lexicografía española*, Paraninfo, Madril.
- Steiner, R. J., 1970, *Two Centuries of Spanish and English Bilingual Lexicography, 1590-1806 (Janua Linguarum. Series practica 108)*, Mouton, The Hague.
- Urgell, B., 1987, «Esku-liburuaren grafi aldaketak (1802-1821)», *ASJU* 21: 2, 357-87.
- , 1995, «Atari gisa» in F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarreko Kondaira* (2 lib.), Klasikoak, Donostia, i-lxxxii.
- , 1997, «Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca», *ASJU* 31: 2, 643-85.
- , 1998a, «Hiztegi Hirukoitza eta Diccionario de Autoridades erkatuaz (I): oinarritzko ezaugarri zenbait», *ASJU* 32: 1, 109-163.

- , 1998b, «Hiztegi Hirukoitza eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (II): sarreraren edukia», *ASJU* 32: 2, 365-414.
- , 1999, «Hiztegi Hirukoitza eta *Diccionario de Autoridades* erkatuaz (III): Gaztelania», *ASJU* 33: 1, 157-238.
- , 2000, *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*, tesi argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- , 2001, P. A. Añibarro. *Guero Guero*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 2002a, *Euskal Lexikografia*, Irakaskuntza proiektu argitaragabea, EHU, Gasteiz.
- , 2002b, «Hiztegi Hirukoitza-ren kanpoko eta barruko historiaz», in X. Artiagoitia *et al.* (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, *ASJU*-ren Gehigarriak 44, EHU, Bilbo, 629-49.
- , 2003, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren enanskina: saio bat hiztegitzaren testukritikaz*, *ASJU*-ren Gehigarriak 47 (argitaratzeaz).
- Urquijo, J., 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes D'Etcheberri (1712) con una introducción y notas por Julio de Urquijo e Ibarra*, Paris. Berrarg. faks. *RIEV* 28, Bilbo, 1976.
- Villasante, L., 1985, *Lavieuxville-Harosteguy. Bayonaco Diocesaco bi-garren Catichima*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Zuazo, K., 1998, «Arabako Euskara», in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), 1998, *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Euskal Azterlan Bilduma 7, Eusko Legebiltzarra, 125-89.